


# EUSKARAREN JAKINDURIA



Félix Zubiaga

EUSKARAREN  
JAKINDURIA

FELIX ZUBIAGA

*Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiko  
Kultura Sailaren diru laguntza izan du*

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta  
Ekoizpena: Erroteta

ISBN: 84-933155-2-4  
Lege Gordailua: SE-3045-2003

Inprimaketa: Publicaciones Digitales, S.A.  
www.publidisa.com \_ (+34) 95.458.34.25. (Sevilla)  
Liburu honen bertsio elektronikoa, deskargatzeko:  
<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

Autorearekikoa (para dirigirse al autor)  
Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)  
edo/o felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net

EUSKARAREN  
JAKINDURIA

FELIX ZUBIAGA



## AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. HITZAREN ANALOGIA.....	11
1. 1. Kosmologia zaharra eta analogiaren sorguak.....	13
1.2. Arketipoak, oroitzaren kutxa.....	14
1.3. Jainko arketipoak, jakinduria zaharraren lekuko.....	15
1.3.1. <i>An</i> antzeko izendegia.....	16
1.3.2. <i>Utu</i> eduko izendegia.....	17
1.3.3. <i>Ra</i> ereduko izendegia.....	19
1.3.4. <i>Ilu</i> lezko izendegia.....	21
1.4. Giza arketipoak, jakinduria berriaren lekuko.....	22
1.4.1. <i>Ka</i> kisako izendegia.....	23
1.4.2. <i>Ba</i> bezalako izendegia.....	24
1.4.3. <i>Ax</i> xedeko izendegia.....	26
ONDORENA.....	27
II. HITZAREN ANTOLAPENA: HIZKUNEAK.....	29
2.1.1. <i>An</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	30
2.1.2. <i>Utu</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	36
2.1.3. <i>Ra</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	39
2.1.4. <i>Ilu</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	42
2.1.5. <i>Ka</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	43
2.1.6. <i>Ba</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	46
2.1.7. <i>Ax</i> arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak.....	47
2.2. Izenlagunak eta zehaztaileak.....	50
2.3. Gonbaragailuak.....	50
2.4. Lokarriak-eta.....	50
ONDORENA.....	51
III. HITZAREN ARTESIAK.....	53
3.1.1. <i>An</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	54
3.1.2. <i>Utu</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	55

3.1.3. <i>Ra</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	56
3.1.4. <i>Ilu</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	56
3.1.5. <i>Ka</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	57
3.1.6. <i>Ba</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	57
3.1.7. <i>Ax</i> arketipoko izenen itzuliketak.....	58
3.2. Izenaren eta aditzizenaren joskerak.....	59
3.2.1. <i>An</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	59
3.2.2. <i>Utu</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	64
3.2.3. <i>Ra</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	67
3.2.4. <i>Ilu</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	69
3.2.5. <i>Ka</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	70
3.2.6. <i>Ba</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	73
3.2.7. <i>Ax</i> arketiparen hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak.....	74
ONDORENA.....	76

IV. ESALDIEN JOSKERA.....	77
4.1. <i>An</i> arketipoko esaldien joskera.....	77
4.2. <i>Utu</i> arketipoko esaldien joskera.....	80
4.3. <i>Ra</i> arketipoko esaldien joskera.....	81
4.4. <i>Ilu</i> arketipoko esaldien joskera.....	82
4.5. <i>Ka</i> arketipoko esaldien joskera.....	84
4.6. <i>Ba</i> arketipoko esaldien joskera.....	85
4.7. <i>Ax</i> arketipoko esaldien joskera.....	86
ONDORENA.....	87

V. HIZKUNETIK ESAKUNERA.....	88
5.1. HizkUNETIK esakunerako bidea.....	89
5.2. HizkUNETIK esakunerako izadi eskola.....	93
5.2.1. HizkUNETIK esakunerako <i>An</i> izadi eskola .....	94
5.2.2. HizkUNETIK esakunerako <i>Utu</i> izadi eskola .....	98
5.2.3. HizkUNETIK esakunerako <i>Ra</i> izadi eskola.....	103
5.2.4. HizkUNETIK esakunerako <i>Ilu</i> izadi eskola .....	107
5.3. Gizarte eskolako jakinduria berria.....	110

5.3.1. Hizkuniketik esakunerako <i>Ka</i> gizarte eskola .....	110
5.3.2. Hizkuniketik esakunerako <i>Ba</i> gizarte eskola .....	117
5.3.3. Hizkuniketik esakunerako <i>As</i> gizarte eskola.....	121
5.4. Jainko eskolako jakinduria.....	128
5.4.1. Bizi jakinduria.....	129
5.4.2. Hizkuniketik eskunera Jainko eskolako jakinduria.....	130
ONDORENA.....	133
ONDORENAK.....	134
BIBLIOGRAFIA.....	136

## LABURGOAK

1° laburgoa: Oihuzko deiak arketipoen arabera.....	17
2° laburgoa: NOR izenordeak arketipoz arketipo analogizatuak.....	19
3° laburgoa: Tokizenak deskribatzeko konposagaiak.....	20
4° laburgoa: Aldien analogia arketipoen arabera.....	21
5° laburgoa: ZER aberedi izenak arketipoen arabera.....	23
6° laburgoa: ZER landaredi izenak arketipoen arabera.....	25
7° laburgoa: Izenlagunak arketipoen arabera.....	27
8° laburgoa: Adimen hitz-aditzen analogia arketipoen arauz.....	31
9° laburgoa: Zentzu hitz-aditzen analogia arketipoen arabera.....	33
10° laburgoa: Mintzo hitz-aditzen analogia arketipoen arabera.....	35
11° laburgoa: Jakinduriazko berdinketa-bereizketak.....	41
12° laburgoa: Aurrizkien analogia arketipoen arabera.....	55
13° laburgoa: Atzikien analogia arketipoen arabera.....	61
14° laburgoa: Aditzlagunak: NON, NOIZ, NOLA, ZENBAT arketipoz arketipo.....	63
15° laburgoa: Agintezko adizkera (oihuzkoak).....	65
16° laburgoa: Gonbaratzekoan analogia arketipoen arabera.....	67
17° laburgoa: <i>ibai&gt;via&gt;fe; bide&gt;fda&gt;fede&gt;fide; vereda&gt;verita</i> analogiak .....	115
18° laburgoa: <i>senda</i> hitzaren analogiak.....	123
19° laburgoa: Jainkoaren sendia arketipoen arabera .....	131

## SIGLA BATZUREN IRAKURKETA

(s) sumeriera, (a) akadiera (et) etiopiera, (ur) urartio, (hu) urrita, (u) ugaritiera, (e) egiptiera, (ara) aramaiera, (h) hebraiera, (arb) arabiera, (ber) bereber, (g) gerquera, (l) latina, (f) frantxesa, (al) alemaniera, (i) ingelesa, (it) italianoa, (ca) catalana, (ga) gailegoa.

## SARRERA

Hizkuntzak Neolitos sakonean hasi eta milaka urtetan zehar herrien jakinduriarekin batera sortu ziran eta herrien jakinduriarekin batera burutu. Gizakia hasieran izadiko jakinduriak harrigarritzen zuan eta abereen sena aintzak hartzen, baina, indarrean eta abiadan ezpada ere, ehizako trebezian gainditzen zituan, eskerrak aizkora eta azagaien teknika berriei.

Izadiaren armonia ekusan: zerua eta lurra eta bien arteko egi mugikorraren artean, eguzkia gora eta behera, egunaren ostetik gauak jarraitzen zuela. Lainoek eguzkiaren galdak baretzen zetzen, euriak hurraren agortea eta abereen egarria asetzer. Neguari udak jarraion, hilik zen gizadia biziberritzera, zaharrak hil egiten ziran, baina ume berriak jaioten. Eta zer da gizakia kosmoaren erdian? Gizakiak izadiaren partekide zekusan burua, hareago, izadiarena bera egiten saiatzen zan: goizean itzartu eta jagi, gauen etzan eta lo, haurtzaroan jolas, gaztetan hazi, adinean atünez ikasi eta zahartzaroan lur azaletik pasatu eta baxatu egiten dela. Unean uneko, laino baltzen gotiluna ezagutzen zuan eta egun argien alaia, abereekin marruma, arkaitzen ohartzunari ohiau, txoriei txistu, haize eta urei zurrumuru eta iretargiaren aldakortasuna bere baitan ezagutzen zuan. Gizakia izadiaren logikaz jabetu nahi zuan eta dagoneko izadiko harrigarriak eta bizikizunak ipuindu nahi zituan, ots, izadiko logika ahozkatu, eskuketaren trebezia edo kainaberaz asmatu soinua hain artezirako nahiko ez zela hautemanetz.

Asaben asabek izadiko margoez baliatuz, izadiko bolumenak antzestu eta abereen soina jabetuz, margozki lan bikaina egin zuten eta izadiko soinuez baliatuz, sentikerak musikatu zituzten. Ikuskizunak, entzumenak nahiko atsegin zuan, baina barreneko bulkoak nolatan zehatz eta mehatz adierazi urkoari edo eta jainkoei? Nori eskatu? Nola eskatu? Nor bakoitzari zelan deitu, zer bakoitza nola adierazi, nori berea emanetz, alabari amaren izena, adibidez, edo semeari aitarena, jainkoei ere ohore eginik, eta, ahalik zehatzen jokatzuz, izadiko oreka bihurritu gabe?

Gizakiak bere nor kontzientzia egokitu behar du izadiko landa

zabalean. Izadiaren arabera jokatu behar, izadiari imusinoraino nañia eta jainkoei eregu egin behar die, izadiko indarrez eta magiaj jabetu ahal izateko, arkaitzak bezala, erantzuna eman diezaion. Nola mintzatu jainkoei gogozko erantzuna merezi ahal izateko? Harriaren segetuaz jabetu nahi du. Nabaria zuan eguzkiak arkaitzetan zeuzkala orzantzeko eta arratzeko ateak eta zeru eta lurraren arteko ateok erantzun egiten zutela. Nola ahozkatu oihuak, deiak erantzuna eta itaunak ituna behingoa gerta zezan?

Hizkuntzaren arazoa ebazteko, gizakia izadi beraren ordenagai-luaz uztiatzen da. Zeru eta lurreko auzian elkarrizketara deitu ordezkariari izen ahozkatu bereziaz eta ahalik soilenaz deitu zien. Artean zeru jainkoa adierazteko, begiak edo eskua gora jasotea baino ez zuan. Orain, gainera, ahotik urtendako dei-hots berezian *An<sup>(s)</sup>/Anu<sup>(a)</sup>, Inu<sup>(w)</sup> Eni<sup>(hu)</sup>* da. Horra dei eredia egina. Zerua eta zeruari dagozkionak eta zeruaren *antza, aintza* edo *ansia* dutenak hots horren soinua eramango zuten euren egitura soil edo aglutinatuan, hala nola *ama, nahi, nini, anai, maite*, etab. Hona zeru jainkoarekin komunikatzeko dei edo oihuzkoak ere: *ino, ene, aini, eni, enei, añó*, etab. Monosilabook geroago konsonante deituko ziran eta ohiuzko biribilduok gero gramatikazko “orazione”.

Amaren eredia *An naroa* bada, aitarena *Utu<sup>(s)</sup> iduzki adoretsua* izango da: *no* eta *tto* izango dira, *noka* eta *ttoka* elkarrizketatuko dira jainkosa jainkoekin eta ahoz ahozko hiztegia *An* zeruaren *magalak* jasoko du eta *Utu iduzkiaren ituak josiko*. Eta beste hainbeste gainerako jainkozko edo giza erduekin. Adibidez, *Ki<sup>(s)</sup>* “lur”, *-ki* zatikia eta haren barrenetik darion *ibaia>Ba<sup>(e)</sup>* hartzen ditu bere *gorputz ganora* eta *baita=pneuma<sup>(a)</sup>* ordezkatzeko, etab.

Horrela, margozkia magoz bezala, hizkuntza hots ahozkatuez hasi zan jakinkoen eta gizakien mundua antzezten, goiko eta beheko ordezkarien hotsez mintzaten ikasi zuanean. Marraskiak ostarkuan zazpi margo aurkitu zituela eta musikak zazpi nota antzeman izadiko hotsen artean? Hizkuntzak ere zazpi arketipoen soinua ahozkatu izendatuko eta aukeratuko ditu, zazpikun bai zan, izan ere, orokortasuna adierazten zuen zenbakia.

## I. HITZAREN ANALOGIA

Gizakia izadiko ikusgarri eta entzungarriez baliatu izan da bere bulkoak xedatu eta banan-banan aditzen emateko. Zeru anilak orokortasunaren magala eta mendea erakusten zion eta eguzkia, goitik behetik otustan, doitasun eta zuzentasun eredu ezeze, mogimendu guztien edutzat hartzen zuan. Hitz ahozkatuaren ereduak, arbeleko laukian edo paper idatzian barik, izadiko liburu idekian zituari, begien betegarri. Bakoitzean begiratzea edo adieraztea baino ez zuan izenen lokarria eta edukina egiteko. Izenak eredu ahozkatzen zuan eta ereduak berak ornitzen zuan ekintzako edo jasanpeneko edukina. Gizakiak izadia imusinoraino eregutzea eta antzeztea "imitatzea" baida *mitoaren* muina. *Utu*<sup>(s)</sup> *iduzkia otara itoitu*, *Utu iduzkia, ostera, otsi. Ra*<sup>(e)</sup> *iruskia, orzanzean urten/erten/ortu*<sup>(l)</sup>, *Ra*<sup>(e)</sup> *iruskia, arratzean ortzi*. Ekintza berriak edo bulko berriak sortzen zitzaizkiola, eredurik egokiena oratu eta beragandik analogizatzen zuan otsa eta edukina batera.

Ereduok jainko eta giza sinboloak dira, jainkoen eta gizakiaren ordezkariak hizkuntzaren auzi eta itunean, baina funtzean *ene!* edo *otoi!* deitzean, zeruarekin edo iduzkiarekin berdintzen dira. Giza ordezkariak jainko ordezkariekin elkarizketatzean, ez dira nortasunean berdintzen, baina jainko ordezkarietik hitz harremanak jainko izan nahia, ots, hilezkortasuna, izan irria sortu zuan gizakiagan eta, hein batean, bere burua mitoraino jasotzen.

Analogian oinarritzen den hizkuntzak gizakia izadiko nastetik burua ateratzen laguntzen dio eta jainko ordezkariekin jakinduriarazko bideak urratzen. Zeru ertza mendiko egiraino jaizten den bezala, mendiak zeruko egiraino jasotzen dira eta bien arteko tirabiran ebazten dute auzia eta benazko egia.

Hizkuntza ahozkatua jainko eta gizakiaren arteko lokarri eta erlijio gertatzen da horrela, jakinduriaren adibide alde batetik eta teologiazko siniskai bestetik, hizkuntzetan, eta euskara mito bizian bederen, agertzen den bezala.

### 1. 1. *Kosmologia zaharra eta analogiaren sorguak*

Sinboloak deritzaie izaditik eta gizaditik hautaturiko hizkuntza erduei. Sinboloak, materia ikusgarri edo sentigarri direnarren, bulkoa edo ispiritua adierazteko gei dira. *As* "haize" *asperen* sentigarria da, *asa asperatzen* dugu, baina ikusezin denez, *izpiritu* ere ba da eta *asmoak* adierazteko gei da. *Utu*, iduzkia denarren, *otoia* egiteko ezeze, *doia* adierazteko ere gei da analogiaren arteziaz.


Kosmologia zaharrak oinarrizko lau elementu ezagutzen zituan: *uin*, *su*, *aire*, eta *loi* (lur) eta hoiexek dira funtsean hizkuntzak jainko sinbolotzak aukeratzen dituen *An*, *Utu*, *Ra* eta *Ilu* ereduak ere. Beraz gizakiak kosmoaz duen eritzi zaharra bat dator hizkuntzaren filosofia asmatu zutenekin. Ez da edozelako asmakizuna, jakinduria eta eskola dago artean, eskola hori jainkoen kultorako gunetan ematen zan bai Sumerren eta bai Egipton, eta horrela, izendegiak egiten zituzten, asabengandik zuten ohituraz.

Kosmologia zaharreko lau elementuok dira hizkuntzaren hots armonikak sortzen dituztenak eta gizakiak elementuotatik bere konplexuari dagokion zatia hartzen du, jainkozko hizkuntzan parte hartu ahal izateko: *ki*<sup>(s)</sup> lur denetik, *ibai* ur denetik, eta *as/ax* arnase bizigarri denetik. *Ka*<sup>(e)</sup> da, beraz, *gorpuzkeraz*, *Ba*, *baitaz* edo *pneuma*<sup>(g)</sup> denez eta *Ax*>haize, arnasa denez gero. Hizkuntza bizian, gizakiaren eskuketak eta sentzu guztien imintzioak ezeze, izadi guztiko hots eta imintzioak eskuartzen dute zazpi sinboloen dantzan, hizkuntza gizarteko elea ezeze, gizakien eta jainkoen arteko itunben agiria gertatzen dela.

Asieratik ezpada ere, hizkuntza zazpi sinboloen arian osatzeraino eldu zan, zazpi sinboloz josten ditu bulko guztiak, zazpi notekin armonika guztiak josten dituen bezala. Bulkoen ugariak eskatu eta ahozkeren alofonoek emanda, hizkuntza arterik bikaina osatzen du jakinduriaren ezaugarri eta erabat adierazbide dela. Antxinako Sortalde Hurbileko gizakiak jakinduria jainkoengandik lortu zuelakoa aitortzen du eta jakinduria ohoragarria zela jainkoentzat ere. Harrezkero gizakia arteziaz mintzatzen da eta artezia honek bereizten du hizkuntza izadiko beste urrumetadik.

Hizkuntza jainko eta gizakien arteko itunbena denez, jainkoen





Kosmologia zaharreko ordenadore honek lagundu zion gizakiari, hizkuntza asmatu eta arauak zazpi ariko sarean sartzen, analogigai/analogizatu eratara bulkoak burutuz. Arketipoak: *An*<sup>(s)</sup> “zeru makoa”, *Utu*<sup>(s)</sup>/*Ra*<sup>(s)</sup> “eguzkia”, *Ilu*<sup>(w)</sup>, sinbolo ziur bako dager izadian, baina jainkoen ahal eta lekukotasunaren seinale dena. Erdian lurra=*ki*<sup>(s)</sup>, *Ka* giza soinaren ordezkari eta ur gozoen ibai, bera dela giza baitaren *Ba* eta bizien *Asa*=arnasa. Behean, itxasoa eta iburnia.

**Hizkuntzaren arketipoak: zapi ahots eta zazpi seinu**

- aN: N,n,M,m,mn,Ñ,ñ.....an, uno
- uTu: T,t,tt,th,D,dd,dh,tx,tz,ts,z,Y,y.....duo, dos
- Ra: R,r,rr,rh,.....eren/iru=tres
- iLu: L,l,Ll,ll,.....lau=cuatro
- Ba: B,b,V,v,P,p,ph,F,f,H,h,.....bost=five
- Ka: K,k,Q,q,C,c,kh,kh,Ch,ch,X,x,.....eks=xei
- As: Sh,sh,Z,z,zz,X,x,tx,tx,tz,tz,ts,J,j,y.....septe=zazpi

Hizkuntzaren zazpi zorguak, zazpi konsonante eta familia bereko alofonak dira. Antxinako idazkerak hagatik kontsonante hutsez idazten zuten. Konsonante bakoitzak bere letera seinua ere arketipoaren soinetik jasoten du: *An* zeru-men-dien egia MN dira jeroglifikoetan, *Utu* o kurutzatua da feniziar alfabetan, *Ra* o ardatzduna geroglifikoetan, *Ilu* aginte makila eratan dager L, *Ka* eskuak gora adi lurrean exeritako gizakia w da geroglifikoetan eta *Ba*, **b** ausaz batela uretan eta as, **s** ausaz giza zintzurra. Jainko arketipoak lehenen eta giza arketipoak hurren.

hitzak bezala sortzaile izateko asmoa du beregan eta erritoko arteziaz hori lortzen ahaleginduko da, ots, “esan eta egin” arabera.

### 1.2. Arketipoak oroitzaren kutxa

Hizkuntzako arketipo bakoitza gizakiaren bulkoak banatzeko karpetarena egiten du, irudimena lagun, hitz analogizatuak ahalik egokien eman dezaten idea bakoitzaren hotsa. Irudimenak zazpi orratzez josten du eta orratz bakoitzak beste hainbat errainutan edatzen du argitasuna. Ez dagoke zazpi organo hoiekin adierazi ez daiteken bulkorik gizakiagan, zazpiak egiten dutela osotasuna eta zazpikun doinuok ondo jotzean datzala hizkuntzaren artea.

Jainko sortzaile bakoitzaren tenploan orduko jakintzari buruzko onomastika-zerrendak egiten zituzten apaizek, toponimiaz, astronomiaz, teologiaz, gramatikaz, etab.: *An, Utu, Ra, Ilu* zirela arketipo eta kosmo jakinduriaren itu eta helburu. Agertu izan diren halako zerrendak K.a. bigarren milagarrenekoak dira eta ohitura zahar-rago baten emaitzak direla ematen dute. *An* jainkoaren izenetik, adibidez, hagandiko kalitateak, haren emazte eta seme-alaben izenak, haren aialdeko eta morroien izenak agertzen dira<sup>1</sup>.

Eskulaneko tenplorik ezean, Euskal Herrian *Ainamendi, Otamendi, Aramendi* eta *Uliamendi* berezko santutegien izenak agertzen dira, jainko arketipoa aurrizki dutela edo *Montaine, Montoto, Monterré, Montoliu* atzizki daroela erromanikoetan. Onomastika joskera honek aurrizki eta atzizkien egiturak sortu zituan euskararen gida duten hizkuntzetan, latinak eta erromanikoek berere.

Giza arketipoak ez doaz aurrizki hasiera baten. Lehendabiziko saio diren hitz aglutinatuetan atzizki doaz eta hitzaren lehen giza-maila adierazten datoz eta, beraz, giza jakinduriaren lehen pausoak dira. Giza arketipoak aurrizki jartzen direnean eta, beraz, gizaki denaren *Ka* hilkorra, *Kingu* edo *Ekain* jainko izenen heinera jasotzeak Jainko agintearekiko lehenen mokoketa izan zan eta, beraz, ogentzat dager mitoetako teologian.

Hizkuntzako arketipoak aukeratzean, hasierako kosmologia

1 LIMET, H., “PANTEÓN”(religiones mesopotámicas), DR, o.c., p. 1357.

egituran bezala, artezi berriko hizkuntzaren sorkuntzan batasun zabala izan zan Antxinako Sortalde Hurbileko bi mila km. karra-  
turen esparruan bizi zirenen artean. Hala eta guzti, uri bakoitzak  
bere jainkoen arketipo edo ereduan haizatzen zuan hitzaren soi-  
nua, sinonimiei bide zabala eginik eta, ahozkeraren hutsaren gaine-  
tik, laster tauletan eta papiroetan idatziz bermatuko zituzten,  
euren bereiztasunak aditzen eman eta elkar ulertu ahal izateko.

Harritzekoa da euskara bezalako ahozko hizkuntzak, ezeren idaz-  
ki gabe, Neolitos hasierako hizkuntza arautuaren asmoari jarraiki,  
osotasunean irautea eta hizkuntza helduenak bezalako hazkundera  
lortu eta jakinduria mailan paregabea agertzea, euskara beraren  
egituran, hizkune eta esakunetan ikusiko dugunez.

### **1.3. Jainko arketipoak, jakinduria zaharren lekuko**

Arketipook lehen kosmologiaren lekuko eta hizkuntza arautuaren  
eredu diren aldetik, Neolitos sakoneko giza jakinduriaren lekuko  
dira eta euskarak bakoitzaren nortasuna gordetzen du onomastika,  
hiztegi eta gramatikan eta bakoitzaren teologia, mito, errito eta  
otoitzetan, beste gabe, euskararen jakinduriaren lekuko direla.  
Jakinduria zaharrari "kosmo jakinduria" ere deitzen zaio izadi-  
arduratzan delako eta jainkozko arketipoez onomastikak eginez,  
haien inguru biltzen duelako orduko jakinduria guztia.

Sumerren *An* jainkoa dute beste jainko eta gizakien aitzat eta  
jainko bera aitortzen dute Urartun (Mesopotamia goiena), *Anum* de-  
ritzaiola Akaden, *Inu* Urartun eta *Eni* hurriten artean<sup>2</sup>. Jainko izen  
honen sorrera Urartuko ibai buruetan ala Sumer bokalean sortua  
zenetz jakitea ez da erraza, nahiz eta lehenengo jainko santutegiak  
ziur menditarrak izan. Dena den, herriok jainko beraren aitortze-  
nez, hizkuntza arautu asmo bereko ziran hasieratik. Eufrates (Iba-  
rrate) zan herrion arteko ibar ate beheinena eta Tigris (Ategarai)  
garaiko atea, biak ere itxaso bokale banakoak orduan. *Inu* jainko  
berau dager euskararen ohizko *ino* eta *aieneetan*, urteroko *Onon-*  
*zaro* eta *Inote* errito eta *inoetan* bezala (Ikus 1<sup>o</sup> laburgoan)

2 LEBRUN, R. "URARTU (religión de)", DR., o.c., p. 1794

M. Müller erlijio gonbaratuen azterlariak zera dino hizkuntzez, herriek euren jainkoekin harremateko erabili zituzten mintzairak direla, eta, beraz, hein batean, jainko berbera duten herriek hizkuntza beretsuko ematen dira. Sumeriar gramatika arauak<sup>3</sup> ikusi eta euskal gramatikarenarekin gonbaratzea baino ez dago, antzera handikoak bai-dira biak ere, hasieratiko hizkuntza asmo bere-suaren arrasto zurrak direla.

Jainko arketipoen artean sartzen da *An* familiko agertzen den *Utu iduzkia* eta *Ra iruzkia*, berriz, Egiptoko jainko sortzailea da eta *Ilu* Ugariten aipatzen den “urte askotako Aita”.

### 1.3.1. *An nazako izenak*

*An/Anu/Inu/Eni* arketipoaren *heinera* eman ziran lehen onomastikak Sumer eta Urartu guztian. Bere *makoak munduan NONAHI*, egiten du *magala*, bere *heinera analogizatzen* direla haren *ume* diren *marrak, mugak, mendiak, munoak, uinak, madurak. Mendi-munoak Anu* jainkoaren santutegi dira, haietan *iminten* bai-du bere *oina* eta *handik mezutzen* eta *manatzen*. Bere *omena* daramate *Ainamendi/Ainomendi, Unamuno, Muniain*, etab. *Uneak* eta *mendeak NON* han bere *neurrira antzezten* dira. *NOIZ* egiturak ere *antxinatik* eta *hona*, bereak ditu *hain enegutzeko* diren *aintziak, mementoak* eta *mendeak*. (Ikus 3°,4° laburgoan)

*Anuren emazte, Antu amari, Anuren omena* dagokio eta jainko *Anuren aduen=me<sup>(s)</sup> manuko* da, bere *narotasunak mugi* eta *mantentzen* bai-du *Anuren naza, amaren magalak umeak umotzean* bai-dizkio eta *amaren mainak Anuren mentua mendu* eta *mardotzen*. *Amaren manua* eta *mandatua* aditzotan dager: *antu, ampatsu, amatu, maitatu, amonatu, amorratu, nahi, nahitu, handitu, inutu, manatu, amainatu, mendu, emendatu, mintsatu, mindu, amaitu, amatau*, etab. *Anuren meneko* dira, *amarenekoak haina, une, ume, nini, ñeni, anae, aina, neba, neska, mutil, mirabe*, etab.

*Ume* bakoitza izenez deitzen da: *Ane, Ania, Aniana, Naira, Nora, Maite, Mari, Nuria, Enio, Andu, Munio*, etab., *NOR* zein den jaki-

3 BERGMANN, E., “SUMERI”, Enciclopedia Cattolica, Ed. C. Vaticano (1953) p. 1503.

## 1° laburgoa: OIHUZKO DEIAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
ene/en	otoi	ara/ario	el/ely	ka/quia	bea/vaya	txist/chitón
enei	ut/ux/tira	ra/rau	olé/ióle	gel/gora	but/vae <sup>(1)</sup>	jau/zaust
iñó	txut/ixo	arrano	(h)il	akó/gero	ave/afa	ixi/atx
oino	et/eit/atx	arraio	ola/alló	ecco/coño	ba/bua	chao
añó	uju/ujui	rayos	ala(h)	agur	eup/vah	xapi/zape
ainü	otian/utinam	aro/urra	elas/alto	kaixo	hip <sup>(1)</sup>	asa/ajai
aan	zutaida/tus	arre/aira	ale/ela	kontuz	kontuz	esti/este
amen	úxala/ostera	arren	alajina	agian	balinba	ezbe

Ohar: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagertz

teko. Norbere pertsona *Anu* jainkoaren *un* eta *muineko* aitortzen du bakoitzak: *ni, eni, mi, me*, etab. (Ikus NOR egiturak 2° laburgoan), *nazaz* haren *endako* eta *musuan* ere haren *antz* baileroan. *Inu Inko* Jaunaren *antza* duten *ume* eta *ainaninoek* haren *aintza antxi-ansia* dute *muinean*. *Inu* inotzeko edo *eneatzeko ino* eta *aieneak* ikasten dira: *ene!, ino!*, etab. (Ikus 1° laburgoan) *Anuren mentua*, *mihina* eta *mintzoa inutzeko* izen eta adizkera bereziak *antzeratzen* dira. (Ikus 8°, 9°, 10° laburgoetan) ZER bakoitzak, *Inuk ina* den *heinean*, haren izena hartzen du, *izena/izana* denez gero. (Ikus aberedi, landarediaren izenak 5°, 6° laburgoan) NOR-NOLAKO daitelakoa iturri berak *amoremanda*, *antzezten* da. (Ikus 7° laburgoan)

### 1.3.2. Utu eduko izenak

*Uturen edukoak* dira *Odei*, *Ostots*, *Ostarku* eta eurokandiko *ud*, *eudi*, *diztira*, *txispa*, *su*, *trumoi* eta euren arteko *tulubia* eta *ate-riak*, *uden uxuria* horetik, *uiholen turrusta*, *ostaku oditik*.

*Utu ate>atx/aitz tartetik* itoitzen da, hagatik bere *ataria>terra<sup>(1)</sup>* da eta *athela>tellus<sup>(1)</sup>*. *Utuk ate*, *atari* eta *tontor* asko ditu bere *atera-otsiak ostentzeko*, *toilu>txulo>zuloak itzuriteko*, *edo itso-so-sinak itotzeko*. (Ikus irudian, or. 18) Hala *Otamendi*, *Otoiomendi*, *Itxumendi*, *Udalaitz*, *Otamuno/Munita*, etab. *Tokiok eiteen* eta *otoien itua* ziran. (Ikus bere konposagaiak 6° laburgoan) *Uturen ituko* dira *udalen* eta *udazkena*. (Ikus *Uturen denbora* 4° laburgoan)



An sendia: (ezkerretik eskumara) *An, Enki, Utu, Inana, Enlil*. Anek Enki, ud gozoen *antolatzailea*, bidaltzen du lurrera, honi sorbaldatik erreka bi darizkio, Eufrates eta Tigris, amorrainsu. *Utu=iduzkia* mendi *tartetik ateratzen* da, haren berotan *Inana*, maite jainkosak frutaki mordoia *soldutzen* du. *Enlil*, mako eta gezidun, gizakien *adu*-erabagile da. *Uturen adore* eta *joritasunaren uduriko uddu.ha<sup>(9)</sup>=idia=toro* da eta *uzu iduzki goi-bideen=odos<sup>(9)</sup>* eta *udden* gaineko Jainko espirituaren *iduria* rabinoen eskolan. Cf. *usu/uso* Biblian ere agertzen den iduri ezaguna (Mt 4,16). *Leoia Enlilen* lagun da eta honek atzizki daraman arketipoak osatzen du. (Seilu baten *iduria* (2.300 K.a), *Historia de las civilizaciones*, Vol.I, Larousse, 1996, p. 54)

*Utu dohantasun* eta *juzo doia*ren zuzia da, eta *deadoz deitzen* diona *duindu* eta *sorosten* du, hilobietako *Iduzki Saindu*ek *adierazten* dutenez. *Utuk udez joritzen* ditu *oroak/soloak* eta *suaz tuldu* eta *soldutzen uztak*, beragandik *udukitzen* bai-ditugu *dohaiak*.

*Aitari Uturen edua, adorea, zogia* eta *ospea* dagozkio, *ostopoak ozarki ostikatzeko*. *Ato, atso, aton, aitite, osaba, ttotto* ere *ostekoak* ditu. Holako izenez *deitzen* ziran: *Udo, Toda, Odile, Odon, Idoia, Usoa*, etab. Elkarrizketarako bigarren NOR *tto>txo, tú>tou>zu>su, tí, etab.* da. (Ikus NOR egiturak 2° laburgoan). *Uturi otoizteko oihuzkoak: otoi, otian, eit, uju*, etab. dira. (Ikus 1° laburgoan) *Ttottoen adimena, adikune-deikuneak zolitzeko*, haren *eduko hitzak ideiatzen* dira. (Ikus 8°,9°,10° laburgoetan eta NOLA deitzekoak 7° laburgoan)

*Uturen edukoak tematiak* ere badira, *demarako* aditzak beregandik analogizatzen bai dira: *edatu, sortu, itxartu, atzarri, itoitu, atera, idegi, ixiotu, tolau, etorri, itzuli, jo, jun, joan, otsi, atotsi, atatu,*

## 2° laburgoa: NOR IZENORDEAK ARKETIPOZ ARKETIPO ANALOGIZATUAK

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	AX
en/ni/no	tu'tou	er'ar	auli/lui	ba'hako	ego'eketa	txe'je
mi/me	ttó/txo	eurak	le'la/eli	beste	gu'kau	txeia'/che
nor'inor	ti'zu	ura	ille'él	bat	qui'quién	zein
eni/mihi	tui'tibi	ari	lo'los	vobis	cui'cuyo	sibi'si
nos/noster	ode'zoin	ori	allelon	vos'vester	gure/ekeien	sfeis/sfon
nemo	deus	urlia	alter	hic'hoc	ekeinos	se'ses
neure	su/zure	euren	illius	berendia	kori'que	ése'éste
mengano	zutano	urlain	alako'algo	quaedam	fulano	sandia
nada	uts/todo	rien	ulain	pan	cosa	zer
aina	autos'tal	eren	alguien	bera	aquel	zerbait

Ohar: euskara, latina, grekoa, alemana eta erromanikarrak altxor beretik uztiatzen dira.

*sartu, zulatu, zuntzi, zipertu, dzangatu, ito/itto, ostu, ostendu, utzi, itxi, itzali, iduli, itxangi, etab., guzti hori egiten bai-du Utu iduzkiak.*

*Aideko, urpeko eta lurpeko nahiz kobatako abere askok ere bere eduko dira. (Ikus aberedi, landarediaren edua 5°,6° laburgoetan)*

### 1.3.3. Ra ereduko izenak

Arketipo bakoitzeko izendegiak sinonimia asko sortu ditu, nahiz arketipo bakoitza arlo bereziari dagokion. Hala ere, Utu eta Ra sinbolo ber-bera izanik, ots ezberdinak dira eta sinonimiarako inobre prestatzen dira: soro/oru, ud/ur, dundu/urdin, iduri/irudi, atera/urten, sustrai/arroin, uztai/arku, tuldu/erre, otsi/ortzi, etab.

*Ra argiak, erkingutik hara arraunketan iragoten ditu ortziko urak, oreietan zehar orbian, edo aireko ertzak orubeko ordekakoekin urbilduz eta eremuak, organ errodatuz, iraulkan, arantara arintzen eta errekan erortzen, arruak urratzen eta arroileko irris-tuetan arrotatzen dela. Ra ereduak bere santutegien arrastoa utzi du Armendi, Erremendi, Orzomendi, Armina/Miner bezalako izen-tan eta bere arraka konposagaien deskribapenean. (Ikus 3° laburgoan)*

*Orzantzean, argia urratzean, urten ordua iragarten du eta arratzean, ortzitzeko orena, Oronzarotik eta aurrera, urtean zehar, bere errainuak ereti-ergaien orratz direla eta Ra jainkoa-ren heren ertaldiko haurra: Horus Haurra, Horus Ertaina eta*

## 3° laburgoa : TOKIZENAK DESKRIBATZEKO KONPOSAGIAK

ANU	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
une,on,uin	ota,/oxa,/oya	ara,/era	loi /loizu/luze	ibai/ibi/vi/be	goi/goiti/guen	esi,/es
ana,an	ate,/atx,/ax	arru /ru	laun /llano	ibar /val	gane /gibel	zelai
ain,in	zu,/so,/sub	aran,/arain	larre,/lur	ber/vera/buru	kana,/gain	zehir /zier
naba,/mun	terra,/derry	erri,/eria	leze /losa	barru /barren	kaba,/cave	sakane
ante,/and	zuma,/sumo	riva,/rio	landa,/land	barri,/berry,/feria	kara'/gara'/garai	sare,/sarre
aind,/amil	tras	ur /aurre	alto /alda	beiti /bajo	colle /gaila	zabale
ondo,/inda	oste,/usta	arte /arda	leku,/loc	boste /post	guen /guren	senda /zena
mendi,/monte	otero	oru /orbe	lats	bide /vado	coto /cota	sar /sarria
marra,/mar	atari,/atar	urte /urda	albo /alba	barrio	kata /gotor	sarale,/sel
mus,/motx	solo /sola	arru /roca	loma /lama	portu /puerta	garra /guerra	exitu /ejido
muru,/mira	soro,/sora	errota,/rota	loizun,/lizun	hortu/huerta	campo	estu /seto
mallo,/mala	zulo,/zilo	arru /ru	alde /aldea	barruti,/prado	ekur /gorta	eskuri,/segura
meta,/malda	zubi,/sub	erial /real	elge /elkor	baso /paso	koro /gorri	saroi
mortu	soto	eremu	legar /lugar	barda,/verde	karkaba	zelai

Horus *Erraldoia*<sup>3</sup> haurren bizitzako urte haroen *eredu* egiten da. (Ikus *eretiak* 4° laburgoan)

Haur eta *arriben eritziak*: *Aroa, Oria, Rea, Arrio, Urso, Urko, Erina*, etab. ziran. NOR egituretan *heren* pertsonaren *eredu* da: *er, era, eurak, hura*, eta *hori, harako* adieraztekoetan. (Ikus 2° laburgoan). Haurren *oroimena, irudimena* eta *eretzia argitzeko* haren *era* eta *ereduko* berbak *aurreratzen* dira. (Ikus 8°, 9°, 10° laburgoetan)

*Uriak* bere *irudira hormaz uritu*>*hortu* edo *hurbildu* egiten dira *oru hortuaren eratar*a. *Erraren erraiak erein irritsuak* eta *ar* eta *urruaren eredu* dira, *haur, arreba, errain* eta *arbasoak*; *herria* bere *arduraz* eta *erresaz eratu*ko duen *eroskundearen irrikaz* da, *hilerriko harrigizonek erakusten* duten *arauz*. Berari egin oihuzko *arren* eta *orho/orro* edo *orazione* laburretan, *arraie, ara, urra*, etab. *aurkitzen* ditugu (Ikus 1° laburgoan, NOLA deitzeakoak 7°an)

*Orzantzetik arratzera, Erraren arrandiari* egozten zaizkio: *arre, urt, urten, ortu*<sup>0</sup>, *erten, arintu, arraunatu, arribatu, erdu, ire*<sup>0</sup> *ruo*<sup>0</sup>, *rolar, arretu, areatu, harrotu, erori, ertu, ortzi, ertzi, hartu, arrakalatu, irauldu, erio, eriotu, arrobatu, harrapatu, iraungi*, etab. *arteziadun ariketa* bai-daroa *eroan, arte* gabe. (Ikus *abere, landaretzako izendegia* 5°, 6°, *eskemetan* eta *NOLAKO egiturak* 7° laburgoan)



## 4° laburgoa: ALDI IZENEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

ANU	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
une/mende	eita/et	aro/ergai	aldi	gau	beta/beza	aste/azaro
memento	tiempo	ereti/rato	lipar	gizi	haita	sekulo
mañana	tarde	orzantz/aurora	alba	goiza	abuen	sasoin/sazón
noche	adin/edad	arratz	iluntzi	kairos/garai	epe/plazo	asti/aspaldi
mes/negu	udaberri	ordu	luna	egun	verano	estío
aintze	uda/otoño	oren	lapso	ocasión	hora	semana
año	aterri/día	arte/urte	ile	ekain	abagune	azaga

1.3.4. *Ilu leinuko izenak*

*Ilu* arketipoak ere, *labur ala luze*, bere *lekua* du *aldien* eta *alde-alboen lerroan*. Goietan *laino lir'lartsu*, behean *latx* edo *laku*, *lekorean lehi*, *ilargian litz* eta *lehotzean ilunbe*, *ilundian erabat lekuko lehio* eta *lama lekutua* delarik. Berak *lerrokatzen* ditu atzizkiz *ileen* izenak ere.

*Aldien luzaroa lehendik hona ilumini luzatzen* du eta *Olentzaroz albiste berria lagatzen* digu. (Ikus *aldien* izenak 4° laburgoan)

*Larre laun/leun*, *landen* eta *labarren* eta *lanbarri/lantzarren lan* ga da, *lekore>legor>lehor* dator, *lor/lur*, eta *loi*, *lokatz*, *lingirda labanen lixiba* ere ba dager. Santutegiak izan ditu *Elamendi/Mendel*, *Olamendi/Mendiola*, *Lunomendi*, edo *Olamunia* bezalako lekuetan. (Ikus *komposagaien* deskribapenerako egiturak 3° laburgoan)

*El/Al ahaltsuari laudak* eta *olesak* egiten zaizkio *alaitasun aldian* eta *alamendu alatsuak* eta *elitoak elekatu Iluri ahulduran* eta *uluak hiletetako hildura larrian*. (Ikus 1° laburgoan)

*Iluren leinuko* dator *alaba* izena euskal sendian eta NOR izenak: *Lia*, *Ilia*, *Eloi*, *Laila*, *Leire*, *Laura*, *Lore*, *Elen*, etab. Latin-erromantzetan berere, hirugarren pertsonako izenordekoa egiten du: *auli*, *ille*, *illu*<sup>(9)</sup>, *la*, *lo*, *lui*, *ulain*, etab. (Ikus 1° laburgoan) Umeen *ulermena*, zentzuna eta *elairea lortzeko ele* bereziak asmatzen dira. (Ikus 8°, 9°, 10°, *laburgoetan* eta *NOLA* deitzeak 7° laburgoan) NOR egituran *lez*, zenbait *lekutan* Erra ereduaren *lehiakide* da, hala *uri/uli*, *iri/ili*, *oro/olo*<sup>(9)</sup>, *rayo/leinuru*, *arrai/alai*, *irargi/ilargi*, *erdu/eldu*, *arlo/alor*, *herri/aldea*, etab. jainko nausi ezbardineko kultura biren tirabira seinale.

(Ikus *aberedi* eta *landaredi* esparruetako bere izendegia, 5°, 6° laburgoetan, eta *adjetiboak* 7° laburgoan)

#### 1.4. Giza arketipoak jakinduria berriaren lekuko

Izadi orokorraren arloak eta aldiak jainko arketipoez izendatzen dira eta haietan gizakiei dagozkien parte xedatuak, giza arketipoez. Horretan datza jakinduria zaharraren eta jakinduria berriaren arteko aldea, batak izadia, besteak gizartea bilatzen dutela. Hori halatan gerta baledi, gizakiak hizkuntza bere kiza gertatu zuelako seinalea izango litzateke, aldian aldiko argitasunak eragiten ziola.

Jainko arketipoak maila berekoak izanik, hizkuntzaren egiturak sinonimia larregiz zurruntzeko arriskua zuten eta halatsu izan zitezken protohizkuntzak, edukin ugariko monosilaboz beteak eta jainkozko arketipoen arteko ezkontza bakarrik egin zezaketela. Giza arketipoak gehituz, ordea, bestelaz ezin deituriko giza gai zabar eta baztertuak ere aipa zitezken jainkoen izena aipatu gabe eta, batez ere, goiko eta beheko kategorien arteko dialektika sortzen zuan, giza adimena eta hizkuntza bera biziki harrotzen zutela.

Giza arketipoak hitzaren aglutinaziorako apropoposak ziren eta jainkoekiko ezkontzan atzizki apalean lehenengo hasi zirenak, aurrizki jaurritzen ere ausartu zirenean, hitz ordezkarien batzarreko auzian gizakiak burua atera ahal izan zuan eta, mundua sortzeko gei izan zen jainkoen hitz ahalguztiduna, erritozko arteziaz baliatuz, beretzat eskuratu nahi izan zuan.

Giza konplexuaren arketipoak *ka*, *ba*, *akh*<sup>5</sup> izenekin agertzen dira egitieraz, *kù-g*, *bau*, *zi-d* sumerieraz<sup>6</sup>, *Ka*, *kaizu/kabia*, *Ba*, *ba*, *bada/baita/barne*, *As/ax/haize* bezala euskeraz. Lehenengo biak giza soina eta giza barnea ordezkatzan dute, hirugarrenak jainkoengandik erritoz lorturiko santutasun zehatza ordezkatzan du.

5 *Ka* soinkeraren ganora da, *Ba*, baita, *Ka* hilarren ere, bizirik gelditzen dena, *akh*, gizakia zeruko aintzaren duin egin d ezakena. (LÉVÉQUE, J. *Sabidurías del Antiguo Egipto*, DB, nº 10) Cf: “*Ene ba/ene bada!*”, oihuzko esakerak, egitierazko literturan ere agertzen dira: “Si mi *ba* me escucha=Ene *bak* entzuten badit (...) Ene *ba*, bizitzako beharrak baretzeko ezindua...” (*El diálogo desesperado con su ba*, DB, nº 26, 39;15-20)

6 *Kù-g*, duintasun arrunta, *zi-d*, jainkoengandik erritoz lorturiko santutasun zehatza. (RIES, J. “SAGRADO -2 La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilonio, DR, o.c., p. 1577-1578)

## 5° laburgoa: ABEREDI IZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
aine'auntz	uddi'idi	ar'ari'iri	ele, oilo	kui'gallo	ave'pollo	txarri
âne'mia	uzu'uso	uro'urso	uli'euli,	katu/gato,	behi'vaca-	sarrio
ñu'ñandú	toro'axuri	ora'ardi	elae'labi	conejo	bos'buey	txahal
ainara	otso'tsobu	arre'i'ariel	león'likos	ganso	betizu	txahal
ánade	zorro'ozar	arr'ano,	lupu'lobo	gallina	buc'oveja	cheval
antzar	azagari	erbi'orein	luki'alce	carabao	brevis	cerdo
miru'emú	oso'txori	irondelle	alano	ganado	abelgorri	cerda
malviz	txorru	arrendajo	alazán	giberri	abele'biga	chevre
mika'mirto	txonta	urretxindor	elefante	corzo	bestia	asno'
amulo	durdura	erresimula,	lemur	cordero	aper'verres	asto
onagro	tordo'zozo	ureus'orix	leopardo	gorrino	verraco	txekor
moxal	zurita,	orkatz	lince	car'nero	becerro	txakur
moloso	torcaz	rebeco	liebre'	cabra	búfalo	seter
mastín	udo'tejón	artza'ursu	lapin'lirón	gamo	burro	zaldi
nútria	topo'suge	urde'rayó	loro'lasun	aeques	perro	acémila
murena	turón	n urruxa	lagarto	camello	basurde	jamelgo
morsa	ziraun	ordotx'reno	lucio,	caballo	basabehi	escarabajo
mierle'musa	durdo, ata	urón'urxa-	lixa'loina	gamón	bucardo	
andeja,	dorada	ardilla,	lombritz	can'katu	pato'pavo	
angila	tonino	ratón	eltxo'listor	columba	paloma	
mero	atun	arrain'urta	alimaña	cor'neja	pájaro	

Ohar: Abereen bezaketa astiro osatuz joan zan. Abere uzuak jainko arketipoz izendatzen dira, abere bezatuak giza arketipoz. Ikustekoak dira bata bestearen eratorri: *ar/aper/capra, ele/abele/txaal, amulo/kamehu, oilo/pollo, ardi/bucardo, ata/pa*

## 1.4.1 Ka gidako izenak

Ki<sup>(s)</sup> "lur" dela, *egi* dager zero eta lurraren arteko *egia*, inoiz *Eki* "eguzki" eta *Ekain* eta *Egu* "eguzki" *Eguen* izatera jaso eta *egun* gelditu dena, *egunak* gizi baten *igesi* doazela esateko. Hitz zaharrei aurrea hartuaz, hitza gizatu egiten da ugari: *une/gune, aro/kai-rou<sup>(g)</sup>=garai, oru/ekur<sup>(s)</sup>=koro, loria/gloria, ume/kume, ona/kona, ari/ugari, anoi/geinhü, iza/giza, in/egin, ortzi/egortzi, etab.*

*Gizakiak bere kisako du egoitza, ekua<sup>(s)</sup>>oikou<sup>(g)</sup>* duela aurretiko. *Egoitzean ekuru egonez* eta *lur gogorra ekotuz, ekoizle egokitzen* du eta, *ekosariari eguriki, ekuritu egiten* da eta *ekun egiten* du. Jainkoen arlotik ibarrera, *gizalanak ordezkutzen* dio artzaintzari, *ugazabak unaiari*, eta *giza arketipoak jainko arketipoari*.

An/kana>gana, haina/gaina, goi+ena>guena>kina>kin, gaindi-

tzen da, ota>kota, goiti>gotxi, goititzen, ara>kara>gara, garai>gari garatzen eta ili>gailu, kale, gaila, colle>col gailentzen. (Ikus tokizenen dekrribapenetako konposagaiak 3° laburgoan) Bere ganorako *Ka gurtu* zuan *Ekurmendi, Egomendi, Egimendi, Garamendi, Mendiko, Kalamendi, Kanamendi*, etab. santutegietan.

NOR *Ka* arketipoaren *ganoraz agertzen* da, *gu, ego*<sup>(l)</sup>, *eketa, ekeinos*<sup>(w)</sup>, etab. *egituretan*. (Ikus 2° laburgoan) NOR izen propioetan atzizki: *Eneko>Inigo, Nagore* edo aurrizki: *Koro, Akaitz, Gisel, Ugutz, Graxina*, etab. *Gazteen gurbiltasuna gaztigatzeko, ogartzen, ikuspegi ta agozkatzekoak gidatzen* ditu. (Ikus 8°, 9°, 10°, laburgoetan) *Giza korpitza, kaizu* eta *gizen* bere *gidako* izenez *ugaritzen* du: *uko, ukondo, gara, kasku, gihar, gizen, kokotz, gibel, giltzurri*n, etab.

Etxeko *gubernua* eta umeak *gose-egarririk* izan ez dezaten, *geinhatzea gurasoei egokitzen* zaie (inutzea Inuri bezala), *ugazaba/ugazamei* etxeko *agintea, gehien* bat amaren manuko izatetik *gizabideko agintera* datorrela, euskarako *egituren gardiz*.

*Ka gida kisako otoi gedarrik* ez dago, baina bai *gertu kideen* arteko *kaixo-agurrak*. (Ikus 1° laburgoan) Bere *ekoizpeneko giberrri* eta *abel-gorriak*, *barazki* eta *landareak* bere arketipoz *kudeatzen* ditu, (Ikus 5°, 6° laburgortan), NOLA *egitura* bezala. (Ikus 7° laburgoa)

#### 1.4.2. Ba bezako izenak

Ra goiko uretatik arkan bezala, *Ba behetik, ibaiko barkan* edo *ibitiki, ibiliz* dabil *bizitza bidean*. *Ba bidazti* da, *unea abaune bihurtu* zaio, *usa pausa, bukatzen epea*. (Ikus 4° laburgoan) *Batek, ibaiaren bidea barneratzen* du, *uren nondik norakoa bilatuz, patuari* ilhez egiteko. *Ba* hasiera baten atzizki aglutinatzen da: *An/Nabu*<sup>(bal)</sup>, *Utu/Su.ap*<sup>(s)</sup> “*sube kosmikoa*”, *aina/neba, oto/osaba, aita/izeba, Ilu/loba, Ala/alaba* eta *geroagò aurrizki* doa: *An/van*<sup>(al)</sup> “*Anen seme*”, *Utu/Apsu*<sup>(a)</sup>=*botxo>pötzu (puto/a)* “*Uturen seme*”, *Ra/bar*<sup>(ava)</sup>, *Girra, Farau*<sup>(v)</sup> “*Raren seme*” eta *Ilu/biloi* “*Iluren seme*”, *El/Beel* “*jaun*”. Jainkoen beste sorkariak ezagun dira *Otxin/potxin, Adu/patu, Adar/padar, Ur/Ubur*<sup>(s)</sup>=*Iburni*, etab. Handik izen arruntetara analogizatzen da: *ara/bara>bahar*<sup>(av)</sup>=*ibar*, *ano/vinu*<sup>(l)</sup>, *anoi/penu/fenu*<sup>(l)</sup>, *ala/bala, erdu/verter, aratz/baratz, aro/abaro, orue/borea*,

## 6° laburgoa; ZER: LANDAREDI IZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
ametz	zotz'txotx	ari	olo'lino'lio	gari/col	clavel	baraxuri
makal	zurgai	arte'arce	olibo	ocal	vid'biku	esi
madroño	zuhaitz	aretze'erez	ler	iko'kurkux	ficu'pera	seto
manzano	tantai'tilo,	areki'	lertxun	okaran	banana,	aza
makatz	ote'toxo	árbol erei-	alerce	grosella	plátano	acelga
madari	toronja	notz	lizar	kereixa	palmera	azafrán
mizpira	durazno,	ur'etx	aliso	kereixa	palmera	azafrán
enebro	dulunia	ur'ki'orre	álamo	gerezi	abedul	azaite
membrillo	tamar	romero	laranxa	gurbitz	burki	azenario,
melón	tappuah	uraza'	limón	calabaza	avellano	zanahoria
mahats	tassur	oroldi	almendro	kardu	borraja	escarola
anda'inar	udare	retama	albéchigo	kandeal	barazki,	escanda
mihimen	asun	erroi'	legumbre	candeal	barazki,	escanda
musgo	zurzuri	arrega	lekadun	grelo	berza'berro	sémola
amelo	zubil'tejo	arándano	alubia	canela	puerro	espinaca
eneldo	tronco	orange	lenteja	garbantzu,	hortiga	saxar
menda	zuz'a'ziza,	arto'arbi	lechuga	gaztaina	finochio	txermen
malva	tulipa	rábano	alga	gorosti	pomelo	txerpi
matricaria	chirivita	arveja	lore	gorosti	pomelo	txerpi
mereilu	tipula	arroz	aulaga	coton	pepino	ezki
		orburu	líquen	koats	vaina'piper	acebo
		artichut	alfalfa	camelia	pimenta	estopa
		repollo	lirio'loto	camelia	pimenta	estopa
		erruda	alhelí	kipula	perrexil	acerolo

Ohar: *Uzta/kosta* datorren bezala, *ari/gari*, *aran/okaran*, *menta/pimenta*, *erro/porru*, *arol/eskarola*, *urki/bur'ki*, *uraza/borraja*, etab. datoz, gizalanak gizatu *ekoistea*>*cosecha* eta haren *kosta/coste* adierazten du hitzaren azalpenaz *atalas/plateia*<sup>(9)</sup>>*plaza*, *uts/putz*, *urt/port*, *oste/post*<sup>(1)</sup>, *ostiu/posta/**puesto*, *uri/burü*>*buru*, *ili/vila*, \**ilitu/bildu*, etab.

Bere santutegiak: *Belamendi/Montevalle*, *Ibamendi*, *Basamendi/**Monpas*, *Mendibe/Pimenta*, *Munibe/Ibamuno*, etab.

*Ba* *Ka* baitan<sup>7</sup> edo *barnean* bizi da, *Ka* *beheratzean*, hataz *gabezen* dela, *Ba* *berak* penatzen du haren *beherapena*, haren *behena* beretzat *benazko* pena dela, *Ka* *bake*>*bage* dagoelako.

*NOR* adierazle ditu *bat*, *batzu*, *bera*, *banek*, eta zenbakitan *bi*, *bost*, *bederatzi* (Ikus 2° laburgoan). Giza soinak *Ba* *bezako* *berbaz* *bazkatzen* da: *bihotz*, *birri*, *bare*, *begi*, *belarri*, *buru*, *abo*, *bizar*, etab. *Barro* egiteko *barrauke*, *barrio*, *barruti*, *barreneko*, etab. *berdintzeko* ere ba da, hatarako *barro*=*basaz* edo *buztinaz* eginda

7 Baita=*bit*<sup>(s)</sup>=*bet*<sup>(h)</sup> "etxe" esatera dator analogiaz.

ko barreño, pitxar, baso, pertza, bonbil, bote, abortza, etab. Batek bezaturiko abere eta landaretzaren izenak ikus 5°, 6° laburgoetan, NOLA egiturakoak, 7° laburgoan.

### 1.4.3. Ax xedeko izenak

As/Ax xedeak aurrizkiz, erritozko santutasuna gehitzen die lehengo hitzei: ekua<sup>(s)</sup>/esku, ekur<sup>(s)</sup>/eskuri=seguru>zigur, ekuritu/zikurat<sup>(s6)</sup>. Zikurat dorreko edo xainko-etxeei Esagila<sup>(s)</sup> "etxe gaila" eta Sakara "etxa gara" zeritzaien. Harutz joian sentoraleko edo sendabideko senda edo santutegiko "Vía sacra". Santutegiko erritokak, eztituaz bezala, santu izate zehatzaz txertatzen zituan fede berrian hasiak, Inko>Xainko edo Enki>Xekina<sup>(ara)</sup> Jainkoaren ikono aurrean exeri edo xaiki, eskuartzeko eskubidez. Horri esan zioten hizkuntza askotan iza(n)=esse<sup>(l)</sup>=essere<sup>(it)</sup>=ser=eismi<sup>(g)</sup>, zi-d<sup>(s)</sup> "santu izate zehatz", as "bizi arnase" edo behin-behineko esia eta exe<sup>(ga)</sup>=ardatza.

"Esi"-tik exe/etxe, esitu>exido/sitio, eta eza/etza/etzaleku, etzela, etxadi, zelaru, sala, escalera, eskantzu, sabai/sapai, eskaratz, eskepe, izkina=skena<sup>(g)</sup>, saltai, esola, txabola, sjole<sup>(g)</sup>=schola<sup>(l)</sup>=eskola, zatiak edo egiturak dauzka aldamenean. Etxekoak etxe, etxakona/ezaguna esaten hasi ziran eta sendi berrikoei sein, seme, seña, sene<sup>(l)</sup>, xaun, señor. Etxekoen izen bereziak: Xena, Xesu, Jesus, Sara, Jairo, etab. eta je<sup>(l)</sup>, se izenlagun bezala.

Ax arketipoak jainko zaharren ereduko izen eta hitzak xedatzen ditu: Anu/Xaun>jau, Eni/jein, An/Shan<sup>(u)</sup>, Inu/Jeinu, Utu/she-du<sup>(s)</sup>>Xesu, ele/sail, ara/txara>jara, aroi/saroi, barru/esparru, Antu/santu, anotu/sanotu, aran/saran, arpe/sarabe, arru/zerro, Inko/Xainko, Ande/Sanda, inda/sendia, enda/jende, inutu/jeinutu, hainbat/zeinbat, atz/zehatz, harri/ezarri/jarri, aurri/jaurri, eritsi/jauretsi, etab. Bere etxeko jainkoei eskeini santutegiak ditu Etxamendi, Esmendi, Semendia, Mendes, Mendexa, etab. izenekoak.

Etxeak berak zaindu-abereak edo txertatu-barazki-landaretza bere seinaleaz sailkatzen ditu, (Ikus 5°, 6° laburgoetan) eta esleitatsun kalitatea eskeintzen die. (Ikus 7° laburgoan)

7<sup>o</sup> laburgoa: IZENLAGUNEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
on/único	done/duin	arin	aliym/alén	gartzu/feroz	behe/bon	xain/txau
antu/ancho	total/sonto	orokor	altsu/lar	guen/grande	bortitz/fuerte	sano/santu
andi/magno	itzal/suhar	arro/robusto	luze/laso	gazte	bigun/flaco	azkar/astun
mana/manso	otsan/dulce	arisco	lene/latz	gozo/garratz	apal/humilde	eztí/áspero
maratz	usu/justo	aratz	loi/limpio	guri/gordo	apain	zaindu
majo	eder/txukun	real	lúcido	garbi	bello/pulcro	sagaratu/sacro
mazal/makal	zuzen/justo	arrai	alai/lehial	garden	benazko	sanctu/saindu
miragarri	txundigarri	arrigarri	liluragarri	gurgarri	fascinante	jaso
mardo/margul	doatsu	eroso	lorios	grato	feliz/heureux	eskartsu
emky	zogi/sofios	argi	logios	gurbil	filósofo	sabio/jakin
antxina	atton/atso	urteide	old/longevo	agure/gaiso	viejo	zahar/txarma
mengel	donga	raka	alkeor/low	gaizto/kakos	basa/bajo	azken/zantar
añil	dundu/itz/azul	urdir/uar	laban	cárdeno	blanco/white	yereq
negro	adom	arre/orlegi	lurk	gris	uber/baltz/pálido	sepia
amarillo	dusk/oscuro	ori/rubu/rojo	laru	gorri	beilegi/verde	yellow

## ONDORENA

Izendegia aztertuz, sinonimoak erruz idoro ditugu. Sinonimook hitza arketipo askoren iturritiko analogizazioak direla esaten digu. Neolitos hasieran herriek hizkuntza egitura berdintsua izanarren, tenplo eskola bakoitzak bere jainkoaren izena bultzatu nahi izan zuan, hitz beheinenak hagandik analogizatur, baina jainko arketipo bakoitzaren nortasuna errespetatur.

Jakinduria zaharra Jainko izen monosilaboei lotua ikusten dugu eta, protohizkuntzen arabera, lehenengo aglutinazioak euren artean egiten zituztela. Izadiarekiko loturan sortu zen hizkuntza horrek gizarteko eskakizun askori ez zion biderik ematen eta gizakiak jainkoen auzian eskuartzea erabagi zuan, bere ordezkariak bidalduz.

Gizakia gizarteko arazoaz arduratu zan eta berak bizi zuan hurbi-leko une eta mendeaz jabetu eta bere eskarmeduen eskola egin zuan, hitzaz baihesten zituela kulturaren hurratz berriak. Gizakia jainkoek jakinduriaz jantzi zutela konturatu zan, eta burujabe zenez gero, bere ekintzen arduradun agertu zan.

Jainko hitz ahalguztidunaren aurrizki bere *ka-* hilkorra *garatu* zuan, hitzaren arteziak hilezkortasuna *ekar* zezaiokelakotan, baina herio zigorra ezin *ekidinez*, *kale* egin zuenean, jainkoen *kontrako*

*ogena* izan zela *konturatu* bide zan: *gailendu* izan nahi eta *galena* lortu bai-zuan<sup>9</sup>, *gale* izan ta *kale* egin, *gnostikoek* ere *gizakiaren Ka*, *ganorari egozten* bai-diote *akatsa* eta *gainaninazko ogena*<sup>10</sup>.

Gizakiak orduan, norbere *penari* espena eritziz, *ba apaltasun bidea*, *ibaiaren bidea barrundatu* zuan jainkoen *pasaia-barkua* eta eurekanako *beharra fedez bilatuz*.

Bide honetan *jainkoen jaurespeneko* erritoan *eskuartzen* dute *as/ax* arnas berri eta *santutasun zehatz* bizigarria. Izan ere, aita bitxiaren ahotiko *as* hori *asperatuz hasten* du *seinak salbamen senda ziurra*, *as/hasi*, *izen/izan* hizkuntara, *izena ezarteko* erritoan.

Giza arketipoek giza ogenen ordezeko penaren eta salbabideko mitoen lekuko dira: erlijioen mitoek hitzez eta idazkietan kontatzen dutena bera adierazten bai-digute hizkuntzaren egiturek, euskararen jakinduriak bereziki.

Ulertuek hiru epetan banatzen dute jakinduria hazkundera: izadikoa, gizarteko eta jainkotiarra, azken honek beste bien alkartea bilatzen duela. Antxinako Sortalde Hurbileko herri askok idazkiz eman zuten euren jakinduria eta desagertu egin ziran kontuizu. Euskarak ahozko bere egituretan gordetzen du eta bizi da, askoren egarria iturritik edarazteko eratan.

9 *Enuma elish*, I, 158; IV, 82; III,37-50

10 (RIES, J., "GNOSTICISMO (las investigaciones sobre el)." DR, o.c., p. 685-692. Cf: SEVRIN J.M. "PLEROMA", ibi., p. 1416

### Arketipoen bilbatzea hitzaren josturan

	aN	uTu	Ra	iLu
Ka				
Ba				
aX				

Ehunduran bilbea bezalako arteziaz lotzen dira berbean hizkuntzako arketipoak: goitik behera, jainkozko arketipoak, izadiko jakinduriaren argi eta zeharretik zeharrera, giza arketipoak, gizarteko jakinduriaren lekuko. Ehuna ikusita, "eulea bilbetik gertu dabil" esan zezaken egitiar jakinduriak



## II. HITZAREN ANTOLAPENA

Hitz zerrenden berbaroan galdu egin zeiteken giza ulerbidea, bata besteenganako soinua eta baloreak aztertuz, mokau errazeko hizkune bereziak antolatu izan ez balitu eta kideko hitzak elkarri begira jarri, euren arteko lotura erakutziz, entzun-oihuek ideei bide erraza egin zezaieten: familia batekoak bildu, ama-alaben antza ohartu, bata bestearenak aitortu, bata besteagandikoak, batak esanak bestea gogorazten duela, hitz biren arteko loturarik gabe. Ahozko hizkuntzak, buruzketa errazteko eta, akordatzeko kordak bezala, prestatu izan dituen behein-behineko onomastika zerrendak eta hizkune mokauak.

Izenen antolapen hau hizkuntza asmoaren hasieratik hasten da. Berarizko gauza da *Anu/ona* parekatzea, bata bestearenak diren, *on* kalitatea *Anuri* erantxikia zegoelako, edo *Inu/ino* elkarri atxikiak aipatzea, bada *inoa* "goralpena" (*Inotekoa*) *Inuri* zegokion. Hasierako hitz monosilaboa edukinez joria da hagatik: *une* tokiari eta aldiari begira, *un* sustantziari, *ano* jakiari, *uin* urari, *on* kalifikatzaileari, *aen*>*ain* konparaketari, *in* ekintzari, *ino* adierazpideari, *nai*>*nahi* bihozkerari, *ni/mi* izenlagunari, *una* adierazle, *unu*<sup>(1)</sup> zenbaki, *-en* NOREN kasua, etab. *Utu/otu* esatean, harekiko akordua dugu *ituan* eta *otoia* behingoa. Formula soilak direnarren, lotura sendoa egiten dute pedagogia mailan. *Utu* alofonoen soinura ere prestatzen da. *Utu/su* edo *itu/itxu*, beroaren edo argiaren eragina markatzen du. Batzuetan arketipoon mitologia ezagutu behar da *Ra/ar*, edo *Erra/ira* ulertu ahal izateko, eta berdin *Ilu/ahul* edo *hil* zergatik den parekide jakiteko. Ez dago, beraz, "Utu su da" edo "Erra arra da" esan beharrik, nahiko eta argiago da parekide biak elkarri begira jartzea, soinua entzunaz, nor zer den jakiteko.

Giza arketipoak, atzizki aurrizkien mailarako gehiago prestatzen dira, jainkoa eta gizakia aurrezka jartzen dituzte, goiaren eta beharen aldea ikusten, berezko santu izatea eta erritozko santu izate zehatza bereizten, eta dialektika bizia sortzen elkarren artean. *Utu+Ra* arketipoei *sur/zur* "usno/usmakari" izatea badagokie, parekide eta berezi dira erabat, baina *zur/zorga* esatean berezi ezeze, kontra jartzen dira, *-ka* giza arketipoari ezkor izatea bai-dagokio hitzaren konposi-

zioan. Orobat *antu* izan edo egotea *Antu* jainkosa amari badagokio eta *santu* izatea jainkoengandiko *eztituz* edo *txertuz* lortzen du giza-kiak, erritoren eragina hitzak ere arketipo egokiaz azaltzeraino. Hitz parekideen zerrenda honek azalduko digu, hitza zenbateraino dagoen behein-behinezko jakintzaren zerbitzuan eta giza arketipoak zenbateraino prestatzen diren jainko arketipoegazko eztabaidan.

### 2.1. An arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak

*An/Anu/Inu/Eni* formak ezagunak ditugu. Euren antzera asmatu-riko monosilabo guztiak urretik jarraitzen dute arketipoaren analogia, direla izen, izenlagun, izenorde, gonbaratzeko, aditz edo beste egitura, *une, on, hain, hein, in, nahi, non, ni, ene, eñe, ama=umma*<sup>(s)</sup>, *hume, aina, nini, eme, men, muin, min, anoi, anho, unai, etab.* Denak izango dute alde batetik edo betetik arketipoarekiko lotura, batzuetan logikoa, bestetan mitologikoa. *Anu*, jainko sortzaile denetik, *umeen un, on, anoi, ama, eñe* ere bada eta *niniak in* dituen gero, haien *ene, aiene* eta *inziniak entzun* behar ditu eta, *amak bezala, amainatu* edo, *unai nagusiak bezala, mainatu.*

Monosilaboetako hizkuneak batabesteagandik sortuak dira, soinu beretzuek lotzen ditu, *m/n/ñ* alofonoez eta zabaletik ezturako bokalismoaz serbitzatzen da. Bokalak, berere, arketipoagandik hartzen duen parte, txikia edo handia, esan nahi du: *Eni*<sup>(hur)</sup>/*ene/ni, Inu/hoin/ino, An/ama, ama/eme, aina/eñe, naia/nahi, Anu/anho, anhoi/annu*<sup>(1)</sup>, *umma*<sup>(s)</sup>/*hume/ine, Mami*<sup>(s)</sup>/*mami, etab.*

Hizkune aglutinadoetan ikusten da, hala ere, argiago jakinduriari begira dagoen hitzaren artezia. Adibidez: *Enki/emqu*<sup>(s)</sup>, *Inko/ungo, Maat*<sup>(e)</sup>/*maite, antz/aintza, man/maina, amon/mun, nomen/numen*<sup>(1)</sup>, *anze/anzi, mente/mende, mentu/mendu, amatu/amadu, amonatu/amonratu, amaitu/amatau, ainanino/inanne*<sup>(1)</sup> “de-abru/zoro”, *melek*<sup>(h)</sup>/*makila* “errege/aginte makila”, *iñozo*<sup>2</sup>/*inoxiu*<sup>(1)</sup>,

1 Urteko=*annu anhoa=anonna*<sup>(1)</sup>, *anunna*<sup>(s)</sup> “angeru” dino. Urteko *anhoa* Urteberriz eskatzen zitzaion *Anu/Antu*, jainko/jainkosa *inudeari*.

2 “En la literatura de sentencias es caso típico la equiparación “sabio/justo” y “necio/malvado”, que confiere una relación intrínseca a lo ético y sapiencial”. (MORLA, V., *Libros sapienciales y otros escritos*, o. c., p. 38.

8º laburgoa: ADIMEN HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARAUZ						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
<i>an*/onua</i>	<i>otu'aitu</i>	<i>aieri</i>	<i>lokatu</i>	<i>ikasi'kasa</i>	<i>epe'byn*</i>	<i>etsi'xede</i>
<i>annuere+</i>	<i>eita'ide,</i>	<i>reor+</i>	<i>ligar</i>	<i>igarri</i>	<i>bena</i>	<i>shama*</i>
<i>anze'antze</i>	<i>idea'adi</i>	<i>oro'oar</i>	<i>olde</i>	<i>capere+</i>	<i>aburu</i>	<i>sen'seny</i>
<i>antzi'emqy*</i>	<i>da'at*adin</i>	<i>urdu,</i>	<i>oldoztu</i>	<i>gogo'gardí</i>	<i>buru</i>	<i>jakin'scire+</i>
<i>ames'ametz</i>	<i>eido+sumo</i>	<i>erratu</i>	<i>ulertu</i>	<i>korde'cuerdo</i>	<i>barru</i>	<i>espen</i>
<i>nous/numen+</i>	<i>susmo'uste</i>	<i>oratu</i>	<i>olvidar</i>	<i>kordetu</i>	<i>bulko</i>	<i>asmo</i>
<i>mentu</i>	<i>juzo/juicio</i>	<i>oratione+</i>	<i>logos+</i>	<i>akordatu</i>	<i>barrundatu</i>	<i>asmatu</i>
<i>mente</i>	<i>idiin'íduda</i>	<i>ratione+</i>	<i>logizomai+</i>	<i>acordarse</i>	<i>barruntar</i>	<i>xabetu</i>
<i>nabaitu</i>	<i>aitortu</i>	<i>rason*</i>	<i>listo</i>	<i>ogartu</i>	<i>benaz,</i>	<i>sapere+</i>
<i>antzeman</i>	<i>dokeo+</i>	<i>razón ere-</i>	<i>lelo</i>	<i>ikertu</i>	<i>verdad</i>	<i>saber</i>
<i>analogizo+</i>	<i>dubito+</i>	<i>txi</i>	<i>lerdo</i>	<i>igarri</i>	<i>verificar</i>	<i>ezagutu</i>
<i>menoineo+</i>	<i>tekuru</i>	<i>arte</i>	<i>loka</i>	<i>gomutau</i>	<i>burutapen</i>	<i>aztertu</i>
<i>memini+</i>	<i>docto</i>	<i>argi</i>	<i>loco</i>	<i>gogartu</i>	<i>pensamiento</i>	<i>sinestu</i>
<i>memorare+</i>	<i>solvo'zoli</i>	<i>raro</i>	<i>iluso</i>	<i>galzu*gnoo+</i>	<i>bromear</i>	<i>aztu</i>
<i>enterar</i>	<i>zogi'zuhur</i>	<i>ergel</i>	<i>elger</i>	<i>geshtu*</i>	<i>bacilar</i>	<i>sabio,</i>
<i>necio'nece+</i>	<i>zorga</i>	<i>arkülo</i>	<i>ligero</i>	<i>egia'gezur</i>	<i>bobo</i>	<i>jakitun</i>
<i>inozo</i>	<i>sutil'tonto</i>	<i>raka*</i>		<i>cabal,</i>	<i>pelele</i>	<i>azkar</i>
<i>memo</i>	<i>tuntun</i>	<i>lotu</i>		<i>gurbil</i>	<i>burdo</i>	<i>sagaz</i>
<i>inanne+</i>	<i>zuntzun</i>					

Ohar: Latin eta grekar hitzak +, eta Antxinako Sortalde Hurbilekoak \* seinua daroe


*mendeku/mendigo*, batak bestearen ondore direla adierazten. (Ikus 11º laburgoan) Esakeron lekukotasuna maiz euskeratik ate doa, baina beti ere euskarak edo kideko hizkuntzaren baten azpiegiturak inutua eta inguruko beste hizkuntza baten memorian godea.

*Enki/emqy*<sup>(6)</sup> “Enki/jakin” parekideak egiteko ohitura Sumeriako jakindurian ere agertzen da, *Anek* lurrera bidaldu- seme *Enki* (Ikus 18 or.) *uin* gozoak ornitzeko, erreka ginen eta laborantzan erakutzi zielako eta uriolean *untziaren amarruaz onik* atera zuelako giza *naza*. Bide beretik euskaldunek *Xainko/xakin* hizkunea egin dugu.

*Inko/ungo* hizkunea taxutu zuenak ba zekian *ungo* “bakea” Jainko doahia zena “eta bakea lurrean haren gogokoei” otoitzen denean bezala, grekoak *eirene*, ots, “*Erraen>Errein*” (*Erraren erregalia*) aitortzen zuten.

*Inko/aínco*, *Inka/inka* esakerok *Inkoari* egin kexu eta unearen larria adierazten du, gaztelaniak ere gogoratzen duen bezala, “con *aínco*=Dios y ayuda”, “*halainka*” zinginak ziurtatzen. *Halainka* Jinkoaren izena alperrik ahotan ez hartzearren esaten omen zan.

*Maat*>*Maidi*, jakinduria zaharreko jainkosa Iturengo *Inotean*. *Maida*>*Maya/Maia* dator eta *Maia*+atze, ots, *Maizatze*ko zuhaitzari izena ematen dio. *Maida* ta *neskattoak* janzkeraz ohiko etxe-*andreen antza* dute, *mottoa* tunturtzen dutelarik. An<sup>(s)</sup> “zeru” jainkosaren emaztea Antu<sup>(s)</sup> zan “zeruko handi”. *Antu/handi* da hizkunez eta “handi guziek bano, tiki guztiek ñaño” esakunez. *Mami*<sup>(s)</sup>, *Maat*<sup>(v)</sup>>*Maite*>*Maidi*=*Antu*, *Nut*<sup>(v)</sup>, *Mut*<sup>(v)</sup>, *Mah*, *Mari*, jainko amen izenak. *Mami/mami*, *Maat/maite* da hizkunez, *Mut/motto*, *Antu/antu* eta *Mari/marra*, maite xedeak zaintzeko, gairitu behar ez diren *marrak* jartzen dituztelako.



*Ande/antz* dator, An sendiko jainkoa, *Andamendin* ezagutua. Jainkoarekiko *antz*a duenak haren *aintza* du berekin. *Aintza* hori duena An eredia *antsiatzera* eta *antxitzera* darama, guraso-semealaben arteko genesak hataraxe baileroan. Esakerok gizarteko sikologia teologia mailara jasotzen dute.

*Maat*<sup>(v)</sup>/*maite* elkarrenak dira jakinduriatzeko jainkosaren ardurak eta *maite* izatea, *amatu/amadu* “ama izatera heldu/maitatu” denarena den bezala, batak bestea dakarrela, ots, amak dakiela, beste inork baino hobeto, “maitatzea” zer den. Hagatik esan ohi da “ama bakarra da”. Egiptoko jainkosa hau *Maidi* bezala ezagutu izan da eta *Maia*+atze erittoa eta ilea bere omenez irazi ziran.

*Mari/marra*, hizkunea ulertzeko *Mari* jainkosaren aginduak jakin behar dira. Haren aginduek gizabideak behin ere zapaldu behar ez zuen *marra* jartzen zien. Bidea *marratzen* doana ez doa zuzen eta harek ezarritako *marra* ihesten duenak *marro* egiten

## 9° laburgoa: ZENTZU HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
antz	so/sor	eri	lotsa	ikui/kusi	abo	atz/atsa
mir/miñ	adi/audio+	aieru	ilusión	ikutu/koiu	abotz	sentzun
mixain	udjat*	eroiu	olfato	coger	boca	zentzu
mizto	othustan	orao+	labio	agertu	voce+	sensu+
mun/musu	otear	irri	lambano+	catar	voz	sentido
mutur	otos/itxu	rinos+	lengua	captar	beatu	txetu
muzin	odore	aures+	lambano+	gusto	begitu	sentir
ñaka	tentu	risa	oler	gozatu	begiratu	saborear
mueca	dendu	reír	oliscar	gustar	begitandu	sapire+
nabari	tiento	eregu	oliscar	gola	visu	jasta
entzun	dendatu	orru	leer	gur'gor	videre+	ezpain,
notar	tentar	orroi,		gorga	ver	estarrri
nozitu	tocar	urruma		glotta+	vigilare+	sama
mürar	sudur/sordo	irrintzi		glotis	vista	sema+
mürigin	usna/usmo	eriaka		garganta	belarri	esku/skia+
nasu+/nariz	susmo	irarri		gortu	pulsar	eskukatu
imitar/mimo	usain	remedar		gesto	apa	escuchar
imintzio	zunda			keinü	beso	aztatu
manosecar	somatu			giño		santzu
enkeinu	destatu			geno+		señalar
annuere+	idatzi			garatz		seinu/signu

Ohar: Latin eta grekar hitzak +, eta Antxinako Sortalde Hurbilekoak \* seinua daroe

du eta markatu, markiztu eta martzuka gelditzen da.

*Man/maina* dinonak ama-agintea aipatzen du eta amaren eskua da *maina* hitzaz azaltzen dena. Beste era batera, *manu/manu*<sup>(1)</sup> = “esku” eratara azaltzen da, agintzeko artezia “esku arteziakin” lotzen bai-da. *Mainatsu* egiturak > “mañoso” dakar errotik.

Lehengo hizkunearen aritik *anze/anzi* egiturek “arte/magia” adierazten dute. Biak ere artezi dira, bata trebeziarena eta bestea indar berezi eta ezezagunena, “por arte de magia” esan ohi denez.

*Mente*<sup>(1)</sup>/*mende* hitzak ozenkadura batek bereizten ditu eta batak bestea dakar “asmoz eta jakitez txikiak handia bantzuten” esaten denean bezala. Esakuneak hasierako hizkune soila azaldu baino ez du egiten, berez hazi koxkorrean bezala gordetzen dena loretzen. *Mente*<sup>(1)</sup> euskaraz *mentu* agertzeak ez gaitu arazotik aldentzen.

*Mentu/mendu*, aurreko hizkuneak, “asmoak nausigoa” daka-

rrela dino eta “adimenak *mendu* lana eta *emendioa*” egiten duela heziketa mailan. Heziketa lemarako balio du eta asabek haurren heziketari ematen zien garrantziaren lekuko da, “umeen zentzune, etxean entzune” esaten denean bezala.

*Amoratu/amorratu* dator hizkune mailan, arketipo baten gogorduraz soilik lortua. Maitasuna herioarekin, “eros<sup>(s)</sup>/erios” bezala, lotzen dutenak edo ezkonduen arteko tukuak, arrazoi ematen die esakera honi, “maitasuna herioa baino gogorragoa” bai-da.

*Ainanino/inanne*<sup>(l)</sup> “deabru/zoro” esatera dator, *iñozo/iñoxiu*<sup>(l)</sup>, “*iñozo/errugabe*”<sup>4</sup> hizkunean bezala. *Melek*<sup>(h)</sup>/*makila* “errege/aginte makila” esatean hako “basoan jai, basoan hasi, herrira etorri eta bera nausi” hizkirimiria dugu gogotan, sinboloen mailak *makilak* edo *mailukiak* berak egiten bai du agintearena, eta idazkeran berriz, *l* letra hutsak *Ilu* jainkoa eta arketipoa ordezkatzan du Ugariteko idazkera zaharretik honaino.

*Mendeku/mendigo* esakera nola ulertu, Egitoko jakinduria gogoran izan gabe? Hala bai-dino: “erregea aberaztasun bidea da (...) Sekhemet eta bera da, ordea, bere aginduei men egiten ez dionarentzat; bere begitarteko ez dena eskeko izango da”<sup>5</sup>. Horrela ulertzen dugu erregearen eta jauntxuen *mendekua* norainokoa izan daiteken. Latinak ere *mendicu* “eskeko” darabil eta *vindicta* “mendeku” zoria adierazten, ots, “indarrez egotsiko zigorra”.

*Martu*<sup>(s)</sup>/*mardo* halatsu zan Sumerren kalera eskondu zan mortuko jainkoa, ekosarien ongile eta gaitzen osagile, gero *Martxo* inguruan *marti-gari*, *marti-oilar*, *martopil* emaitzetan agertzen denez.

*Natu*<sup>(l)</sup>/*natu* hizkuneak “jaoia/akatsa” dino eta “eguno emakumek ez du erditu ogenik bako semerik” dino Sumerreko jakinduriak<sup>4</sup>.

*Amaitu/amatau*, norbaiten edo zerbaiten azkena adierazten dute biek ere “epea, arnasa *amaitu*, argia *amatau*” eta hortik gaztelaniak “*amatar* eta *matar*” aditzak gordetzen ditu. *Amatu/amaitu* eta *amaitu/amatau*: ama jaiotzan eta hiletan aurreren dago, “jaoiak heriotzea bai-du zor”.

4 *La enseñanza legal*, V, DB. n<sup>o</sup> 10, p39

5 *El hombre y su dios*, 103, DB., n<sup>o</sup> 26

10° laburgoa: MINTZO HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
<i>aien, ino,</i>	<i>otoi'ots</i>	<i>erran'rogo+</i>	<i>ela'ele</i>	<i>kexa</i>	<i>berba</i>	<i>esan</i>
<i>oinon'onua</i>	<i>oska'ujui</i>	<i>erasi'erasa</i>	<i>auli'ulu</i>	<i>quejarse</i>	<i>berbatu</i>	<i>azaldu</i>
<i>unmos +</i>	<i>itun'itune</i>	<i>eresi'ersu*</i>	<i>lelo'laleo+</i>	<i>galde</i>	<i>balbucir</i>	<i>seger</i>
<i>inka'antzi</i>	<i>itundu</i>	<i>arenga</i>	<i>elaire'oles</i>	<i>uka'ukatu</i>	<i>abestu</i>	<i>silenciar</i>
<i>narrar</i>	<i>(h)itz(h)eita</i>	<i>erregu</i>	<i>elegin</i>	<i>gezur</i>	<i>avisar</i>	<i>sesto</i>
<i>nuntio+</i>	<i>aítatu</i>	<i>eragon</i>	<i>elekatu</i>	<i>criticar</i>	<i>psalere+</i>	<i>sermone+</i>
<i>mezu'onetsi</i>	<i>aitor'autor</i>	<i>erosta eri-</i>	<i>elastatu</i>	<i>contar</i>	<i>vocear</i>	<i>saludar</i>
<i>mito'mintzo</i>	<i>autu'deitu</i>	<i>txi</i>	<i>lakatu</i>	<i>clamar</i>	<i>baieztu</i>	<i>chanter</i>
<i>muxin</i>	<i>dico+</i>	<i>errezu</i>	<i>letreiaitu</i>	<i>garraxi,</i>	<i>afirmar</i>	<i>santzo</i>
<i>negar</i>	<i>deithatu</i>	<i>orar'rezar</i>	<i>loxingatu</i>	<i>grito</i>	<i>palabra</i>	<i>iskiritu</i>
<i>masiatu</i>	<i>iskirio</i>	<i>errieta</i>	<i>loquere+</i>	<i>keruptto+</i>	<i>parabole+</i>	<i>scribere +</i>
<i>murrika</i>	<i>destain</i>	<i>reyerta,</i>	<i>laudare+</i>	<i>cantatu</i>	<i>ahapaldi</i>	<i>senton</i>
<i>emet*</i>	<i>docere+</i>	<i>aramaka,</i>	<i>lohar'lekaio</i>	<i>cantar</i>	<i>verso</i>	<i>centón</i>
<i>eneatu</i>	<i>edatsi</i>	<i>irargi</i>	<i>elogiar</i>	<i>gazitgatu</i>	<i>verdad,</i>	<i>esakun</i>
<i>mentar</i>	<i>tacere+</i>	<i>irakurri</i>	<i>alamen</i>	<i>glota+</i>	<i>ipoin'ipuín</i>	<i>sentencia</i>
<i>moneo +</i>	<i>dabar*</i>	<i>iruzkindu</i>	<i>aldia</i>	<i>glosar</i>	<i>poesia</i>	
<i>mormorio</i>	<i>doctrina</i>	<i>ordeinatu</i>	<i>lamento</i>	<i>grafo+</i>	<i>historia</i>	
<i>noticia</i>	<i>atsotitz</i>	<i>refrán</i>	<i>aldarri</i>	<i>gravar</i>	<i>falar'hablar</i>	

Ohar: Latin eta grekar hitzak +, eta Antxinako Sortalde Hurbilekoak \* seinua daroe

*Nomen/numen*<sup>(1)</sup> edo *nomen/omen* hizkuneak sortu zirenean, ba zekiten izenak "izena/izana", berez ospea eta funtza zekarkiola izendunari, izenak jainko analogiak zirelako, hitzetik ortzera.

Hitzaren ezbardintasuna eta maiz kontraesana jainko arketipoari giza arketipoa aurrizki edo atzizki ezartean datza. Jainkozko edukina gizatasunaz kutsatu, *An/Enki, An/Nabu*, adibidez, kunduaz ezberdindu, *man/woman* eta kontraesana lortu, *enda/en-deka*, adibidez, beti ere hitz beraren errotiko eratorri direla. Hala, *Inu/Inko, Eni/Enigo, une/ungo, ama/amako, Antu/Andiko/Antigua, Mardu/Marduku, Nabu/Nabuko, Nana/Nanshe*<sup>(s)</sup> 6, *aina/anaxe, man/manka/manco, man/manex, ainai/ainagu, manu/manuko, eñe/esne, men/menke, men/mengo/mengua, men/mengel, mardul/margul, men/menpe, ensi*<sup>(s)</sup>/*nagusi, etab.*

6 *Nanshe*, Enkiren alaba, ur gozoen jainkosa, batez ere arrain ugaridun nasa eta ugarketakoena. (LIMET, E, "NANSHE" (religión sumeria), o.c., p.1267) Cf: ohar *nasa/naza* hizkunea, kresal eta ur gozoen *nasan* izaten bai-da, arrain nazaren ugalketa. Cf. *Andiko/Antigua* Andre Mariaren santutegi tituloa.

## 2.2. Utu arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak

*Utu* ere bere arketipoko monosilabo guztien sorgu da: *otu, otoi, doi, dui, doe, itu, itxu, ud, idi, uso, hotz/hitz, oju, oihu, ota, ota, oso, so, ate, edu, adu, eita, etab.* Eskarmendu arruntak azaltzen digu, adibidez, *Utu/itu* gure nora-noizkoen *so-puntxua* dela, edo *Utu/itxu*, haren diztirak *itxutu* egin dezakela *sogilea*, edo egunari eta gauari *atera/sarri atea* egiten diola *atetan>atxetan>haitzetan*. *Otoi, oihu, doi* eta *iterako* beste analogiak *Uturen* mitologiatik *atera* behar dira: *deadoz deitzen* diotenen *otoi* entzule eta *doe, uzta* eta *osasun* emaile *doia* delako eta *osteko adua, uztea* eta *zoria* *Iduzki Saindu sorosleagan utzi* dutelako. Beraz, *Utuz otu* eta *Uturi otoi, oihu, hots* egitea harekin eta haren *edura* hitz egitea da.

Hizkunea egiteko soinua *Utu* beraren alafonoez eta bokalen laguntzaz egiten da, erabat antzeko eta ezberdina izan dadin. Arketipo hau *oso* aberatza da alofonoetan: T/D/DD/DH/z/s, berez daitezkeela: *Utu/otu/otoi/edu/hedoi, Utu/itu/itxu, Utu/ate/atx/haitz, Utu/aita/atta/atxa, Utu/uzu<sup>(s)</sup>/uzu/izu, etab.*

Hala ere artezi ahalegin handiagoa ikusten dugu hizkune aglutinaduetan. (Ikus euren txorta bat 14° laburgoan)

*Aiton/atin* hizkuneak *aitona* eskarmendu=*atin* handikoa dela dino eta bere *itunak* “*tinuz*” emandakoak direla. Bestalde, *itaun/itun* ikasbidea da heziketan: *itaunak* eginez, aholkua=*ituna* lorzen da erantzunez, Sumeriako *eduban*<sup>8</sup> egiten zen bezala.

*Tinia<sup>(etr)</sup>/tini* “iduzkia/txuntxur/gain” adierazten dator parekide hau. Euskeraren “memoria” aldameneko mitologian ere gordezten da haren baten, *Shin<sup>(s)</sup>/zin* berdinketan bezala. *Shin* “ilargia” hartzen da *zinaren* lekuko eta halatan dator *zindo* eta *sinisgarri*. Hortik *sinestu, sinetsi, ots, zinez estutzen* edo lotzen dena<sup>9</sup>.

7 *El Diluvio*, 202-260, ANET-42-44

8 La *eduba* era “auténtico centro cultural de características humanistas, donde se cultivaban disciplinas relacionadas con la lingüística, la literatura y la religión”. (MORLA,V., *Libros sapienciales y otros escritos*, o. c., p. 56-57) Cf: Ohar *El aprendiz de escriba*-ko elkarriketak, DB., nº 26, p. 25-27

9 *Sinistu<sup>(s)</sup>* “emakume”. Cf: *sin-/sym-* egitura gregoa hitz asko bermatzeko erabili ohi duen aurrizkia da eta hortik datorke *cum-* latinoa ere.



*Zindo/zintzo* sanotasun fisikoa, frutarena, adibidez, gogozkoa adierazteko erabilten da. Hatarako nahiko du *-do>-tzo* igadura, *tuturru/sudur* parekidean ere ikusten denez. *Tuturru* edo *txutxurru*, mendi mokoari esaten zaio eta haren antzera deitzen *sudurrari*.

*Zun*<sup>(s)</sup>/*sona*, *Nin.zun*<sup>(s)</sup> “*Dona* (andre) jakintzuari” zegokion *sona*, izatea. Hagatik *dona/sona* edo gizonezkoengan *doctore/dotore* izatea. Jakinduria edertasunaz lotzen da, *soinkerak* gogakeraz duela parte. Arrezkero *-zun* atzizkiak ba du zerikusirik ikerketaz, “*sumaka* edo *bilaka*” adierazten bai-du, *urzun*, *ogizun* egituretan bezala. *Tuntun>zunzun* errepikatuak, ostera, *suma* hori ukatu egiten du. Ohar arketipoaren alofonoak ere hizkune arteziraiko diren.

*Duin/zuin* parekatzean, jabeen arteko lur banaketa dugu gogotan. *Zuinak* zeritzen hatarako neurriei, “hainbestekoak, egokiak, nahikoak” izan behar zuten soloak, hitzen kidetasunak adierazten duen bezala. “*Zuinak* alor onean suertatu zaizkit” (Sal 16,6).



*Totila/sotil* “neska ederra, zur, begiratua” dino, hala uste du, edo izan behar duela aholkatzen du, beraz aholkuaren jarraile, *dúctil/dócil* “esaneko” da, ederra duinatasunez *otatu/osatu* behar da, osotasunean gorde ahal izateko. *Docere/ducere*<sup>(1)</sup>, “erakutsi/gidatu” dino latinak eta lehengo *dúctil/dócil* parekideekin bat dator, *aditu/adiutu* emaitzak ere elkarrenak dira adimenaren bidean.

*Ttoin/duin* eratorri argia da egituraren eta edukinaren aldetik “oparietarako ogi fina=*duina*”. Hagatik hizkuneak ogiaren kalitatetik gogakeraren ganora adierazten du, arketipoa ozenduz bakarrik.

*Duin/deun*, “*duin/done*” ere badator, bata bestearen baloreko egiten dituela *Utu* arketipoarekiko analogiok eta “san, santu” formak baino askozaz zaharragoa da: batak berezko santutsuna adierazten du, besteak erritozko “santu izate” zehatza. Izendegi zaharrean *done/deun* tituloa daramate santuek eta Andre Mariak. *Dun>don>doña* ere bide bereko.

*Sudur/zuhur* analogiak iturburu asko ditu. *Sudurra* usnarako askarra da, usna, santzuén garatzetako: sentzuna adimenaren zerbitzuan jartzen du eta zioen loturan: batak bestea dakar.

*Doru/adur*, *dorua* “erastuna da” atzamarrean sartzen den aroa. *Utu+Orus>doru* dator eta iduzki arketipo bien indarra dakar hitz



Jakinduria zaharraren jainkosak: a) Langi-Mari erregeak jainkosari eskeini zion irudia (XXV Ka). (Mari uriko aztarrenetatik Alepoko Museuan), b) Iberiako jainkosa, *Dama* deitzen direnetakoa (Cerro de los Ángeles, Almería, VI Ka.) Ohargarria da eskuetako uhaltasun uren ontzia. c) Maat egitiar jainkosa>Maidi>Maya izenez gurean ezagutua.

bezala, eta magia, aro bezala. Ustez, aroak bere biran hartzen zuan jabearen *adurra* edo zori ezbaikorra, ausaz aroak erdigunearako duen jokeraz ondu zezakeana.

*Ustai/uste* esakerak ba du aurreko siniskera edo *ustearekin* zerikusirik. *Ustaia* zeruan agintzari baten ostargi bezala agertzen zelako ustea zan: goiko eta beheko uren oreka zaintzen eta urak igaroten zituan. *Ustaia* ikusgarria, baina bere eginkizuna *ustezkoa* zan.

*Toro/adore* egiturak ere iduzki arketipo bien indarra lortzen du, *idi+uro* batean>*toro* aberearen *adore* ganora adierazteko baliagarri ematen dela, *uxu/uzu* esatean bezala, *uxua*, berez *uzua* delako.

*Txori/zori*, Ba, barna, giza burudun *txori* idurian agertzen da gero-glifikoetan. Bere *zoria* bakarka ibiltea zan, harik eta Ka lotatik iratzar zedino, Fenix *txoriaren* berbizte *zorientzuan*.

*Atasa/ataza* "atezua/ardura" esatera datoz, egoera fisikoa gogakerazkoaren abisari da, hizkuntzan beti gerta ohi den bezala, giza-kiak ikusi eta sentitzen dituenak antzetzuz, ulertzera ematen baidu.

*Utu* arketipoa bere konsonantearen bustidurez baliatzen da bereizketa mota batzuetarako *otu/oju*, *izu/isio*, *zori/sori*, *sorta/zorthe*, *sortze/sorte*<sup>(0)</sup> eta haren bustiduratik ulertzen ditugu: *ut>ux*, *tonu>sonu*<sup>(0)</sup>, *doinu>soinu*, *duin>soin*, *dosta>josta*, *tot>txotx*, *tokor>zokor*, *utuldu>zoldu*, *tunsi*<sup>(0)</sup>*>suntsi*, *atoratu/azoratu*, *tomar/sumere*<sup>(0)</sup>, *turgeo>surgo*<sup>(0)</sup>, *torto>sortu>sortir*<sup>(0)</sup>, *tutulu>txotxolo*, *tonto>sonso*, etab.

*Utu* giza arketipoekin aglutinatzen denean, edo gizatasunaz janzen da, hala *Adu/Patu*, *Odoi/butzu/puteu*<sup>(0)</sup>, *Ada/Adapa*, *so/sogi*, *su/zubi*, *zur/zurubi*, *zuri/zurbil*, *su/zuku*, *uxo/kuxo*, *txu/kutxu*, edo kontrakoa adierazten du: *zur/sorga*, *done/donga*, etab.

### 2.3. *Ra* arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak

Nahiko dugu *Ra* arketipoak iruzkia ordezkatzeko duena jakitea beragandik *erre*, *oru*, *urre*, berezko edo antzeko analogiak ulertzeko, baina nola ulertu *ar*, *errai*, *irri*, *ur*, *era* ere izan daitezkenik, bere sorkuntzako mitoa jakin ezik, edo *erra*, *ira*, haren zigor asmoa kontuan izan ezik, edo *oroi*, *oro*, *orro*, *erru*, berekiko zaleen *orazioneak* ohar gabe? Orduan bai, ulertzen dugu *oroi/orho/orro* *eresien* eta *irriken* *eredua*. *Ra/Horus* arketipoak egitiarren *artezi* edo *magia* berezia du jarraiko esakeretan ikus dezakegunez.

*Erran/arren* egiturak *Erra* jainkorekin *harrematekoak* dira. Berak *erranaz* sorkuntza lortu zuan bezala, *arrenean* egiten zaizkion *arrankurak* onez *har* ditzan, *erran* eta *erein* erabatera.

*Eregu/erregu* hizkunean errito ohikune zehatza ikusten da. *Erra* jainkoari *erregu* egin *aurretik*, *eregu* egin behar zaio, ots, ondo *erran*, mimoz *oratu*, haren *erak* *eresi*, eskerra *ardiezteko*. Haraz gero, erritozko edozein otoitzek bi zati ditu: lehenengo Jainkoaren ahala aitortzen duena eta urren, eskabidea egitekoa.

*Ersu*<sup>(0)</sup>/*erresu* esakerak lehenengo hizkuneari jarraitzen dio. Egitiertaz *ersu* esaten dena euskarak *erresu* dino, ots, Jainkoari egin eskari sutsu eta eraginkorra, *erreoparien* erakutzia aurrean zela. Erroman *rogu/rogo*<sup>(1)</sup> dino hizkuneak: “erre oparien txondorra/eskaria” materia eta forma erabateratsu datozela. (Ikus 105 or.)

*Erres/errez* hizkunaren arabera, harremanak sendotu eta sale-

rosteketak ziurtatzeko *erresak* edo diru aurreratuak ematen dira, ezkongaietako *arras* deitu-diruak bezala. Era berean *erre*-opariak egiten ziran jainkoekikoak *errazteko*. Hortik dator *erresatu*>*erraztu*, ahozko eskari eta agintzari hutsa ere aipatzeko.

*Erregutu/erregutau* hizkune formularen arian dator “esan/erantzun” bezala, *eretxi/eresi* gogoz uste izatetik ahozkatzera edo abestera datorren bezala.

*Eresi/eratxi*, “esan eta egin” hitzaren arteziari lotua dago. Marduk erregea bezala, artezi horretaz jabetzen zena, jainkotzat haritzen zan. Marduken ahala magia horren bidez frogatua izan zan<sup>10</sup>. *Eresi/erazi* esakera beraren indarra dauka, eta hareago, erritoko kantuz esanaren eragina aipatzen da.

*Arthe/arte*, esakera honen aberatsa ulertzeko ahal izateko, jakin “*Arthe deo*” eskeintzarria Ainamendi ingurukoa dena, *Artamendi/Arzamendi* santutegietan egiztatzan denez. *Ra+ate*>*Arte* jainkoaren *artezi*tako bat *tarte* estuetatik, haitzartetik adibidez, sartu-urtenak egitea zan. Hilobietako harrigizonek *artezi* horretakoak ziren. *Artezi*>*ardid* dator eratorriz eta hizkunez, *artelana* da, *artistarena*, eta pazientzia=*artea* eskatzen dio *artegileari*.

*Arkhe*<sup>(9)</sup>/*argi* baloreak ere elkarrekin joan behar zutela uste zan, “agintaria/sogia” zelakoz, edo eta sogia agintaritzarako aukeratzen zutelako. “Ale, egin dezagun errege argi eta zuhur dena”<sup>11</sup>.

*Ordain/orden* eratorri egokiak dira euskeratik ustezko erdera eta *Ra* jainkoaren jokera adierazten du, bere aurkako arramantzaren orbana *ordaintzea* eskatzen bai-du, izadiko *ordena* ezarteko. Beste hainbeste eskatzen dute enperioko *ordenaren* zaintzaileek: *ordaina* edo delako *orde*>*ordeu*<sup>(1)</sup> “garitan” edo bestelako izunetan.

*Rason*<sup>(e)</sup>/*razón* erdal hizkune honek hitzaren pedagogia noraino heltzen zen adierazten digu. *Ra+Aton*>*rason* datoz egitiar jainkoek eta “*Ra* jainkoari atsegin zaiona”<sup>12</sup> esan nahi du. Ba al dago

10 “Eresi “eratxi edo eregi” eta hala izanen da” (*Enuma elish*. IV, 22)

11 “*Lucha entre Ba ‘lu y Motu*”, 1.6 I, 48.

12 Equipo “*Cahiers Evangile*”, *En las raíces de la sabiduría*, C.B, nº 28, VD, Estella, 1980, p. 15.

## 12° laburgoa: JAKINDURIAZKO BERDINKETA-BEREIZKETAK

AN/ANU: man/maña, Inko/ungo, Enki/emqy<sup>(a)</sup>, mente/mende, mentu/mendu, anze/anzi, antze/antzi, antzi/antxi, untza/untsa, mendu/mendetu, nabustu/nabastu, nado/natu, mendeku/mendigo, numen/nomen<sup>(l)</sup>, iñozo/inoxu<sup>(l)</sup>, necio/nece<sup>(l)</sup>, ainanino/inanne<sup>(l)</sup>

UTU: otu/otoi, otin/Otxin, turre/tuere<sup>(l)</sup>, edu/ethos<sup>(g)</sup>, atton/atün, itun/itaun, itandu/itundu, eiatu/ehitu, doctore/dotore, done/don, toin/duin, duin/duño, zindo/zintzo, dona/sona, tuna/-zun, docere/ducere<sup>(l)</sup>, sudur/zuhur, atari/sarri, izkune/izkunde, ttoin/duin, toin/soin, totil/sotil, toro/adore, sortu/sortir<sup>(l)</sup>, ituna/isuna, txori/zori,

RA/HORUS: oroi/orroi/orare, arren/erran, erio/héro, ero/Eros<sup>(g)</sup>, Eros<sup>(g)</sup>/Erios, arra/erra, ersu<sup>(e)</sup>/erresu, errezatu/erraztu, rogu<sup>(l)</sup>/ruego, rason<sup>(e)</sup>/razón, erregutu/erregutau, eros<sup>(g)</sup>/erogo, ere-gu/erregu, ergel/argal, arkhe<sup>(g)</sup>/argi, re/reg<sup>(aw)</sup>, orube/orbe<sup>(l)</sup>, ordain/orden, eretxi/eresi, eresi/eratxi, eresi/erazi, Aruru/haur,

ILU: ele/el, Ala/ahal, alaina/lain, olim/ilun, olim/loin<sup>(l)</sup>, ilutu/luto, ilutu/ilotz, ilutu<sup>(s)</sup>/iluso, altu/altzu, alor/lor, alor/lur, elekatu/alakatu, logos/logios<sup>(g)</sup>, lauru<sup>(l)</sup>/loria, leware<sup>(l)</sup>/llevar, legal/leihal, lite<sup>(g)</sup>/lid, legea/lehia, ley/laya, lain/leinu, lagun/legun, alegindu/alengitu,

KA: giza/guisa, ekia/egia, kanore/ganora, emqy<sup>(a)</sup>/queen/kin<sup>(l)</sup>, guen/kin<sup>(l)</sup>, gal<sup>(a)</sup>/galai, kide/gida, cura/gura, gratia<sup>(l)</sup>/grasa, capio<sup>(l)</sup>/cappo<sup>(it)</sup>, causa/gauza, korde/corde<sup>(l)</sup>, korde/gorde, kardia<sup>(g)</sup>/gardi, kari/caro, castigo/gaztigu, egotzi/egotxi, ikui/igui, cabeza/capaz, gailen/galen, gaixto/gaixo, quaerere<sup>(l)</sup>/querer, garbai/garbi, egortzi/aegroti<sup>(l)</sup>, guritu/gurtu, guritu/gurdo/gordo,

BA: ibai/via<sup>(l)</sup>, via/fe/pia/piu<sup>(l)</sup>, bide/vida, bide/fide<sup>(l)</sup>, beena/pena, vereda/verdad, bizi/vis<sup>(l)</sup>, virtus<sup>(l)</sup>/virtud, beena/bene<sup>(l)</sup>, behatu/beato, buru/foru, berba/Verbu, bage/vago, bera/veru<sup>(l)</sup>, benaz/penaz, balar/falar<sup>(ga)</sup>, botere<sup>(l)</sup>/borta, poder/puerta, piel/fiel, obari/opari,

ETXE: xabe/sabia/o, xaun/sano, xabetu/sapere<sup>(l)</sup>, sein/zein, izen/izan, esan/izan, zer/ser, as/hasi, ezta/ezti, zen/san, sanatu/santu, santzu/sancitu<sup>(l)</sup>, zendua/saindua, espe/spe<sup>(l)</sup>, espain/espen, eskui/esku, eska/esca<sup>(l)</sup>, ezker/esker, eskari/ezker, eskura/segur/ziur, senda/sendo/sandu, zendu/zaindu, sede/xede, etxe/etsai, eskarmentu/escarmiento, etxakona/ezaguna, eskarniatu/escarnecer, saindu/zaindu,

*arrazoin* hoberik herria jaurritzeko? Hori izan da gero ere burua jainkotzat hartu duten agintaritza askoren “*razón de estado*”.

Ra arketipoa ahozker a gogor/gozoaz edukina aldatzeko serbitzatzen da: *aro/harro, uri/hurri, ara/arr, are/arre, aran/arran, aratu/hartu*, etab. Giza arketipoez Ra gizatu egiten da, *Ra/arkhe/rege, Erra/errege, Ra/kzar/zar, Ra/Parau<sup>(n)</sup>=Faraoi, ar/akar, era/erabe*, behean ezarten, hala *errai/errape, harri/harpe, erre/herpe*, edo ukatu egiten du *Ra/raka<sup>(n)</sup>=argi/ergel, erri/erka, orei/orga*, etab.

#### 2.4. *Ilu arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak*

*Ilu laia* bere arketipoko monosilabodun guztiekin lotzen dugu beste barik: *ele, al, il/hil, lo, aul/ahul, uli, euli, ili, loi, ulu, el, hell, ile*, etab, eta guzti horen inguru idoroko dugu *Iluren elea* eta *leloa*, bere *ilobekiko* aglutinaduak ere *laudatan lagun* ditugula.

*Iluno<sup>13</sup>/ilun* egituretan “*luna*” iretargi jainkosa eta *iluna* elkar-tzen dira, *ilun/olim<sup>(l)</sup>* formulaz ere “*lehen*”, argia baino *lehen*, dena, zurruburu eta *iluna* zela adierazteko.

*Ilutu/litz*, “*Ilu jainkoari sagaratua*” *Iluren litzak*=argiak dago, badaezpadako argiak dira, beraz, *ilutu>ilus*o dator eta hareago *ilutu>hilotz* eta *hildu*, beraz, *ilutu>lutu* eta *luctu<sup>(l)</sup>* “*negar*” ere bai.

*Elekatu/alakatu* *Ilu* jainkoarekiko *elekan, alakan* dagoena *lez, alakatu* egiten dio *Iluri*, ots, eskatu, *ala!*, *hel!* oihuzkoez.

*Legal/leihal* egituraz elkarren eratorriak dira eta, Israelgo farestarren arauz, legea betetzeak egiten duela bat lehial esaten dator. Era berean, *lege/lehi* dator, 119, 20 salmoak dinonez “zure legeen lehiak nago beti”. Legepean dagoena *lege(are)na* da, beraz, *legena* bezala ezagutzen dugu *legen* heritasuna.

*Lein/leinu, lehen* gurasoekandik datorren ondareari *leina* deritzaio, erderazko *linea* ta *linaje* bezala.

*Lauro/loria*, “goralpen ereintza” *loria*=aintzaren ezaugarri da eta *logos/logios<sup>(n)</sup>* “hitza/jakintsu” ere bata bestearen ondore dager.

13 *Asto Iluno (Astelen)* jainkoa Ainamendi inguruko santutegietan dager. (SORAZU, E. *Antropología y religión en el País Vasco*, o.c., p. 90-91)

*Alor/lor*, erein *lurrean* nekearen nekez *lortzen* dute laiari elkartuek dute lana burutzea edo *lorrak*, abe astunak, *lorratzeko* indarra, adibidez. Bide beretik dator *alor/lur* ere *lorra* ta *lorpena* dakarrela.

Jainko arketipoen artean *Iluren* leinuko esakerak euskaran urri-enak eta arrotsenak ematen dute, azkenak ere izan zirelako, hau da, sumeriar eta egitiar kulturak baino nahiko geroztikoa. Giza arketipoekin lotzean, haren nortasuna gizatu egiten da, hala *Ilu/Bahu*, *Ilu/Apollo*, *El/Beel*, *Ilu/biloi*>*filiu*<sup>(1)</sup>>*hijo*, *Al/alaba*, *Ilu/zeli*, *El/elish*<sup>(bab)</sup>, etab., jainko eskuko dena giza eskuko dator: *oilo/pollo*, *ile/bilo*, *ulna*<sup>(1)</sup>/*belaun*, *ele/abele/bele*, *ele/sel*, *etxela*, etab. edo ukatu edo beheratu: *ala/alaka*, *lo/loka*, *lia/lika*, *alu/lupu*, etab.

## 2.5. Ka arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak

Giza arketipoen monosilaboduak harekiko edukina nondik norakoa den igarteko egokiak dira *ki*<sup>(s)</sup> "lur", *eki*, *egi*, *goi*, *ekua*<sup>(s)</sup> "egoitz", *egu*, *gu*, *oka*, *oge*, *oko*, *uko*, *uka*, *kia*, *ke*, *ek*, *ka*, *eko*, *hego*, *ego*<sup>(1)</sup>, etab.

*Eki/egi* berdinketak *ekiak* "eguzkiak" *egi* marran zehar, gora eta behera markatzen duela giza ikuspegia eta berarengat ere *egi/egia* bilakatzen da, zeruaren eta bere artean *egiaztatzen* den ezaugarria: zenbat eta gorago *egi* zabalagoa, zenbat eta beherago *egi* hurbilagoa eta kinka berean dakus jakingarrien *egia* ere.

*Ekua*<sup>(s)</sup>/*hego* "egoitzak hegoa du maite, handik joz *ekiak* *egoki*-tu egiten bai-dio: bata besteari begira bailegozan.

*Giza/gisa* hizkuneak *gizakia* aitortzen du bere gauzetan gardi eta egile, ots, bere egoitza bere *kisa* gertatzeko gauza dela adierazten du. Era berean dator *kanore/ganora* hizkunea, batak *kainazko* neurria=*kanon*<sup>(1)</sup> adierazten eta besteak gizaki beraren jasa.

*Kide/gida*, norbere *kidea* daite *gidarik* onena bizitzan, hagatik ondò asmatu dirudi berdinketa; *guen/kin*<sup>(1)</sup> "goiena/erregina" ulertzeko, *Ibarguen*>*Barkin* tokizenean ohi lez, *-guen*>*-kin* dato-rrrela jakin behar, *guena*>*queen*<sup>(1)</sup>>*kin*, Englanden bezala.

*Gailen/galen* esakera honetako bikotea elkarren aurka dator eta eskarmenduan ebatzia da: zenbat eta gorago *gailendu*, orduan eta handiago izango bai-da *galena*, *gale/kale* bezala.

*Kura/gura*, *ekur*<sup>(s)</sup> egituraren antzera emana da eta *gurasoen* ardura eta maitasuna adierazten du: bata bestearenak dira, *cura/quaerere*<sup>(l)</sup>>*querer* bezala edo *ekur/ekuru*>*ekuri/egura*.

*Kardia*<sup>(w)</sup>/*gardi*, esakera hau Menfisko<sup>14</sup> egitiar teologiatik dator, “bihotza” egiten bai-zuan ulerbide bakar, hagatik *gardi* “eritzia” ere sorgu berekoa da. Besterik da, hizkunea gerker-a-euskararen arteko oroitzatik etortea, euskera-latinez *korde/corde*<sup>(l)</sup> formula agertzen den bezala. Euskarak, *gardi* “eritzi” edo *korde* “zentzu” sorgutiko analogia ulertzen du, soineko organoari “bihotza” deitzen diola eta gregoa eta latina organo fisikoarekin gelditu ziran. Ba dago *korda/korde* azaltzeko analogiarik ere: hemen barazkien taxuketa, *korda*, edo gauzen zentzua, hartzen da ideen taxuketaren antzeko.

*Gal*<sup>(w)</sup>/*galai* hizkunea, beste asko bezala, Sortaldean du sorrera eta *gal* “printzeari” eregu egiten dio edo erregetzarako jasa eskatzen.

*Castigo/gaztigu* esakeran sikologiak azalduko du euskarak ala gaztelaniak duen arrazoi. “*Castigo*>*gaztigu* eratorriak ez du esan nahi, lehenengo “zigor” esan nahi zuela eta gero “ohar”, oharra one-rako zigorra izan daitekela baino, edo zigorra, aurrerako oharra.

*Gaixto/gaixo*, antxina baten uste izaten zen bezala, *gaisoak gaizki* eginen ordea jasaten zuten, beraz, *gaixo* egotea ogenen baten seinalea zan. Uste honen kontra, errubako *gaisoen* kexuak izan dira jakinduriatzko idaztien emaitz ederrenetarikoak.

*Garbai/garbi* “damuak” barkamena eta honek errutik *garbi* gel-ditzea dakarrela esateko, bata bestearen ondore direlako, *garbi/garbo* bezala, *garbitasuna*, bai da txukuntasunaren ama.

*Ikusi/ikuzi*, begi argiak dena arakatu eta zakarrak salatu eta garbitzen du. Begirada bat naiko izaten da, *ikuzi* baten ordeko da.

14 “Cobró ser como el corazón y cobró ser como lengua con la forma de Atum. El Gran Poderoso es Path que infundió vida a los dioses, así como a sus ka, por medio de este corazón, gracias al cual Horus se convirtió en Path, y por medio de esta lengua, gracias a la cual Thot se convirtió en Path” (...) La vista de los ojos, el oído de las orejas y el oler el aire con la nariz informan al corazón. Esto hace que salga cada concepto completo y la lengua enuncia lo que el corazón piensa”. (“*Teología menfita de a Creación*, 54, ANET, 4-5)



Hurretik dabilkio *ikusi/ikasi* esakera, giza sikologiaren ohararak dira biak ere eta hizkuntza ulermenaren serbitzuan jartzen du, gainerako hizkune guztiak bezala.

*Causa/gauza* hizkunea erderan *cosa* izatera ere etorri da eta euskaraz “balio” edukina du, eta *gauza* balioduna *kausi* “gorde” egiten da eta *kautan* euki. *Kauta* hori bai-da egituraz eta edukinaz gainerako alaben ama, *kauta*>*causa*>*gauza* bai-dator.

*Ka* giza arketipoaren grina jainkozko arketipoen aurrizki jartzea izan zan, ogenaren mitoan adierazten denez: Inu/*gino*, Inko/*Kingu*<sup>15</sup>, baina giza kisako hitza ugaritu zuan: en<sup>(s)</sup> “apaiz nagusi”/*akên*>*akain*, en/*güen/queen*>*kin*<sup>(0)</sup>, hain/*Ekain*, haintu/*gaindu*, ano/*gano*, ima<sup>(0)</sup>/*kima*, iza(n)/*giza*, ide/*kide*, itun/*gutun*, Anum<sup>(a)</sup>/*Khum*<sup>16</sup>, ume/*kume*, une/*gune*, duzti/*guzti*, iduzki/*iguzki*, ari/*gari*, are/*kare*, ar/*akar*, uren/*guren*, erdu/*gertu*, arte/*gardi*, hala/*kala*>*aequale*<sup>(0)</sup>, inka/*kainka*, onore<sup>(0)</sup>/*ganora*, ortzi/*egortzi*, auta/*kauta*, ausi/*kausi*, hiena/*cane*, udo/*katu*, oilo/*gallo*, uzta/*kosta*, aran/*okaran*, aper/*capra*, esne/*gazna*, unai/*gañan*, unaitu/*ganado*, aroi/*giro*, torre/*gotor*, zur/*gezur*, zûr/*cazorro*, utxa/*kutxa*, antzatu/*gantzatu*, antzutu/*gantzutu*, aile/*gaila*, area/*age*<sup>(0)</sup>>*acre*, etab.

Hala ere, *Ka* arketipoaren bereiztasuna *ukapena* da: nai/*neke*/*nagi*, naitu/*nagatu*, izen/*izeka*, arte/*artega*, baitu/*bekatu*, besa/*besaka*, indar/*indarga*, zelai/*zelaika*, itxura/*itxurga*, man/*manca*, mano/*manco*, gartu/*garbatu*, batu/*bagatu*, barreatu/*barkatu*, ba/*bake*, restar/*rescatar*, anditu/*andekatu*, alaitu/*alakatu*, malatx/*malatxka*, kordetu/*kordekatu*, lot/*loka/loco*, atxi/*aska*, zuritu/*zuritzeke*, nasai/*naska*, susa/*sosiega*, naro/*narga*, estu/*eskatu*, preda/*precata*<sup>(0)</sup>, plere/*plicare*<sup>(0)</sup>, jo/*joku*, juso/*juskatu*, jus/*jugu*<sup>(0)</sup>, fos<sup>(s)</sup>/*fusca*<sup>(0)</sup>, país/*pago*, paisano/*pagano*, etab. *Ka* eta “Ax” arketipoak elkarren lehikari dira aurritzitzen direnean, edukinetan “Ax” dela duinen, hala jabetu/*gabetu*, zale/*gale*, saldu/*galdu*, sanar/*ganar*, sal/*cal*, salvar/*culpar*, seme/*kume*, chavál/*cabal*, sachara<sup>(0)</sup>/*grasa*, aiza/*gaitza*, saber/*caver*, ixotu/*gaixotu*, heldu/*geldo*, alde/*galde*, etab.

15 *Enuma elish*, I, 158; IV, 82; III,37-50.

16 *Khum*<sup>(e)</sup> ari burudun jainko heltzegilea, erregeen soinak-eta eratzen zituen. (BÉNAZETH, D. “KHUM”, DR, o.c. p. 958) CF: *kume*.

Maiz grekoak eta latinak ere burua atera zuten, euskararena bezalako jakinduriadun inguruko hizkuntzen arteziatik, *Ka/ke* “kea bai gera” hizkuneak bezala, *homo/fumu* bai dino: “fumus sumus”.

## 2.6. Ba arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak

*Ba* giza arketipoaren jakinduria aztertzeko egokiak izango ditugu bere berdinketak aztertzea, monosilaboetatik hasita: *ibai, be, bê, ba, bai, ibi, ubi, hobi, hobe, epe, epai, habia*, etab. Bide=*via* honetatik ikusten dugu gizakiaren ordezkatzaille honek zeren antza eta esperantza hartzen duen bizitzan. *Ibai*>*via* datorkio Egiptoko geografia-aren eskarmenduan, *ibai+ate*>*bide* bezala. *Ba/ave* “txori” iruditan dager geroglifikoetan. *Ba* jarreraz *baikor* da eta *bai/fe* datorkio, *bide/fede* bezala. *Ba/be* dago, *apalgoan* dakusalako bere *beza*, *ba/epe* mende igarokorrari lotua eta *be/epai* beatzen duelako behingoz.

*Bide/fide*>*fede*, *ibai/via* bezala, hartzen du *Ba* giza fedek sortaldetik honako kulturetan. Bidelari sentitzen denarentzat, *bideak* berak dakarkio zoria eta hari jarraitzea du *fedeko*, “etxeak behar eta bideak ekarri” atsotitzean bezala. *Ibaia bidetzat* hartzea *Abbay/Hapi*=Nilo itxasbidea ikustea baino ez dago, Ra bera ere belariz goiko-beheko uretan ikusten dutenentzat, beste mundurako *bidea* da. Honen antzeko analogiaz, *vereda/verita*<sup>(9)</sup>/*verdad* egiten dute erromanikoek.

*Behen/ben* esakeran dakusgu *Ba* ganoraren lorpena, *Ka* ganora gaindizkatik jatxi eta haren egia galdurik, *apalgoan* aurkitu du gaiztaginen *apena* eta *pena*, Maaten epaian eta *beena* dagoela aurkitu du *benazko* ondo=*bene*<sup>(9)</sup> izana azken *finean*. *Ba behenatua*, “*ave pennata*”<sup>(10)</sup> “hegadun” dager, *penatu/pennatu*<sup>(9)</sup> datorrela, zigorrak berak ematen diola jasotzeko hegoa, *Fenix* txoriari bezala. Sansonarrria, oinastarrria bezala, *ben-ben* harrietarikoa omen zan, hainbat estadio lurrean *behenatu* eta apurka azaltzen direnetariko aerolitoa.

*Beatu/beato* hizkuneak “zendua/sandua” dela dino, ehortziak, asaben taldekoak bezala, asabotuak eta *beheko* zoriontsuen munduan *beatu*=zorioneko ematen zirelako.

*Borta/forte*<sup>(9)</sup> eta *botere*>*poder* analogiak antxina uriko *ate/atarriak* dorrez indartzeko ohituratik datoz, *uritu*>*ortu* bai dator eta *ortu*, gizatuz gero, *portu*>*bortu*>*hortu* da eta *bordairi*>*botere*.

*Obari/opari* ekoizpenak jainkoen tenploari *oparitzat* eramateko ohituratik dator. Era askotako *obariak* eta *opariak* ere ezagutzen ziran, *Ra+gal* “errege, printzei” egin *erregalia* bezala.

Ba giza arketipoa *b-/p-* aurrizkitu, jainkozko nortasuna, izakera, eskua edo ekintza gizatasunez janzten du: *An/Pan, en<sup>(s)</sup>/ben, on/bon> bonu<sup>(l)</sup>, Adu/patu, Adar/padar>padre, Ra/Parau, era>bera>vera, El/Baal, man/homine, eme/femina, ar/bar, herride/barride, arau/barau, aien/pena, haina/baina, oru/borea, uri/buri, uts/puts, arau/birau, erun/fero<sup>(g)</sup>, ersu<sup>(e)</sup>/versu<sup>(l)</sup>, erresa/presea, ara/bara>vara, ele/abele>bellua<sup>(l)</sup>>bubalu, elae/bela, txolo/potxolo, tzulo/putzulo, ixetu/piztu, ezkur/bescor<sup>(l)</sup>, su/fos<sup>(g)</sup>, uli/polis<sup>(g)</sup>, ortu/portu/hortu, etab.*

Noiz edo behin *b-/p-* aurrizkituak edo *-b/-p* atzizkitu, izakera, ekintza edo unea beheratzen edo aurkatzen du: *aritu/baretu, arao/birao, ara/bare, arau/barau, elai/bele, arko/verraco, soin/besoin, aro/bero, ezi/bezi, estia<sup>(s)</sup>/bestia, atxi/ebatzi, itu/baitu: eroo<sup>(s)</sup>/ferio, sanu/vesanu<sup>(l)</sup>, odore/fetore<sup>(l)</sup>, toros<sup>(s)</sup>/torpe, etxe/etxape, etab.*

## 2.7. Ax arketipoko hitzen berdinketa-bereizketak

*Ax* arketipo honen monosilaboak hurbilduko gaitu behein-behinezko analogien bidera: *ax, as, aiz, haize, xe, xee, je, se, etxe, etze, eze, zi, esi, iza, zio, xei, ez, xa<sup>(ga)</sup>, exe<sup>(ga)</sup>, ja, etab.*

*Izen/izan* bikotea beste honetara ere azaldua izan da: “*izena* duen guztik ba du *izana*” eta bietan ere hitzaren artezia aitortzen da, hitzak esanaz batera sortzen duelako dinona. Hagatik *izena* ipinteko erritoak duen garrantzia. *Sein* bakoitzak *izen* bereizgarria behar du nor *zein* den jakiteko, beraz *sein/zein*. Berdin *zer* bakoitzak *izena* behar du *zertua* izan dadin, beraz, *zertu/ser*.

*As/hasi* hizkuneak *as* “arnasak” *hazi/azaga* formekin du zerikusia, gizakia, *asa* hartzen dueneko, *hasten* bai-da bere kisa bizitzen eta, *azken asa* ematean, *hazkaia* galtzen. Erritoan aitaderak *atsa* ufatzen zioan *izen/izan* berria *asgoratzen* zuen umeari. Hizkunea berera *hazi* doa *hasi/hazi* eratara, hotsari dagokionez, *hagin* eta *mihin* arteko ahozkerak aldatzen duela soilik, *mihin* puntako dena *mihingainaz* ebakiz. Edukinari dagokionez, *berriz*, *bizitzan* *hastea* eta *haztea* batera doazela adierazteko, *batak* bestea *dakarrela* eta,

hareago, *hasi* eta *hazten* ez dena hiltzat ematen dela.

*Xabetu/sapere*<sup>(1)</sup> edo “*xabeak* ba daki”, dakiena *jabetzen* da, *jabetzen* denak ulertzen du, maiz *saporeaz* baliatuz. Ni.Saba<sup>(s)</sup> “*andre sabia*” jakinduriaren jainkosa, Enkiren alaba izan zan. *Shapash* zeritson Ugariteko jakinduria zen eguzkiari ere. *Capere/caber* “no me *cabe*” esakerak ere antzeko analogia du erromanikoetan.

*Espe/spe*<sup>(1)</sup> bikotea ere bata bestearena da: Ansiatzen den guztia itxaroten da eta halako *espea* da geroko ondasunen “*esperanza*” jarkeraren oinarri bata lurrean. Beraz, *espe*>*spe* dator.

*Estai/eztai* hizkuneak ba du zerikusirik, lokarriak eta lotuak bezala, *estaia* lotura sendoa da, hala *eztaietakoa*. Orobat elkarrenak dira *eztai/ezti* “gozo” den aldetik eta bai *ezti* “txertu” den aldetik, *eztialdiko* jardukerak eta “luna de miel” esakerak lekuko.

*Zendu/sandu* hizkunean *izan* zirenak, asabak bezala, *sanduak* direla aitortzen da, hagatik elizako liturgian ere *zenduen* eguna *sanduen* ospakizunaz lotzen da.

*Sanatu/santu*, *Shan/Sani* medikutzaren jainkosak *saniatua santutzat* jotzen zan, “*gaiso/gaizto*” ematen zen bezala. Norbait *sano* zenentz jakiteko, apaizek *sanotasun* santzuak aztertzen ziztuzten eta hortik *santzu*>*sancitu*<sup>(1)</sup> eta, beraz *sanctu*<sup>(1)</sup>>*saindu* hautematen.

*Eskui/esku* hizkunea giza jakinduriaren garaiko berdinketa da, hako “*man/manu*” ama jakinduarien aurrean. Ama-agintean eskubidea, nonbait, ez zan bakoiztua, mainadarena baizik eta hemen giza arketipo bikoitza, *es+ku* (errittoa+soina) *eskua* da “*eskuartu*, *eskubide*, *eskuratu*” gizarte berriko ohikunaren sinbolo egokitua. Hortik *eska/esca*<sup>(1)</sup>, *esku*a/*ezkur*, *eskuri/zigor*, etab. hizkunak.

*Ezker/esker* hizkunea otoitzerako esku jasote ohikunetik dator. eskabiderako, apaizek mezatan bezala, eskuak jasoten bai-dira. Esku biak jasotzen ziran, *eskui* eta *ezker*: batak bidezko den eskubidea dino, besteak, mesedezko *eskerra*, dela jainkoei, dela gizarteari begira. Honetan ere hizkune egoki datoz *eskari/esker* eta zorrak ordaintzeagatik ez da “*eskerrik asko*” esaten.

*Senda/sendo* hizkunea ulertzeko, sanduenganako bidea, ots, santutegietarako bidea da *senda*, *menditarra* gehien bat. Han lortzen

dute erromesek *sendatzea* eta *sendotzea*, harekin lotzen *sentora-lea*, *sentier*<sup>(1)</sup>/*senderia* bezala. Lehengo santutegiak *sendatuen* seinalez beterik egoten ziran eta *sendabide* hori ez da amaitzen.

*Etxe/etsai* esakera latza da benetan, ots, *etxea* “*etxatiarra*” eta *etxe-koa etsai* ere gertatzea, halare, zenbait kulturek jasotariko eskar-mendua da. Ez da gauza arrunta delako, kontraesana duelako baino.

*Etzakona/ezaguna* ulertzeko ohar *etxe/etze*, *exe/eze* formak. *Etxakona*, bizitza biko etxeetan, aldamenekoari esaten zaio, auzoa baino hurbilagokoa da eta, beraz, *ezaupidea* egiteko egokiena.

*Asti/aste* hizkunean denbora neurtzen erakusten digu: *aste* guztian nahiko *asti* dugu lanerako. Aste barruan *astegunak* lanerako izan oi dira eta jaiegunak, lanetik jaregin, jaia ospatzeko.

*Sein/sen* dator, *seinak* bai-du etxeko *sena* eta *seny*<sup>(ca)</sup> eta aitonak atüna, hagatik *sen/sene*<sup>(1)</sup> “agure” edukinaz lotu zuten latinoek.

Ax giza arketipoak jainkoengandik erritox lorturiko *santutasun santzua* iragarritz bereizten ditu jainkoen izenak: An/Shan, Anu/Jaum<sup>17</sup>, Enki/Shekina<sup>18</sup>, Inko/Xainko>Jainko, Anso/Shamsu<sup>(ca)</sup>, Ande/Sanda, Andere/Sandra, Utu/Shedu<sup>19</sup>, Addad/Shadday, Ra/reza/zar, Baba<sup>(s)</sup>/Saba<sup>(s)</sup>, Ba-ü<sup>(s)</sup>>Yahwé<sup>(1)</sup>, etab. Izen arruntetan jakinduria berrikoen heinerako izendegi berria sortzen du, lehengo oinarritik hara: emqy<sup>(a)</sup>/xakin>jakin, ino/esan, ein/zein, on/sano, en<sup>(s)</sup>/sene<sup>(1)</sup>, ente>xente<sup>(ga)</sup>>jende, inda/senda, endu/sendu, endore/sendor, eidos<sup>(s)</sup>/xeito<sup>(ga)</sup>“edu”, eite/xede, eite/jite, aldatu/asaldu, aurri/jaurri, arki/jarki, erein/serere<sup>(1)</sup>, (h)alan/zelan, eritsi/jauretsi, aroi/ saroi, ertu/aiertu, aria/aieria, barru/esparru, egia/segia, etab.

Ax arketipo atzizkituak gai arrunta zehazten du, buztina buztinagatik bezala. Hala berru/verja, barra/herresa/presea, are/res<sup>(1)</sup>/reja, bara/baratze, barra/barracha, arte/artazi, arte/artesa, arte/ardatz,

17 Akadeko idazkietan (XX a.C.) *Yaum* titulodun jainkoen izenak aurkitzen dira. (“YAHVÉH (IV)”, Dic. B., o.c., or. 2056-2057. Cf: *Jinko Yaun/Jainko Jaun*

18 *Shekina/xakin* hizkunea ere berebiziko dator, “lege ikasleen artean *Xekina* (haren ikonoa) gida bezala, egon ohi bai-zan” (“*Shekina*”, DR, o.c. p. 1638)

19 *Shedu*<sup>(a)</sup> “angeru jagole” (LIMET, H., “DEMONIOLOGÍA (religión sumeria y acadia)”, DR, o.c., p. 416-417) Cf: *xede* “marra”, *xedatu* “gidatu, erabagi”

etab. *Ax/xē/ze/se* alofonoez ere zerbitzatzen da, zioa eta ondorea bereizteko: *saindu/zaindu*, *hesi/hezi*, *esti/ezti*, *estai/eztai*, *hasi/hazi*, *eskondū/ezkondū*, *casar/cazar*, *untsa/untza*, *sama/zama*, *sail/zail*, *beresi/berezi*, *ikusi/ikuzi*, *sur/zur*, *nasa/naza*, *txertu/zertu*, etab.

*Ka/Ax* arketipoen artean baloreen eztabaida sortzen da, alderdi bikainagoa *Ax* arketipoarena dela: Hala gabetu/*jabetu*, gale/*zale*, galdu/*saldu*, ganar/*sanar*, cal/*sal*, culpar/*salvar*, kume/*seme*, cabal/*chaval*, grasa/*sachara*<sup>6)</sup>, caver/*saber*, etab.

Era berezko eztabaidan, *Ax* arketipoa *Ba* eta *Ka* arketipoei aurkatzten da nor gizakia eta gorpuzkia espirituari, eta zehaztua abstratoriari: hala biri/*asper*, virtu/*spiritu*<sup>6)</sup>, ikutu/*ezagutu*, gana/*sena*, keinu/*seinu*, guiño/*seña*, garaz/*eskar*, grasa/*sagara*, gano/*sano*, gaindu/*saindu*, ganado/*sanado*, gandu/*santu*, gantzutu/*santzutu*, etab.

Jakinduriatzko arteziak *Ax* arketipoko *etxe/etze/exe/zi* alofonoak erabilten ditu zioa eta ondorea adierazteko, zehatza eta astratoa bereizteko, *s/x* direla zehaztu eta *z* astratu, hala *xeken/zeken*, *egotxi/egotzi*, *jaso/jazo*, *sail/zail*, *sagi/zagi*, *antsi/antzi*, *sorta/zorte*, *seinu/zeinu*, *xori/zori*, *sen/zen*, *casar/cazar*, *sina/zina*, *sador/zator*, etab. Zioa sikolojikoa denean, seinuak aldatzen dira: *zaindu/saindu*, *ceño/signo*, *zaina/saña*, *izigi/ixigi*, *izi/ixi*, *anzi/ansi*, *giza/gisa*, etab.

## 2.2. Izenlagunak eta zehaztaileak

Hitzak elkarren ondoan jartzetik, izenlagunez, zehaztasunez, gonbarazioz edo lokarriren batez elkarri jostera jo zuten. *Mendi/mando* hizkunean, mendia bere markaz nolakoa den adierazten da, baina era berean kalifika zezaken: *mendi handi*, *mendi malkartsu*, etab. Orobat, *ibai/behe* hizkunez ibaiaren tokiaren gorabeheratik antzematen dugu, baina bere arketipoko ez diren beste izen lagunez ere azal genezake: *ibai garden*, *ibai uhar*, etab. Izen kalifikatzailea izenaren ostetik doa, sumerieran bezala. (Ikus arketipo bakoitzari dagozkion izenlagun zelakotzaileak 7<sup>o</sup> laburgoan)

Zehaztekoak kopurua edo neurria begiratzen dute, zenbatzekoak bezala: *gizaki bat*, *hiru ume*, *ogi eskaz*, *hainbat buruauste*, *anitz eritzi*, *sagar asko*, *mundu guztia*, *oso argi*, *guztiz eder*,

*nahiko* zuzen, *lar gozo*, egun *gutxi*, etab. (Ikus arketipo bakoitzari dagozkion izenlagun zehaztaileak 15° laburgoan)

### 2.3. Gonbaragailuak

Gonbarazioa, analogia bezala, antzean edo ezainean oinarritzen da norbait edo zerbait besteekin bat datorrenetz ebazteko, alaba amarekin, adibidez, edo lorea margoarekin. Arketipo bakoitzak, jainkozko edo gizatasuneko, bere gonbaragailuak prestatu ditu bere esparrua deskribatzeko (Ikus 15° laburgoan), *hoin xume*, *inobre*<sup>20</sup> eder, *hain pulita*, zure *heineko*, *zoin handi*, umeak *antz*, zeuk *bezala*, diren *bezala*, zure *duin*, zeruan *lez*, eder *bezain* argi, *sano* egoki, zu *baino* handiago, eguna *baizen* argi, etab.

Shurrupak-en zuhurtziak *Utu edua* darabil gonbaratzeko: “Ama *Utu edu/Uturen duin/Uturen ide/Uturen ideko* da=*uti Utu est mater*<sup>(1)</sup>/ *madre es idem Utu/idéntico a Utu/tanto como Utu*”<sup>21</sup>. Beraz gogora hauta genezake: “*Utu edo ama/Utua aut mater*<sup>(1)</sup>”, edo bata besteari gehitu: “*Utu eta ama/Utua et mater*<sup>(1)</sup> eta baieztu: “*utique, etiam*<sup>(1)</sup>, *también*, baita” eta dudatan itaundu: “*etorri ote/utrum veniat*<sup>(1)</sup>”.

### 2.4. Lokarriak-eta

Lokarriak serbitzu praktikoa egiten dute hitzaren antolapenean. Lokarriok gehitzekoak, bereiztekoak, aukeratzekoak, salbuezpeneak, ukatzekoak eta barru-hartzekoak dira: *nai/naiz, eta, edo, ere, ala, bai, baino, baizik, ez, ezeze, ezezik, ezik*. Egiturok hitzak bata besteari lotzen laguntzen digute edukinei dagokien logikaz: *nai* batera, *nai* bestera, *naiz* gordin, *naiz* erreta, ama *eta* alaba, aita *eta* semea, gora *edo* bera, zuri *ala* gorri, *bai* gizon *eta* *bai* emakume, *ez* jan, *ez* edan, jan *ezeze*, edan *ere* *bai*, zeu *ezezik* gu danok *ere* *bai*, gu danok, zeu izan *ezik*, Ane *ez*, Maria *baino*, Maria *ez*, Ane *baizik*, etab. Ohartzea baino ez dago arketipo bakoitzak lokarrietan ere bere arketipoa analogizatu duela.

20 Egituraz *ino+bere>inobre* dator, *hoin/ino* latinak “*summo*” aldatzen du *summopere* forman.

21 *La Enseñza de Shurrupak*, 259-260, D.B. n° 26. Cf: Hizkuntza guztiak analogizatu dute arketipoen otsa eta ditzira, euskaratik latinera.

## ONDORENA

Jakinduria zaharra eta jakinduria berria ez dira elkarren aurka jarki, biak ere gizaki beraren eskarmenduko bai-dira: haurtzaroko gida bata eta adinduarena bestea. Hagatik euskal ikuspegitik “amatar jakinduria” deitu liezaiokie jakinduria zaharrari, An jainko egilearen alaba Inanak bezala, amek ere haren *me<sup>(s)</sup>*=aduez jabetu zirelako. Hagatik agertzen dira jakinduriaren jainkosa amak bai Sumerren eta bai Egipton, Nin-Sun batean eta Maat bestean eta jakinduria ama Israelen (Sir 15,2). Jainkosa hoi en izenaz eta eginkizunaz oroit da euskara eta euskalduna, hala Mariren aginduen marraz edo Maidiren maite-mainaz, halako magiaz eta bihozkeraz gizakien pausoak xedatzen zituztenak. Jakinduria zahar hau da Euskal Herriko hako amatar agintearen santzuetariko bat.

Hitz parekideen hizkuneak, berdinketakoak berere, hizkuntzako lehen ikasgaiak dira, izendegiko ots eta edukin parekideak bata bestearen ondoan taxutzeko eta elkarren kontrakoak nabaritzeko. Ahozko hizkunez erakutziz, analogiaren sustraiak azaltzen dizkigu eta ahozkatuaren soinu oroitze-teknika errazten.

Arketipoen monosilaboak, bokal ezberdinen soinu, zabaletik estura hartzen duen edukin multsoaz, antxinako onomastikaren lekuko dira. Giza arketipoak jainko arketipoko hitzak gizatuz formak eta edukinak bultzatu, gehitu eta aldatu zituzten, bien arteko dialektikaz hizkuntza harrotuz. Hizkuntzako aglutinaziook mitoe-tan nabari den jainko eta gizakien arteko harremanak baieztatu, hizkuntza kultura une bakoitzaren lekuko bilakatzen delarik.

Jakinduria zaharrak jainkoen ordena sinistu eta jarraitzen zuan, zuzena zelakotan: ona saritu eta gaiztoa zigortzen bai-zuan. Baina maiz bestela gertatzen zelakoa ohartzu, bere kabuzko ordain/ordena ezarri zuten, Hammurabi bezelako legelariak, 2.000 urte K.a., “begia, begi truk/bizia, bizi truk” eta horrelakoak harrian idatziz eta beteazoz. Gizartearen aurrera pausua izan zela dinoe batzuk, baina gizalegeak ez du Mariren marra edo Maaten “maite-legea” atzintzen, pedagogia bata bestearekin onean konpontzekoak bai-dira.



### III. HITZAREN ARTEZIAK

Hizkuntza soin bizia da eta soin zati bakoitzak bere zereginerako daukan gertutasunean agertzen da. Hitzaren konposagai diren arketipoak ez dute hitz barruan nortasuna eta edukina galtzen, nahiz hitza edukinez hazten duten. Konposagaiok banaka idazten ziran eta Sumerren *su.ap* esaten zena *ap.su* deitzen zan Akaden eta bietan antxinako uren *abyssu*<sup>(9)</sup>=*putzu* sakona adieraztera zetorren, euskarak eta gerkerak ere gogoratzen dutenez. *Utu+be>su-ap*, *Utu* zelako *ud* gozoen ixurlea eta, beraz, *putzuko uden uturria*. *Su.ap* formarekin *guk sube* oroitzen dugu, hako *putzu* sakona ustez *subetzarrak* inguratzen zuelako. Ur irakinaz prestatu edakiari ere *zopa* deitzen diogu. Analogiaren funtsa galdu duten hizkuntzalariak bakarrik esan dezakete hizkuntza gauza hila dela berez eta bizi hitzunen ahotan soilik bizi dela, norbere amaren izena ahotan duguno ama bizi bailitzan. Hori bai, berez hilak diren hizkuntzak euren jatorriaren berri ez dakitenen hizkuntzak dira, dela grekoa, dela latina.

Bokalak arketipoen lagun doaz aurretik edo ostetik: *An*, *Antu* Sumerren, *Ra*, *Maat* Egipton, adibidez. Gure tokizenetan euskal erderen jokerak ere nabariak dira: *Armentia/Ramonte*, *Erremendi/Remón*, *Itxumendi/Sumendi/Somonte*, etab. Batera zein bestera, berdina da arketipoen balorea eta tokizenaren edukina. Hala ere, arketipoen idearik ez duen hizkuntzalariak edukin ezeberdineko izentzat emango lituzke *Itxumendi* eta *Sumendi*, etab.

*Ainamendi* izena *Montaine* egitean, aurrizki zegoena atzizki jartzen da eta hizkuntzan aurrizki/atzizkien idea eta gaia sortu zuan. (Ikus 15°, 16° laburgoetan) Edukinari dagokionez, euskaldunek ba dakite *Ainamendi* noren mendia den, erdaldunek, ordea, galdu egin zuten ZER/NOREN erreferentzia eta *Montaña* "mendi handitzat" edo "mendi multzotzat" daukate, ez "Anen menditzat".

Hizkuntzak, hitzak forma ezberdinetara ugaritzen ditu ideen progresiorako eta gauzak zehatz-meatz adierazteko bokal ezberdinak erabiltzen ditu, arketipoagandik hartzen duten partearen neurriko zabaletik esturako ahozkeraz, *ama/ime* adibidez, edo konsonante alofonoez sebitzatzen dira hizkuneak elkarrenga-

nako duten eragina, konkretoa eta abstratoa dena, materia eta espiritua, zioa eta ondorea bereizten datozela.

Tokizenak arketipoen itzuliketaz baliatu dira, izen berriak sortzen. Tokiak txatalka banatu zirenean, euren izenak ziran haien dokumentu bakarrak. Jabea maiz toki harexen izenetik ezagutzen zan, gaur ere abizen gehinak erakusten dutenez. Tokiak eta jabeak ugaritzen zirelarik, izenak ere ugaritzen joazen eta izenak ugaritzeko era bat, arketipo berberak atzekoz aurrera ipintea izan zan: *Tobia/Bedua*, *Ainara/Arene*, *Atela/Eleta*, *Atelega/Elgata*, *Ainibar/Barreina*, etab. eginez. Balore berdina zuten, soinu ezberdina. Handik ikasi zuten hitz arruntetan ere joku bera egiten: *muru/orma*, *torri/erdu*, *orga/carro*, *iloba/biloi*, *izaki/giza*, etab.

Hitzaren barneko arketipoen itzuliketa aurrizki-atzizkien muina-rekin bat dator. Aurrizki-atzizkiak direla itzulikatzen diren zati soilenak, nahiz eta euren artean aglutinadoak ere egon. Jainko santutegien (mendien) izenetan agertzen dira argien itzuliketok, eta euskerak izenaren aurrean jartzen duena erromanikoeak ostean jartzen dutela ikusten da eta, alderantziz, sintaxian euskarak ostean jartzen duen lokarria erderok “preposizioz” jartzen dutela.

### 3.1.1. An arketipoko izenen itzuliketak

Mendiak jainko santutegiak dira eta *Ainamendi*, *An* jainkoaren mendia da, *Ainomendi*, *Anu* jainkoarena bezala. Nola jainkoa, hala deitzen da mendia. Erderaz *Monte Ainu* zena, *Montaño* gelditu da. Tokizen arruntetan, nabariagoa da aurrizki/atzizkien lehia: *Anakabe/Kabana*, *Ainorga/Organya*, *Ainesta/Estaina*, *Aniellarra/Larraine*, *Nagore/Gurena*, *Nora/Arano*, *Onarte/Artaun*, *Uncastillo/Castellón*, *Inurria/Uriain*, etab. Arketipoen joskera honek *An* arketipoko aurrizki-atzizkiak nabariazi eta gramatika-ako lanabes trebea sortu zuan hizkuntza gehienetan.

Tokizenero arketipoen itzuliketa jokoak hitz arrunta ere kutzatu zuan, edukin berriko edo antzeko edo kontrako hitzen bila, bai eta hizkuntza batetik besterako mailebatuen itun bezala. Adibidez *Inko/goien*, *Inka/Ekain*, *Inko/eikon*<sup>(g)</sup>, “Jainkoa/Jainko irudia”, *Enki/gehien*, *nemeki*<sup>(bal)</sup>/*ekimen*, *Nergal*<sup>(s)</sup>/*galarren*, *Antu*<sup>(s)</sup>/*Done*, *Maat/*

## 12° laburgoa: AURRIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
ana-/ama-	ato-/to-	arra-/ra-	lo-/lu-	be-/fe-	aka-/ca-	etxa-
an-/am-	att-/atx-/ad-	erre-/re-	li-/lli-	ep-/ef-/epi	oko-/co-	se-/ze-
on-/un-	otia-/oit-/oiz-	era-/ere-	ale-/ela-	upo-	oc-/ec-	ja-
in-/im-	txu-/xu-/su-	ar-/er-	el-/al-	para-	kana-/gana-	ez-
en-/em-	so-/oz-/uz-	ira-	ela-	por-/pro-	kata-/gata-	as-
ante-	sub-/sun-	oro-	la-	ber-/per-	oki-/ki-/com-	eis-
andi-	dis-/dans-	uru-/ur-	al-	uper-	kala-/gala-	ex-/es-
amfi-	tra-/trans-	urru-	alla-	pre-/pro-	kara-/gara-	s-

Ohar: aurrizkiak izenen eta tokizenen osakeran erabilten dira euskarari, greokoan, latinean eta erromanikoetan bederen eta denen sorgua berdina da.

Dame, muru/orma, amarra/arma, neke/gana, ñaka/gaiña, handi/adin, amatau/atzamau, nisi/sino, animalia/alimaña, etab.

### 3.1.2 Utu arketipoko izenen itzuliketak

Utu jainkoaren mendiak edo *ate* > *atx* > *aitzak* bere sartu-urtenekin zerikusia dute, direla *Otamendi/Montoto*, *Itxumendi/Menditxu*, *Atamendi/Mendata*, *Aizmendi/Mundaiz*, etab. Gainerako arketipoekin berdin jokatzen du, adibidez, *Atuzarra/Txarratu*, *Atallo/Ollate*, *Otarro/Arroita/Roda*, *Otabarro/Barrueta*, *Ato-txa/Ozaita*, *Diuna/Unite*, *Demanda/Mandaita*, *Dubiri/Biriatu*, *Daran/Arandia*, *Odiaga/Gaudi*, *Atarre/Darrat*, *Otxola/Olatxu*, *Tobia/Bedua*, *Ituino/Anitua*, *Otegi/Gioto*, *Atxuri/Urritxe*, *Atxurra/Urretxu*, *Uxarra/Errioxa*, *Osate/Tossa*, *Atarre/Arza*, etab. Itzuliketaren jokoak eraskusten digu *Utu* arketipoak atzizkian har litzazken formak. (Ikus bere aurrizki-atzikiak 11°, 12° laburgoetan)

Jainko izen edo hitz arruntetako arketipoen itzuliketari helburu ezberdinak ikusten dira: *Aton*<sup>(e)</sup>/*Antu*<sup>(s)</sup>, *Ozti/Theus*<sup>1</sup>, *Terra*<sup>(l)</sup>/*Arthe*,

1 Zenbat asmakizun Attian, Kretan eta Grezian aurkitzen den jainko hau eta berdin eskandinabiar edo doxtar *Thor/Donar* jainkoak indoeuropear egitekotan, erroa Antxinako Sortalde Hurbilean eta oroitza geurean dutelarik! Kretan *Idamendi* santutegian ospatzen zan Neolitos garaitik. (Wathelet, P. "Minoica y micénica (religiones)", DR, o.c., p. 1183-1184) Gure artean *Atximendi*, *Mandaita*, *Ostamendi*, *Orusemendi*, *Urresumendi*, *Urrizmendi*, etab. aurkitzen dira edo >

*Thor*/Urzi, *Martu*<sup>(s)</sup>/*Donar*, zein jainkori lehentasuna emon edo edukin pixka bat aldatu: *atera/urt*, *atari/arte*, *aterri/arte*, *tori/hartu*, *torri/erdu*, *torri/urt*, *sor/urt*, *iduri/irudi*, *turrere*<sup>(l)</sup>/*erretu*, *uturri/urtzu*, *iter*<sup>(l)</sup>/*ruta*, *itera/orzo*<sup>(g)</sup>, *tour*<sup>(l)</sup>/*rota*, *duro/rudo*, *tuer*<sup>(l)</sup>/*ertu*, *tueor*<sup>(l)</sup>/*ortu*, *zoro/ertzo*, *dornadu/rotundo*, *sir*<sup>(n)</sup>/*eresi*, hizkuntza batetik besterako mailebatuak egokitu asmoz, hala *atarbe/borta*>*porta*>*puerta*, *torrekua/gotor*, *sole*<sup>(l)</sup>/*elios*<sup>(g)</sup>, *usna/nasu*<sup>(l)</sup>, *ospea/boza*, *zabale/plaza*, *dies/asti*, *oztopo/obsto*<sup>(l)</sup> edo edukin beretsukoak analogizatu, *ixipu/ipitx*, *dona/antu*, *duin/aintu*, *ttona/natu*, *udug*<sup>(s)</sup>/*goaita*, etab.

### 3.1.3. Ra arketipoko izenen itzuliketak

*Ra* arketipoan ere tokizenak dira aurrelari eta mendien izenak gida, *Aramendi/Mendiaria*, *Erremendi/Monterré*, etab. Berdin gainerako arketipoekin; *Arrate/Atarre*, *Artola/Dolare*, *Arika/Garia*, *Argatza/Gatzari*, *Erize/Izarai*, *Eresuma/Somera*, *Oribar/Ibarruri*, *Oriol/Oilora*, *Iriola/Olaria*, *Urgell/Gallur*, *Ireland/Landera*, *Ermón/Moner*, *Turriz/Zizur*, etab. Adibideok nahiko dira *Ra* arketipoaren atzizkiak zeintzu diren jakiteko.

Izen arrunteko arketipoen aldaketetan arketiporen baten atxikitakuna izaten da eragile eta zentzu berean edo antzekoan egiten da hizkuntzan eta mailebatuetan. Hala *ra-mu*<sup>(e)</sup>/*amore*<sup>(l)</sup>, *erran/narro*<sup>(l)</sup>, *arte/atari*, *arte/aterri*, *irrits/tirria*, *reza/zar*, *orga/carro*, *urt/atera*, *amarra/arma*, *rubu/burru*<sup>(l)</sup> "gorri", *Renenet*<sup>(e)</sup>/*andere*, *ordain/denariu*<sup>(l)</sup>, *uritu/tueor*<sup>(l)</sup>, *urbe/burü*, *orza/tarro*, *orots/toro*, *orots/txoro*, *urruxa/uxor*<sup>(l)</sup>, *arlo/alor*, *edere*<sup>(l)</sup>/*erdi*, *ertain/inter*<sup>(l)</sup>, *atari/erte*, *herremail/malaria*, *artazi/tixeira*<sup>(ga)</sup>, *arriba/bar*<sup>(awam)</sup>, *erraldoi/eldro*, *errape/ubera*>*ubre*, *rugitu/guture*<sup>(l)</sup>, *arribe/ibarre*, etab. (Ikus *Ra* arketipoaren aurrizki-atzizkiak 11°, 12° laburgoetan)

### 3.1.4. Ilu arketipoko izenen itzuliketak

Arketipo honen sorterrria Akate da eta Feniziatik zehar dator bere ospea, mendi izenetan santutegia idorotzeraino, *Uliamendi/Men-*

>*Martxo*, *Martu* jainkoari eskenitako ila, *martopil* donario errittoa, eta "ondo egiok landerrari eta Jainkoak dikek *donari*" esakuna. *Donari*<*Donar*<*Aton*+*Ra* jainkoen aglutinazioa da, "dohaina" adierazten. Ohar *durunda*, *durmienda*.

*dilu, Montoliu, Olamendi/Mendiola, Almonte/Montiel*, etab. Gainerako izenetan ez da ain ugaria, baina bere ereduak utzi du: *Elize/Izal, Ullate/Atallo, Ollate/Tahull, Olarte/Artola, Olaberrri/Ferrol, Ilosa/Otxoil, Loza/Zalao/Zallo, Lotina/Antelu, Eltxe/Etxela, Legase/Casale, Lagorria/Korella, Laburdi/Bordel, Lakarra/Carral, Lakurde/Kordel, Laboure/Borrel*, etab. Tokizenetan emanak izan dira aurretiaz *Ilu* arketipoaren atzizkiak.

Izen arrunteko arketipoen itzuliketan zentzu beretsuan edo kontra-koan dator, dela hizkuntza bereko hitzetan edo mailebatuetan. Hala *hildu/suhil, elish<sup>(a)</sup>/zeli/ciel<sup>(i)</sup>, lemnu<sup>(bab)</sup>/malu<sup>(l)</sup>/memelo, lamina/mamala, alaba/baal<sup>(h)</sup>, iloba/biloi, love<sup>(i)</sup>/fileo<sup>(g)</sup>=vollo<sup>(l)</sup> “maitatu”, litx/isla, melek<sup>(h)</sup>/makila “errege/makila”, alapa<sup>(o)</sup>/pla, laskitu/saskildu, lur/arlo, lupu/bull<sup>(o)</sup> “otso/zezen”, lutu/dolu, laza/zale, leize/zelai, leka/kale, otsalar/larrosa, hilemotx/mutxil, alagai/galai*, etab. (Ikus *Ilu* arketipoaren aurrizki-atzizkiak 11°,12° laburgoetan)

### 3.1.5. *Ka* arketipoko izenen itzuliketak

*Ka* giza arketipoak ere bere *okeluei* izena ezarri zien eta tokizenok argitasun doblea lortzen dute arketipoen mugikortsunean, gure izenen urrenoko lehengusuen ezagupidea egiten duela. Bere meneko mendiei izena ezarten die: *Gamendia/Mendiaga, Ikomendi/Mendiko, Egomendi/Mondego, Garramendi/Moncarra, Kanamendi/Mendigaina*, etab. Halatsu gainerako tokizenetan: *Egues/Eskue, Ekoiz/Izko, Okola/Olako, Okurri/Irujo, Okaran/Arango, Akandia/Andiaga, Egibar/Ibarregi, Coria/Irigo, Kabarre/Barka, Igartua/Artiga, Akarrate/Arzak, Akandia/Antich*, etab. formetan ikusten ditugu *Ka* arketipoaren aurrizki-atziki formak.

Arketipo hau hitz arruntetako itzuliketak egitera prestaten da, zentzu berean, antzerakoan eta kontrakoan edo mailebatuak egokitzerakoan. Hala *orga/carro, ataka/gate<sup>(i)</sup>, túnica/giton<sup>(g)</sup>, toca/kota, rueca/goru, izaki/giza, leku/okelu, loku/occulu<sup>(l)</sup>, cutos<sup>(g)</sup>/scutu<sup>(l)</sup>=custos<sup>(i)</sup>/eskutu, custodiar/eskutatu, gabe/bage, atacar/acatar, neke/gana, sorga/gezur>cazurro, negar/ganar, akats/cacha/ achaque, umeko/kume, meko/kume, kaxa/jaka*, etab. (Ikus bere aurrizki-atzizkiak 11°,12° laburgoetan)

### 3.1.6. Ba arketipoko izenen itzuliketak

Ba giza arketipo honek tokizena deskribatzean, *abbay*<sup>(et)</sup>/*ibaia*/*behe* aldea du kontuan eta izen barruan itzuliketak egitean agertzen du onomastika familiako nortasuna. Bere babeseko mendiei izena ezarri die: *Ibamendi/Mendabia*, *Bamendi/Mendibe*, *Bamonte/Piamonte/Mondovi*, etab. Berdin gainerako tokizenetan: *Abaurrea/Orba*, *Barria/Arriba*, *Ibarri/Arribi*, *Ibaseta/Estebe*, *Ibiza/Izabe*, *Bastida/Astizabea*, *Beina/Nabea/Nieva*, *Bedoina/Doñapea*, *Begorta/Gurtubai*, *Bisko/Eskubi*, *Bordairi/Ordriarp*, *Bariza/Rizafa*, *Bola/Olabe/Olaf*, etab. Adibideekin ba dakigu Ba arketipoaren atzizkiak ze eratakoak diren.

Izen arruntetan arketipoen itzuliketak antzeko edo mailebatuko idea bilatzen du. Hala *Su.ap*<sup>(s)</sup>/*Apsu*<sup>(a)</sup> “*iburni*”, morfe<sup>(s)</sup>/*forma*<sup>(l)</sup>, *loiba/biloi*, *alaba/baal*<sup>2</sup> “*jaun*”, *arriba/ba*<sup>(aram)</sup>, *neba/van*<sup>(al)</sup>, *ibar/riva*, *ibarre/arribe*, *baldi/ debile*<sup>(l)</sup>, *botere/tabor* “*indar bildua*”, *besabe/babes*>*pavés*, *beharte/deber*, *abele/aleve* “*etoi*”, *menpe/woman*<sup>(i)</sup>, “*emakume*”, *errape/ ubera*>*ubre*, *atabal/valde*, *deberre*<sup>(l)</sup>/*behartu*, *barraca/gabarra*, *Áfrika/cafre*, etab. (Ikus bere aurrizki-atzizkiak 11°, 12° laburgoetan)

### 3.1.7. Ax arketipoko izenen itzuliketak

Ax arketipoak ere bere esparruko mendiei izena ezarri zien. Horrela *Etxamendi/Montache*, *Esmendi/Montes*, *Eizmendi/Mendexa*, *Ezamendi/Méndez*, etab. Gainerako atzizkietan formaz ugaria da: *Etxalar/Larretxe*, *Serra/Arrese*, *Etxabe/Betxi*, *Etxabe/Beach*, *Isasi/Zize*, *Eskola/Kolitzza*, *Etxepare/Pareja*, *Ezama/Maeza*, *Iskar/Karreze*, *Ezaurte/Ortez*, *Txiuri/Uriz*, *Ezostea/Ostes*, *Izurdia/Urtiz*, *Ezarte/Arteiz*, *Estibil/Tibilis*, *Txaran/Aranaz*, *Senekue/Nekuesa*, *Sarria/Arrias*, *Secontia/Condes*, etab. Arketipoen itzuliketatik ezagutzen da sarritan tokizena edukina, batera ez bada, bestera argiago agertzen delako. Horra Ax arketipoaren atzizkiak ere. (Ikus 11°, 12° laburgoetan)

2 Jakinduria zaharraren arabera, euskerak emakume-izenak jainko arketipo aurritzituez deitzen die “*arriba*, *alaba*”, jainkoen mendeko aitortzen direla, *balu*<sup>(w)</sup>, *baal*<sup>(w)</sup>, *biloi*, *bargazta*, *women*, etab. formak ez bezala.

Izen arruntetara ere heldu zan itzuliketaren jokua, zentzu berean edo ezbardinean, izen jator edo mailebatuetan, hatan ere. Hala *esku/cosa* "derecho/causa", *egoitz/esku, esku/kutxa, espa/petxa, eska/kexa, gaitz/achaque, eskar/garatz, escote/coste, esol/olesi, esto/toxa, esol/oltza, urtzi/zeru, elish<sup>(a)</sup>/zeli, zil da/licet<sup>(0)</sup>*, etab.

### 3.2. Hitzaren eta aditzaren joskerak

Orain arte hitzak elkarrengana hurbildu baino ez ditugu egin behin-behineko mezuetarako. Orain hitzak josteko haria idoro dugu atzizkietan, hitzak NOR/ZER, NORK/ZERK, NON/NOIZ, NOREN/ZEREN, NORI/ZERI kasuetan ezarriz, euren artekoa argitu eta aditzekin duten harremanak jokatzekotan. Kundera ez da atzizkiz zehazten, ezpaere arrak eta emeak izen berezietz ematen dira, sumerieran bezala: *andre/gizon, neba/arreba* eta egitura bereko izenaz ez dira biak aipatzen, ezpaere, *seme-alabak, neska-mutilak*, etab. eratan.

NOR/ZER kasuan forma zehaztugabeak eta zehaztuak ditugu: *mendi/mendia*, adibidez. Forma zehaztuak izena bakarika aurreratzen digu berataz zerbait esateko: *mendia handia da/mendia ilun dager*, etab. Zehazte forma berau ezagutzen zuan sumerierak<sup>3</sup> ere: *udu.ha<sup>(s)</sup>= idi+a*. Hareago, han bezala gurean, edozein adizkera edo esaldi izenaren baloreko egiten da, ostetik *-a* erantziaz bakarrik: *etorria, egina, egin duzuna* eta hitzak eta esaldiak atzizkiz lotzen ditu. Adizkiak *-te/-tze* atzizkiez lortzen dira: *jote, egote, etortze*, etab. Izenlagunak izenaren ostean doaz: *ama laztana, mutil mazala*, zehaztasuna atzenean doala. Aditzek aurrizki, artizki eta atzizkien bidez lotzen dira izenekin, sumerieran bezala: NORI *dakarkio, ekarri, erregalia?* Semeak *amari*. Indazu *mesede*. NORK NORI *in dio/deutso mesedea?* Inkoak *behartsuari*.

Hitzaren joskeran izenak eta izenlagunak, kasuak, txikitasunhanditasun seinuak kontuan izango ditugu, orobat aditza eta aditz laguna, aginte oihuak, aditz soila eta lagundua, arketipoz arketipo.

3 Sumerieraz esanen berri, ikus BERGEMANN, E, NOBER, P, "SUMER-RI", Enciclopedia Cattolica, E. C. del Vaticano, p. 1504.

3 NOIN/ZEIN geroago *noren/zeren* gertatu ziran, bakoizkoa ugarikotik bereizteko: *amarena/amena*. Forma herrikoia da *noina=norena*.

### 3.2.1. An arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak

An arketipoaren atzikien zeregina NOIN<sup>3</sup>/ZEIN, NOREN/ZEREN eta NON/ZERTAN, NOIZ kasoak lotzea da, bereak direlako gurasotasuna, uneak eta mendeak. Gurasoek dakite NORENA den umea: “aitena ta amana ta zeruko Jaunena” abestu ohi den bezala. An aita, Nana “Anen alaba, ots, Anena, “ene alaba”. Hortik “amaan > amain gona” eta “ene seme”. Nin.Nana<sup>(6)</sup> “Andre Nana” “Anen alaba” hala aitortzen zuten Sumerren, eta genitibo kasua -ena/-na/-en/-in atzizkietan egina dager. NORENA? Anena > Nana, enea. Hori zan An jainko nausiaren me=adua jaso zituen alaba, hain handia baizan, Ur uriko Eannan handiesten zuten jainkosa. NOREN kasuan doaz abizen batzuk, hala Mitxelena, Danborenea, etab.

NOREN kasua da ZEIN bereizgarria ere: “ZEIN da, beraz? Aduak jaso zituena. --Eanna, zikuratean goresten zena”. Beraz, tiro baten txori bi, kasu berekin erlatiboak ere eginak bai-dagerz. Forma bera jarraitzen dute NUNTAR seinua dutenak. Hala euskaldun, gaztelania, manesina, katalan, erriogjanu, amerikano, etab.

ZEIN kasua gonbaratzeko eta gehiengoaren seinua ere ba da. An handia zan, baina Nana hain handia. Ur urian handiena. An aita bezain handia. Beraz, Nana, hain ederra izanik, ederrena zan, “ene maite maitena” bezala. Santuen tituluetan en<sup>(6)</sup> “apaiz gurena” aurrizki edo atzizki erabili izan da: Endone/Doniene, Enan-geru/Angeruen, etab. (Ikus gonbaratzekoak 15° laburgoan)

Kaso honen santzuak Ugariten eta Israelen agertzen dira baitik bat. Iluren Balu semeari *alyim=alaen/alen*<sup>4</sup> deitzen zioten, gaur Europa ta Ipar-Amerikan Domusanturu bezperako egunari bezala edo euskaldunak *Olen+zaro* neguko garai eta mezuari bezala. *Alyim* “ahalena=ahaltsuena” esatera dator. Bide beretik Israelen *Elohim* deitzen zioten jainkoari eta “Jainkoena” edo “jainko

4 *Ilu=Al* da, beraz, *Alaen>alen* edukianak “ahalena=ahaltsuena”, ots, *Al antzekoena*” esan nahi du berez, baina burlezar erabili ohi da “tonto *alena*” bezalako esakeretan. “Tontoa *halakoa*” da gonbaratze soilean. Burlezar hartze hau Sumerretik dator, han ere *Ilu* erdi jainko eta erdi deabru bezala hartzen bai-zuten, *hil*, *hildu*, *ahul* edukinak beragandiko analogiak, hari egotziak, direlako. (LIMET, H, “DEMONIOLOGÍA (religión sumeria y acadia)” DR, p.416)



## 13° laburgoa: ATZIKIEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	SHE
-en/-ana/o/-n	-tu/a	-ar	-illu/a	-bé-pen	-ica/o	-tze/-txe
-enea/-ain	-tio/a	-er	-la/-le	-ava/-va/o	-oko/-ku	-es/-s
-ania/-ina/in	-ti/-di	-ara	-ullu/a	-ba/-bia	-ego/-go	-ez/a
-eina/-ein	-tto/a	-aria/o	-el/a	-via/o	-ki	-sia/-iz/-ich
-aña/o	-dui/-ito/a	-aire/-er	-lo/a	-pia/o	-egi/-gi	-za/-z
-ona/-on	-txu/i/-ich	-era/o	-lř-lia	-fa/o	-cáo	-ese/a
-une/-un	-so/-xo/-jo	-iri	-il/-l	-ap/-p	-aca/-ac	-ex/-ech
-men/mendi	-su/-ju	-ur	-al	-av/-v/f	-aga/-age	-esse/-ssi

Ohar: Atzikien soina aurizkiena bera da, nahiz batzuen eta besteen zeregina ezberdina izan izenaren konposizio eta erlazioan. Atzizkiok Europa guztiko tokizen-abizenetan aurkitzen dira.

en Jainkoa” edo “Jainkorik Jainkoena” ulerten zuten.

NOIN/ZEIN kasua eta HAIN gonbaraketen mitoa eta egitura euskarak ezeze, beste hizkuntza askok ere oratu ahal izan zuten Sortaldetik Sartaldera. Hitz asko goi/goena/guena egituraren arabera sortuak izan dira: *me*<sup>(s)</sup>/*mena*, *ante/antena*, *orde/ordain*, *ordo*<sup>(0)</sup>/*ordena*, *este/estena*, *hora/orena*, *ara/arane*, *see/seena* > *seina*, *more/morena*, *morro/morrena*, etab.

An familiako nausia ezeze, tokien eta aldien jabea da, beraz, NON/ZERTAN, eta NOIZ egituren eredu ere bada, mitologikari jarraituez gero, eta euskarak logika horri erantzuten dio, NON/ZERTAN edo NOIZ galdetzen duen bakoitzean. “NON, beraz? --Zeruan, mendian. NOIZ=ze ordutan? Eguerdian, hamabietan edo eguzkia beheratzean”. ZERTAN kasua *-n*, *-tan*, *-ten*, *-ketan*, *-zun* atzizki soil edo konposatuez lortzen da: “ZERTAN ari da, edo joan da? Pilotan, alhan, perretxikotan, urzun, jaten, ekarten, garbiketana”, etab. NONDIK egiturari *-n+eti/-etik* konposizioan erantzuten dio: “Markoseneti, zuenetik, Filipatxonetik, etab., NORENTZAT kasuan *-n+tzat* bezala: *guztiontzat*, *txakurrentzat*, *gizonentzat*, *zuretzat*, etab.

Egitura berari erantzuten dio *-ondo* atzizkiak tokizenetan bezala. (ikus 3° laburgoan) Hala *gibelondo*, *betondo*, *ukondo*, etab., orobat edozein frutaki: *sagarrondo*, *ikoondo*, *gereziondo*, etab.

NOIZ mendearen magala aditzera ere zabaltzen du An arketipoak,

bera bai da *antxina*, *aintzina*, *hanarte* eta *ainzina*, NOR bera ere oraingoan aldiari, *nator*, *naiz*, etab. jartzen duela eta igaraneko *antxinean*: *nintzan*, *nentorren*, *nenkarren*, *nindekarran*, edo dator-keneko *ainzina* joaz: *nentor*, *nentorke*, izanen naiz, ekarriren dut, etab., *An/Inuren* mitoa eta errittoa halako kuxidatez oratzen dugula, aldiak adierazteko aditz-hizkunean. Hor agertzen da hizkuntza, euskara berere, antxinakoen jakinduriaz jantzita dagoela. Aditz lagun batzuetan ere NOIZ kasu seinalea gehiengoan ikusten da: Hala *lehen*>*lein*, *beena*>*behin*, *behinola*, *oin*, *hein*, *orena*>*orain*, *olim*<sup>(1)</sup>, *jam*<sup>(1)</sup> formetan ikusten denez. (Ikus 14° laburgoan)

Adizkera asko *An* arketipo bidez osatzen dira *-an*, *-n*, *-ni*, atzizki-tan: *joan*, *jan*, *eman*, *etzan*, *xin*, *ekin*, *egin*, *jakin*, *egon*, *emon*, *ipini*, *memini*<sup>(1)</sup>, *duxmai*<sup>(9)</sup>, *istemi*<sup>(9)</sup>, etab. Eta mitoaztertuz gero, *jo+an*>*xuan/xin*, *joan/jun/jin* edukina Utu iduzki mugida da *An*=zeruan.

Izen eta aditz askok kategoria berria jaso ohi dute, orokortasunari begira, batez ere, *An* arketipoa *an-*, *ana-*, *am-*, *en-*, *in-*, *im-* aurrizki hartuz gero, bai euskarari eta bere inguruko hizkuntzetan. Hala *enangeru*, *enanzu*, *engoxan*, *enardatu*, *enbalditu*, *engreinatatu*, *engoji*, *anbildu*, *anpatu*>*empachar*, *anabaino*<sup>(8)</sup>, *amparar*, *engreirre*, *enbarazu*>*enbazu*, *inausi*, *imponere*<sup>(1)</sup>, etab. Orobat *ante-*, *anti-*, *andi-* aurrizki konposatuz, *andietsi*, *antuste*, *antepoener*, *anteire*<sup>(1)</sup> edo osteria, *antinomia*, *antífesis* bezalako formetan.

NOKA jokatzeko adizkerak ere, sumeriarraren santzua dute, bada *eme-sal* hizkelkia salmu, bertsogintza eta jainkosekin berbetako erabili ohi zan, *eme-ku* hizkeldi ofizialaren ondoan. Hagatik bide da euskarazko “*egin dun/duk*, *etsin/etsok*, *indan/indak*”, etab. formen lekukotasuna, bata Nana jainkosaren tenplorako, eta analogiaz emazteekin NOKA elkarrizketatzeko eta bestea, merkaturako eta gizonetikiko toka traturako.

*An* arketipoa ugaria da *men/mende/mando* adierazten duten *mendi*=*temenos*<sup>(8)</sup>, bezelako izenetan eta *-men/-mendi/-mentu*<sup>(1)</sup>, *-mientu* atzikiak sortu ditu. Hala *ikusmen*, *ekimen*, *agmen*<sup>(1)</sup>, *volumen*<sup>(1)</sup>, *ondamendi*, *fundamentu*, *salbamendu*, *mercimiento*, etab. Atzizki berari *-pen* bezala gizatu dago: *erospen*, *irakaspén*, edo *-kizun* giza ekintzarako seinu konposatuan: *egikizun*, *esankizun*, etab.

14 <sup>a</sup> laburgoa: ADITZLAGUNAK: NON, NOIZ, NOLAKO, ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
noiz,inoiz				cuándo		
antxina,ein	atxina	arkhe	lehen/lehin	cum	behin	ia,jam
ante'antes	oxtian'adesa	arsa	olim	garaiz	pronto/behingoz	cito
anarte'end	edonoiz	aurton	laster	gaur	hodie/hoy	semper
mane'on'oin	etzi/despés	orduan	lehengoan	goiz	bihar/berant	jamás
nunc/nunca	juis/tunc	orain	luego	gero	postea/fine	atzenez
unquam	atzo	eri	aliquando	ekiz	behinola	ayer
nocte	tarde	arainegun		gauzez	bart,belu	saepes,ari
interea	tandem	artean	ilimini		beti	sero
NON/inon	dónde				ubi	
an/ana	edonon	arriba	allí,illic	gain/gan	bean/ibi	aiz
aindi/unde	ostean	orra,or	allá	gora	bertan'post	cerca
ona,emen	sub/supra	ur/ara	lekutan	kemen'gertu	hemen/prope	asau
ani-ani	tras/at,ate	urrun	lejos	kona'aquí	hona,hic	asago
entre	todavía	artean	longe	acullá	biran	
NOLA/inola				cómo		
ondo,ongi	ederto,tal	arin,rápido	holan	gaizki	bien/bon	sic,así
mal/nunbait	super	rare, orrela	largamente	kola	hola'honela	txarto
HAINBAT				cuánto		ZENBAT
mucho	tusto'ostaz	arras	lar		aboro'behin	asko,aski
nahiko, nada	tot,osoro	urru'urri	luze	gutxi	poco, apenas, harto	eskaz

*Anen uneko* dira *-one/-on*, *-ma* eta antzeko akabera duten hitz asko. Hala gizon, *varón*, *peleón*, *oratione*, *misione/misión*, *bilduma*, *fone-ma*, *leucemia*, gehiengoaren araberako: *-en*, *-ena/o*, *-in*: *gizen*, *ozen*, *orena*, *orden*, *antena*, *guen*, *kin*, *adin*, *orin*, *morena/o*, *etab*.

Alofonoetan *M*, *Anum/Amon/Maat*, *Mut*, *Mari* jainko/jainkosengan bezala, partekidetasuna *mandotzen* dator: *ama*, *madre*, *maite*, *etab*. Bere antzeko dator *N* *An/Anu*, *Nana*, *Nintu*, *Nut*, *Anderexo*, *andre*, formetan eta *nimino* egiten *N+i>Ñ* soinura: *niño*, *ñiñi*, *nimiu*<sup>(1)</sup> < *nimino* eta horixe adierazten du *-ño/-iña/-inha* atzizkietan: *andereiño*, *señorinha*, *neskaiño*, *moziña/mozinha*, edo aurrizkiz *ñekato*, *ñiñi*, *inor*, *ñiu* formetan.

Bokalen ahozkerak ideki/itxiak arketipoagandik asko edo gi-txi hartzen duten multzoa adierazten dute: *An en/ni/mi*, *hain*, *hein*, *ama/ume/ime*, *man/men/min*, *ama/aina*, *nana/nene/niña*, *nano/nene/nini*=*enano*, *major/minor*<sup>(1)</sup>, *mendi/muino*, *nor/inor*, *nam/enim*, *eman/imini*, *etab*.

### 3.2.2. Utu arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak

Utu arketipori ZER-egina edo ZER-jasana adieraztea dagokio eta *-te/-tze* atzizkiez baliatzen da: *egite, osatze, jasate*, etab. Adizkeren ZER, lehen NORK eta ugaria adierazten du *da-/d-/di-/da-*, *-t*, *-te*, aurrizki edo atzizkiez: *dago, dakart, deutsot, diote, dut, ditut, dituzte*, etab.

Noiz aldizkakoa *-te* atzikira: *Inote, eurite, ixurrite, legorte*, etab.

Ekintzan edo jasanpenean lortua edo hatara sagaratua adierazten du sumerieratik hona<sup>5</sup> euskeran eta erromanikoetan, *-tu/-du* atzizkien bidez. Hala, *naditu*<sup>(s)</sup>, *gudu*<sup>(s)</sup>, *amatu*, *agertu*, *debotu*, *maritu*<sup>(l)</sup>, *adicto*, *oblato*, *donadu*, *amado*, *sagrado*, etab. Egitura hoietatik sortu dira *-txu*, *-txo*, *-tzo*, *-tso*, *-tsu*, *-so* zelakotzaile eta ugari-tzaileak, hala, *amattu*>*amatxu*, *amado*>*amatxo*, *laztandu*>*laztan-txu*, *zindo/zintzo*, *mando/mantso*>*manso*, *zoriondu*>*zoriontsu*, *argitu*>*argitzu*, *formatu*>*formoso*, *falto*>*falso/a*<sup>6</sup>, *ederto*, *keto*>*geixo*, *polito*>*politxo*, etab., jokera eta multzoa adierazteko *-ti*, *-dui*, *-di* atzizkiak: *gaisotu*>*gaisoti*, *loretu*>*loreti*, *edertu*>*ederti*, *mahastui*, *sagardo*>*sagardi*, etab., orobat, *manzanedo*, *pinedo/pinudi*, etab. haien analogiara sortuak. Bai eta ere bigarren belaunaldia adierazten duen *-so* atzizkia: Hala *aitaso*, *ilobaso*, *haurso*, *arbaso*, etab. Hortik bide dator erromanikar *so-/zo-* aurrizkia ere: *sobrino*, *zopenco*, etab.

ZEIN egiturako *-tun*, *-dun* atzizki bereizgarri bi sortu ditu, batak ekintza adizkerekin, lanbidea dinoena, hala *jakitun*, *jostun*, *eros-tun*, etab. eta besteak *-dun* “duena, daukana”, *dirudun*, *ogidun*, *urdu*, etab. Era berean erabiliak dira *-duru* “duena” adierazten: *zorduru*, *haiduru* eta *-zur* “zaletasuna”: *amazur*, *umezur*, eta, beraz, *hogenduru/hogenzur*. Gehiegizko akatsa dino *-zto* atzizkiak: *zorritzto*, *zapazto*, *baspizto*, etab. eta xumetasuna *-sta* egiturak: *zurista*, *bagasta*, *egista*, etab.

5 Sumeriar *-tu/-du* atzizkiek sagarapena adierazten dute: *anutu*, *naditu*, Anu jainkoari oparituak, *tutu*, *ilutu*, Utu edo Ilu jainkoei eskeiniak, *sekretu*=emazte, *gudu*=apaiz, *kadishtu*=*lilitxo*, zeregin berezira emanak. Sumerioak, euskarak bezala, forma bera darabil kunde bientzako, latinak eta latina-uek, ostera, *-tu/-ta*, *-du/-da*, *-so/-sa* egiturez bereizten dute.

6 Ohar zapaidurak *tu>tto>txo>zu* en *amattu*>*amatxo*, *falto*>*falso*, etab. edo gaurdainoko *semeto/semeso*, *mendito/menditxo* bezalako formak.

## 15° laburgoa: AGINTEZKO ADIZKERAK (OIHUZKOAK)

ANU	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
indak	to,tori/toma	orizu,orzu	lege	iguk	bida/bea	txek/txen
emak	otso/eutso/ten	erak/erok	laga	akio,coge	bino/beki	esti
onaik/onain	tziauri/toz	eurt/erdu	el/auli	korri/ken	betor'ven	jaiki/jagi
enaugi	oadi,zoaz	orden/ereik	alde/allez	goazen	bejoa/vé	sal/jali
mueve	tolle/tate	ar'arzan	eleva/leva	ago/goaie	fer/vale	sto/stote
mira	adi,eutxi,da	erosi	lortu/lograr	ekan/geinste	bebil/vade	ezak/azan
mu'mintza	di/ixo/chitón	errak/arrea	loquere	gomak/calla	bedi/fala	esan/esak

ZERTAN/ZERTZAT egiturak norbaitez edo zerbaitez ustezko definizioa ematen du: "profetatan/profetatzat eduki, zorotan/zorotzat, pobretan/pobretzat, gezurtzat, egiatzat", etab. ZERTAN *-tan* helburua adierazten: egurretan, uretan eta *-zun* atzikira "bilaka" adierazten : urzun, ogizun, diruzun, etab.

*Toki, tegi* hitzak atzizkitu egiten dira "tokia, babesa" adierazteko: oilotoki/oilotegi, loretoki/loretegi, upategi, sagardotegi, etab.

Lanbidea adierazten du orobat *-tzu* egiturak: arrantzu, dendaritzu, eta multzoa *-tzu/-tza*: batzu, zenbaitzu, harritza, garitza, etab.

*Utu* iduzkiari begira jaso ohi den zuhaitza adierazten da *-atze/-aitza/-atxa* atzizkiez, *-ondo* konposatuaz bezala: aretze/aretxa, maiatze/maiatza, zurgaitza/zugatxa, sagarrondo, gereziondo, etab.

Ekintza eta ondorea adierazten dute adizkerekin doan *-tura*, *-dura*, *-tura*, *-dura* atzizkiek, hala egitura, erretura, jostura, abiadura, jakitura, jakinduria, etab. Bertotik datoz gaztelaniazko *costura*, *sabiduría*, eta antzeko atzizkiak ere.

Behin behinezko ekintzak *-da*, *-tada*, *-kada* atzizkiez lortzen dira: mugida, sartada, eskutada, ostikada, atxurkada, eta ideazko edukinak *-tate*, *-dade*, *jakitate*, *kuxidade*, *propietate*<sup>(1)</sup>, etab., latin eta erromanikoek bezala.

Adizkera asko *Utu* arketipoa *-txi*, *-tzi*, *-tsi*, *-si*, atzizki dutela eratzten dira: jatxi, ebatzi, eritsi, jausi, etab., *-azo/-azi/-izare*<sup>(1)</sup> atzizki eragileak dira, hala, ekarrazo/ekarrazi, batptizare<sup>(1)</sup>/bautizar, etab. Eta *-ti*, *-tzi*, *-tia*, *-zia*, *-za*, atzizkidun izen arrunt askok jokera berdina dute euskera-erderan. Hala ereti, garrantzi, garantía, abilezia, onezia

agudeza, prudencia, etab., *-tasun* berez on den kalitate astratoa adierazteko da: *noletasun*, *edertasun*, *ondasun*, *maitetasun*, etab.

TOKA ariketak pluraleko 2<sup>o</sup> pertsona *tto/tu* aipatzen du, *to*, *tori*, *toma*<sup>7</sup>, egituretan bezala. Geroago *zu/usted* eratorri zan, errespetoko tratua, *no/to* ohitura gainditzen zuela: *za-* aurrizki: “*zara*, *zatoz*” eta *-zu* atzizki orainean “*daukazu*, *maite duzu*” eta *zen-*, *zin-*igaroan: *zeneukan*, *zendun/zenuen*, *zinan*, *zindudan*, etab. Adizkeretako lehen eta hirugarren pertsona *-t*, *-ta-*, *-da-*, *-te*, *-te-* atzizkiz edo artizkiz lortzen dira : *dut*, *zeunstan*, *zenidan*, *didate*, *zidaten*, etab.

Aditzen aurrizki *at-*, *ad-*, *as-*, *ast-*, *dia-*, *de-*, *itxa-*, *sub-/so-* eratan, gora edo behera astintzen ditu edukin zaharren baloreak bai euskaran eta bai erromanikoetan. Hala, *ataskatu*, *ateman*, *atotsi*, *atoratu*, *atorar*, *atacar*, *admirar*, *astandu*, *astasapindu*, *astindu*, *diabalein*<sup>(6)</sup>, *determinar*, *detergere*<sup>(6)</sup>, *itxaron*, *soberatu* > *superar*, *subermatu* > *suprimir*, *sopindu*, *subestimar*, etab.

Galdetzeko izenordeak *edo-* aurrizkituz mugagabe osatzen dute edukina: *nor/edonor*, *zer/edozer*, *nola/edonola*, etab. *edo* atzizkiz galdekeran *-ote*, *-ete* erabili ohi dute: *etorri-ote?* *Etorri oteda?* *Ba doa ote?* *Ba etedator?* Ezbaian *-edo* darabil atzizki: *etorri-edo*, *gurekin-edo*, etab.

Moduzko atzizki konposatua *-tara*: *honetara*, *bestetara*, *ezkerretara*, *itzuleztara*, etab. eta *-tariko* bereizgarria: *edotariko*, *guretariko*, *bestetariko*, etab.

*Utu* arketipoa *ttipitasuna* adierazteko ere prestatzen da, hatarako *T/D/DD/DH/TX/X/S* alofono guztiak jotzen dituela *-to*, *-tto*, *-txu*, *-txo*, *-so*, *-txi*, *-dd-*, *-ito*, hala “*semeto*, *semeso*, *menditto*, *txikitxu*, *amatxi*, *bonito/a*, *edterra*”, etab.

Bokalak zabal edo estu ahozkatzeak arketipoarekiko neurria adierazten du. Hala “*at/eit*, *tata/teta/titi*, *aton/adin*, *edeki/ixi*, *tuba/tibia*, *done/duin*, *otu/ito*, *edu/ide*, *edun/edin*, *aut/ut*<sup>(6)</sup>, *txapla/txipli*, *gaisotu/gaisoti*”, etab.

7 *Toka/zuka* edo *duketza/zuketza* errespetoko tratamenduak ömen ziran eta *hika*, berriz, arrunta. Forma arruntean bereizten *-n/-k* atzizkira. Bestalde, *to* gizonezkoen, *toma* txakurrei esaten zitzaien, eta hortik bide datoz *tomo* > *sumo*, *tomar* > *summer*<sup>(6)</sup> aditz erromanikoak ere.

16<sup>a</sup> laburgoa: GONBARAKETZEKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AX
ain/en-/oin	duin	aren	lain	gino	bein/bai	zein/asina
ansí	zoin	arean	aulan	cuán/qué	bezala	zelan/selon
antzo	edu/uti	urrean	lez	gisa/guisa	veluti	jas/yes/ez
onan	idem/adin	orrela	olan	kide/equale	bardin	sic/asi/sí
nola	oso/total	oro/era	ala/ola	cual	bezain	sano
muy/anitz	txit/sumo	real	alaen	como	como	sane
inobre/inaure	super	are	alyim	geiago	presque	ya/según
ainbat	tanto/tal	aria	alako	igual	parecido	zenbait
máxime	dia/thusto	urrez	lar	guzti	vix/pene	aski/asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	gutxi	harto/bien	aseki/assed
minus	ttantta	ralo	labur	ka/quia	poxi/poco	eskaz
noski	utique	real	alegia	eiki	vere, bai	certe
ante	tint/edo	ordea	aliter	contra	bestela	semeios
nahiz	todavía	or	alor	agian	baina/pero	siquiera
modo	talante	raso	ley	criterio	baremo	sentido
norma	edu/tipo	eredu/orden	laia	clase	forma	especie/sail

Ohar: sailean analogia bereko izen, izenlagun, aditzadilagun eta zenbait lokarri batzen dira

### 3.2.3. Ra arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak

Ra arketipoaren jokera eta eginkizuna NORA/ZERTARA/NOIZERA/NORANTZ kasoetan doa *-ra*, *-tera*, *-terantz*, soil edo konposatu, jokera berekin duela: *gingara*, *gora*, *jaistera*, *heriotzera*, *arratzerantz*, etab. Era berean, NORI begira dago: *eguraldiari*, *zoriari*, *joan denari*, etab., NOREN/NORENTZAT, formak laguntzen dio baxotxa ugarikotik bereizten: *egunaren*, *egun urratzearen*, etab.

ZEREN/ZERREN egiturak funtsezko zioa galdetzen du eta *-arren* atzizkiak eratzuten: *Jainkoarren*, *amoiarren*. NOLA egiturak *era* bilatzen du eta *-era*, *-tara* forma soil edo konposatuan erantzuten: *berera*, *gustura*, *neuretara*, *zeuretara*, *nahitara*, etab.

ZER gaia adierazten du *-ari* atzizkira: *ortuari*, *janari*, *eskari*, etab. Nor taldea adierazten du *-teri* atzizki konposatura: *umeteri*, *gizateri*, etab. Gonbidatua analogizatzen du *-tiar* atzizki konposatura: *afaltiar*, *bazkaltiar*, etab. edo lekuko dena antzematen *-liar* atzizkira: *ikusliar*, *eztaliar*, etab. eta lanbidea edo kirola *-ari*, *-tari*, *-lari* forma soil edo konposatura: *pelotari*, *laiari*, *merkatari*, *erostari*, *arraunlari*, *korrikalari*, *trontzalari*, *zergalari*, etab.

Jatorria ere seinalatzen du *-ar*, *-tar* atzizkiez: *gernikar*, *donostiar*, *bilbotar*, *menditar*, *itxastar*, *baserritar*, etab., orobat abereen *ar* kudea: *astar*, *oilar*, *mandar*, etab. Izakera *-or*, *-kor* atzizkiaz ordezkutzen du: *errukior*, *bizkor*, *bihozkor*, *suminkor*, etab.

Izakera eta txikitasuna ere soil bere hotsez edo berarekiko konposatuez antzezten du *-ar*, *-arro*, *-rrio/a*, *-kirri*: *txikar/chiquer<sup>(val)</sup>*, *kaskar*, *kazkarria*, *bandurria*, *villorrio*, *zaparro*, *kaskarrio*, *kazkurrio*, *ozkirri*, *harrikirri*, etab.

Adizkerekin Noiz etorkizun hurbila<sup>8</sup> adierazten du *-tear*, *-tzear* atzizki konposatura: *sartzear*, *hiltzear*, *jaustzear*, etab. edo etorkizuna soilik *-ren* erataria: *etorriren* da, *ekarriren* du, etab. Erromanikoetan *-rá*, *-ría*, aldi bereziak eratzen ditu: *amará*, *dejaría*, etab. Aldien gurpila analogizatzen du *-aro/-tzaro*, *-zaro* atzizkien bitartez: *uztaro*, *gaztaro*, *gaztezero*, *umezaro*, *Olentzaro*, etab.

Adizkera askoren ekintza eratzen du bere *-ri*, *-rri* akaberaz: *igarrri*, *agiri*, *exeri*, *irarri*, *aterri*, etab., erromanikar *-ar*, *-er*, *-ir*, *-or* atzizkiez bezala, eta *arra-/arre-/ara-*, *era-/ira-* aurizkiez aditzen eragina finkatzen: *arraltxatu*, *arregotzi*, *aratxiki*, *eratzan*, *eragin*, *eretxi*, *ertzi*, *erstu*, *ernai*, *erretsi*, *iragarri*, etab., *-arazi*, *-arazo* forma konpostuok atzizki doaz: *ernarazi*, *bildurrarazo*, etab. Bietara ere ekin dio: *eragin/eginarazi*, *iragarri/igarriarazo*, etab.

Adizkerak ezeze, hitz arruntak ere indartu izan ditu, hala espen> *eraspen*, *esi/ersi*, *edu/eredu*, *estun/erastun*, *apostu/arrapostu*, *patan/arrapatan*, *min/erremín*, *kara/arkara*, *pausu/errepausu*, etab.

Konsonante *r/rr* gozo-garratzez edukina aldatzen du eta hizkune zentzuan, gehien bat: *eregu/erregu*, *oro/orro*, *hiri/irri*, *aro/harro*, *erain/errain*, *buruka/burruka*, etab.

Bokalek ertxidura-zabaleraz arketipoagandiko partetasuna adierazten dute *erra/ira*, *iraun/irain*, *arrai/irri*, *arraka/irriki*, *nora/nori*, *fero/ferirre*, *arrear/arriar*, *hartu/ertu*, *uri/iri*, etab.

8 Etokizuna Ra jainkoaren igaleek *iragarten* zuten, hagatik beraren indarra jartzten zuten iragarkizunetan. (*La profecía de Neferty*, 67-68, DB, nº28.)



### 3.2.4. *Ilu arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak*

*Ilu* arketipoak NOLA/ZELAN kategoria lantzen du izenordeekin *-la*, *-lan* atzizki soil edo konposatura: bezala, honela, haulan > holan, edozelan, zeulan, etab. (Ikus gonbaratzekoak 15° laburgoan)

Adizkeretan *-la/le* atzikiak egilea adierazten du: ikusla, ikasle, egile, ikerle, irakurle, maitale, etab. Era berean adizkeratuekin *-taile*, *-tzaile* atzikiakin: moztaille, garbitzaile, margotzaile, etab. Edotariko izenekin *-liar* atzizki konposatuak lekukoa dino: ikusliar, elizaliar, eztailiar, etab. eta *-lari* atzikiak lanbidea edo kirola adirazten du: muslari, goldelari, atxurlari, ekarlari, etab. Jatorri berekoak izan bide dute *-lier*<sup>(1)</sup>; *sommelier*, *latelier*, etab.; *-legi* atzizkiak margoa dino: orlegi, beilegi, etab.

Hainbeste aditzen egitura osatzen du *-li* atzizkira: itzuli, ibili, eballi, jali, sal<sup>(cheso)</sup>, etab. eta forma mugagabe batzuk: gal, itzul, azal, etab. Hirugarren persona euskeraz erak/eurak/berak formen ondoan *auli*, *ulako/halako*, *ulain* adierazleak agertzen dira, baina adizkeren ahal-dunetan agertzen da persona bezala, *le/-l*, aurrizki edo artizki dela. Hala: Izan leiteke/liteke, egingo luke, balekar, baleiteke/baliteke.

Aditz egitura batzuk indartzen dituzte *al-*, *el-* aurrizkiez: *alegin*, *algaindu*, *elerran*, *el-leipo*, *el-elizo*<sup>(2)</sup>, *elligo*<sup>(3)</sup>, etab., eta hitz batzuetan: *estun/elestun*, *sari/elhesari*, *gorri/elgorri*, etab.

Erromanikoeak asko erabili ohi dituzte *-illu/-illo/a/-la/-il/-l* atzikiak txikitasuna adierazteko, euskaran gutxiago, hala koskailu, etzela, gingil, txirrinkol, farol, kiskila, neskatil, etab.

*Ilu* arketipoaren partekidetasun ahozkeraren ideki-itxian ikusten da: *al/el/il*, *ahal/ahul/lò*, *ala/ele/eli*, *oilo/euli*, *legere/ligare*<sup>(4)</sup>, *lasatu/luzatu/lisatu*, *landa/linde*, etab.

*An* eta *Utu* arketipoen atzikiak osatzen da euskal joskera gehiena eta horretan erakusten du euskarak sumerieraren xedea, nahiz *Ra* eta *Ilu* jainko arketipoez eta Antxinako Sortalde Hurbileko beste armonikez ere burua ornitzen duen. Guzti hori izan ziteken euskara zaharren joskera, harik eta giza arketipoak burua jaso eta bere kisa edo lehengoekiko konposiziora hainbat zehaztasun hurbilagoz euskararen jostura aberastu zuteino.

### 3.2.5. *Ka arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak*

*Ka* arketipoari dagokio *ki*<sup>(s)</sup>=*lur* eta *ekua*<sup>(s)</sup>=*egoitz* inguruan NONGO/NONDIKO egiturei erantzutea eta hatarako *-ko*, *-go*, *-ki* atzizkiez baliatzen da, “*amako/amagandiko*” edo haren zatiki dela esaten dugunean bezala. Hala izentatzen ziran lurreko jainkoak *Enki*, *Ensag*, *Marduku*, *Qingu*, *Nabuko*, etab. eta berdin jainkoen lehen sorkariak *Anunnaki/Anunnaku*<sup>(a)</sup>=*ainaninoko*, *Utukku/Udug*, etab. *Inko*, Inu jainkoren *ma-h*<sup>(s)</sup>=*imago*<sup>(l)</sup> “*irudia*” zegoen tenplo erdian<sup>9</sup>. *Enkidu* bera *Anuren akatsa* zan<sup>10</sup>. *Akats* edo zatiki dena, *Anunnaki* bezala, *-ki/-ik* atzizkiez adierazten da: *saieski*, *oiloki*, *ogirik*, etab., eta bakoitzaren NONDIKOA=*origo*<sup>(l)</sup>=*jatorria* *-ko*, *-go* atzizkiez: *etxeko*, *hauzoko*, *uriko*, *borrego*, eta berdin ZETARIKO: *amicu*<sup>(l)</sup>>*amigo*, *mutiko*, *umeko*, *astoko*. Eba ere *virago*<sup>(l)</sup> zan, ustez *gizonagandiko*=*elc*<sup>(s)</sup>/*ex vire*<sup>(l)</sup> zelako (Gen 2,23). Era berean, *Inko*, Ino *Jainkoagandiko* semekoa da egituraz eta, beraz, haren *semeios*<sup>(s)</sup>=*antzeko* denetik da *Inkoren* “*imago*”/*eikon*<sup>(s)</sup>/*icono*.

NOKA/TOKA adizkeretan jainkozko *-n* atzizkia gizatasunezko *-k*, *-k-* atzizki-artizkituaz ordezkutzen du hako “*eme-sal*<sup>(s)</sup>/*eme-ku*<sup>(s)</sup> edura: *egin duk/niatork/egin didak/ditek/egin dozakan lanak*, etab.

Ugariko lehen NOR/NORI/NOREN *gu/guk/guri/gure* aurrizki, artizki edo atzizki ordezkutzen du adizkeretako orainean eta iga-roan. Hala *gaz*, *gatoz*, *gara*, *gentozan*, *ginduzun*, *hindugun*, *dugu*, *duguna*, etab. eta NORI egitura *-ki-*, *-kio*, *-kio-* atzizkiez zehazten du: *daikidan*, *dakarkio*, *daikiot*, etab.

NOREKIN/NOREKIKO, NOGAZ/NOGAZKO kidezaileak ere, ondo datozkio konposizioan *Ka* arketipoari *-(re)kin*, *-kila*, *-(re)kiko*, *-gaz*, *-gazko* atzizkiekin: *zurekin/lagunekin/enekila/harekiko* harremana, *amagaz/beragazko* lotura, etab. Nonbait *-kin* atzizkitik dator *cum*>*con* erromanikar preposizioa. NOGAN/NOREGAN, NOGANDIK/NOREGANDIK/NOREGANDIKO egitura erabilten da biziakiko NON kasua bizigabeetatik bereizteko. Hala, *amagan/amarengan/zugana/Jainkoagandik/berarengandiko* grazia, etab.

9 RIES, J, “SAGRADO -2. La expresión de los sagrado en el mundo su-mero-babilónico”, DR., o. c., p. 1577-1578.

10 *Gilgamés*, I, VI,3. DB, n<sup>o</sup> 7.

ZER/ZERTAN egiturei *-keta*, *-ketan* gizara adierazten ditu iharduketak: *ariketa/ariketan*, *garbiketa/garbiketan*, *azterketa/azterketan*, etab. Ihardukizuna bera *-kizun* atzizki konposatuaz seinalatzen du: *eginkizun*, *asmakizun*, *esankizun*, etab. Maila, ekintza, jokera *-kunde*, *-kune* atzizkiez adierazten da: *emakunde*, *apezkunde*, *adikune*, *begirakune*, *asperkunde*, etab. Ekintza *-kuntza* egituraz lortzen du: *sorkuntza*, *hizkuntza*, *okerkuntza*, etab.

NOLA/ZELAN galderei, berriz, *-ki* gizara ordezkutzen du *-to* jainkozko era: *ederto/ederki*, *polito/poliki*, *galanto/galanki*, etab., ekintza errepikatua *-ka*, *-koz* atzizkietara adierazten du: *deika*, *txaloka*, *oihuka*, *orrokoz*, etab. Jainkoen *-era* > *-kera* gizatzen du: *jasoera/jasokera*, *egoera/egokera*, *sorrera/sorkera*, etab., beti ere zehaztasun fisikoa gehitzen diola hitzaren edukinari.

NOLAKO/ZELAKO egiturez lokarri konposatua egiten du *-lako* atzikiak: *zeulako* mutila/*edozelako* aitzakia/*amalako* arpegia/*berea bezalako* pazientzia, etab., edo *-koi* atzikiak jokera adierazten: *amakoi*, *herrikoi*, *umekoi*, etab., bakoitzaren geitasunak edo gaien zertarakoa adierazteko *-kaitz*, *-garri* atzizki konposatuak erabilten ditu: *moldekaitz*, *gozakaitz*, *maitagarri*, *iguingarri*, *azpigarri*, etab. Kalitate gaiztoa *-keria* giza konposatura markatzen du: *ordikeria*, *nasaikeria*, *erokeria*, etab., xumetazuna *-kolo* seinu konposatuaz antzezten du: *seinkolo*, *zaharkolo*, etab., margoaren xumetazuna, berriz, *-kail* atzikiak: *zurikail*, *orikail*, etab. txatxar izakera *-kondo* egituraz itxurgatzen da: *etxekondo*, *umekondo*, *kandelakondo*, etab.

ZETARIKÒ/NORTARIKO arloan partekia bereizten du, *-tarikò* atzikiak: *umetariko* bat, *euretarikoa*, *edozetariko* frutakia, etab., edo kidegoa *-kide* atzikiak seinalatzen: *adizkide*, *ikaskide*, *erdikide*, etab., ekinlaria edo lanbidea *-kile*, *-gile* atzizkiez bereizten du: *joskile*, *marraskigile*, etab. eta margo mota *-zka/-zco* atzizki konposatuez adierazten da: *berdezka*, *baltzizka*, *negruzco*, eta abere mota *-nga*, *-nco* egiturez: *baztanga*, *urdanga*, *podenco*, etab. Susmoa, *karantza kara* ere esaten da eta *-kara* atzikiz adierazten du itxura bateko susmoa: *euri-kara*, *elurkara*, *arkara*, etab. eta xumetasuna *-kirri*, *-iko/-ico/-a*, *-eca* atzizkiez adierazten: *ozkirri*, *haizekirri*, *nabarkara*, *belzkara*, *mutiko*, *mocico*, *muñeca*, etab., *-skil*, itxurgatzekoa bezala: *txorros-*

*kil*, *gizonskil*, etab. ZEREZKO egitura *-zko* atzizki konposatuaz adierazten da: *urrezko*, *harrizko*, etab. Jatorria *-kume* atzizkiaz seinalatzen du: *gizakume*, *astakume*, *deabrukume*, etab.

NORAINO/ZENBATERAINO egituran *-raino* jainkozko atzizkia *-ragino* gizatzeko asmoz darabil: *etxeraino*/*etxeragino*, eta biziekin jokatzen du bederen: *txindurragino*, *zugino*, *emakumeagino*, etab.

Gizarteko ZERGATIA eta erantzukizun ingurua azaltzeko *-(re)gati*, *-gatik*, *-gaitio*, *-gaitino* atzizkiak erabilten dira: *horregatik*, *zeugatik*, *amoreagatik*, *haugatik*, *anaiagaitio*, ez *horregaitino*, etab.

NORK/ZERK ekintzailea *-k*, *-ak*, *-ek* adierazten du: *guk* ba dakigu/*heuk* jakingo *duk*/*goseak* dago/*emakumeek* esan dute, etab. eta NOR/ZER ugaria ere *-ak*, *-k* atzikiel: “*umeak* hazi, *nekeak* bizi”, etab.

NOR bakoitzaren *geitasuna* *-gai*, *-gei* atzikiak seinalatzen da: *andregai*, *senargei*, *sendagai*, etab. Adizkeretan *geitasuna* adierazteko, ahal-dun berezia sortu du *-ke*, *-ke-*: *daike*, *daiket*, *dezakegu*, *lekarke*, *noake*<sup>10</sup>, *ba dakike*, eta bide beretik etorkizuna: *ikasi eikezu*, *egin leike*, *hilgo litzakiket*, etab.; ekintza *-ketan* atzizkiaz: *garbiketan*, *zuriketan*, etab. Zerbaiterako *gai* den zera ere *-gailu* atzikiak adierazten du: *edergailu*, *onkailu*, *garbigailu*, etab.

Jainkozko arketipoak bezala bere kisa osatzen ditu adizkera batzuk, hala *eregi*, *jagi*, *erabagi*, *ebaki*, *egoki*, etab., eta *ak-*, *ek-*, *oc-*, *ac-*, *ik-* aurrizki-preposizioz indartzen ditu aditz batzuk, euskararen ere, *obitu*/*akubitu*, *eron*/*igaro(n)*, *urtu*/*igurtu*, *arri*/*ekarri*, *nizo*/*ek-nizo*<sup>(9)</sup>, *curre*/*occurrere*<sup>(1)</sup>, *ceder*/*acceder*, etab.

Ukapena adierazteko ugari erabilten da *-ka*, *-ga* atzikia izen/izeka, arte/artega, baitu/bekatu, etab., 2.5. *Hitzen berdinketa-bereizketa* sailean aipatu bezala. Era berean *-teke*, *-tzeke*, *-tzaka*, *-tzaga* egitura konposatuak adizkeraren ekintza ukatzen dute: *egiteke*, *garbitzeke*, *osatzaga*, *ezautzaka*, *apaltzaga*, etab.

Ekintzako NOR adierazten du *-kin*, *-gin*, *-kile*, *-gile* atzizkiekin: *okin*, *hargin*, *zurgin*, etab., *bizargile*, *bitxigile*, *zurgile*, etab., *lanbi-*

10 Latinak horretarako *queo* aditzaz baliatzen da: *noake* “*queo* ire”, ez *dagiket* egin “*nequeo* facere”.

dea, *-gingo*: *haringo*, *zuringo*, eta ekintza hutsa *-gintza* egituraz: *askagintza*, *etorkintza*, *ikasgintza*, etab.

Ahozkeratan euskara greko-romankeren txortatze-zale barik, jatorrizko formaren aldeko da: *sagara*>*sacra*, *segeretu*>*secretu*, *garatz*>*grasa*, *eskar*/*gracia*, *negar*/*grima*, *garun*>*craneu*, *garaun*>*granu*, *garratz*>*agraz*, etab. Ozenkatu zalea da: *kar*>*gar*, *korpitz*>*gorputz*, *kausa*>*gauza*, *kisa*>*giza*, etab. Bokalismoz partekidetazuna adierazten daki: *garra*/*gerra*, *kukurruku*/*kikiriki*, *eskari*/*esker*, *agor*/*iger*, *gaza*/*gozo*, *goiza*/*gizi*, *gangar*/*gingil*, etab.

### 3.2.6. Ba arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak

NOR egituran ezagunak ditugu *bat*, *batek*, *banek* izenordeak eta galdegaiekin *-bait*, *-beit*, *-baist* atzizkiak erabilten dira: *norbait*, *zenbaist*, *zenbat*, *nonbait*, etab.

NON adierazteko tokizenekin *-be/-pe*, *Elantxobe*, *Mendibe*, etab. eta hitz aurrutekin *-be*, *-pe*: *galtzarbe*, *okozpe*, *besape*, *eskepe*, *ospe*, etab. eta *-peko* eratorrien sorgu: *burpeko*, *oinpeko*, *soinpeko*, etab. NOR egituran giza familiakoei aurrizkiz giza maila egozten die: *aina/neba*, *oto/osaba*, *atta/asaba*, *izea/izeba*, *Ala/alaba*, *Ilu/iloba*, eta aurrizki: *An/van*<sup>(al)</sup>, *Ra/bar*<sup>(arab)</sup> *Ilu/biloi*>*filiiu*<sup>(l)</sup>, eta jainko familikoei atzizkiz, bihurrikeria: *Anu/ainubi*, *nube*, *Utu/edubio*, *Su-ap*<sup>(s)</sup>, *sube*, *tsobu*<sup>(ast)</sup>, *Ra/raab*<sup>(e)(l)</sup>, *arrabio*, *arpía*, *Ilu/lobo*, *aleve*, *Leviatan*, etab.

Adizkerekin *-pen* egiturak ekintza eta ahala adierazten du eta *-men* jainkotiar atzizkia gizatzen: *galmen/galpen*, *ondamen/ondapen*, *onesmen/onespen*, *iraupen*, *erospen*, *luzapen*, etab.

Agintezko adizkeretan hirugarren NOR *bera*, *be-* aurrizkiz ordezkatzen du: *bekar*, *beioa*, *binu*, *beki*, etab. eta ezbaiko *bada* zurruntzen du ezezkoetan: *badaezpadan*, *ez balitz/ezpalitz*, etab.

Izenordeak *ber-* aurrizkiaz indartzen dira: *era/bera*, *ere/bere/eurak/beurak*, *haixe/bèraixe*, *bera/berbera*, *hori/berori*, etab. eta adizkerak giza eraginez ornitzeko: *ber-*, *per-*, *fer-*, *-pre* aurrizki eta preposizioak erabiten dira euskaran eta erromikoetan: *ermo/bermu*, *erne/berme*, *bermatu*>*premere*<sup>(l)</sup>, *ferekatu*>*fregar*, *irmo/firmu*<sup>(l)</sup>, *hezi/berezi*, *mugitu/bermugitu*, *erosi/berrerosi*, *mitere/*

*permittere*<sup>(0)</sup>/*permitter*, etab. askotan. Atzizki moduan indarraz ornitzen dira aditzlagunok: *-bere*>*-bre*: *inobre*, *inaurre*, *summpere*<sup>(0)</sup>.

Ekintzaren errepika adierazten du *bir-* atzizkiak: *birbiztu*, *birlo-ba*, *birrin*, *birrindu*, *birlandatu*, *birloratu*, etab.

NON egiturari *-buru*, *-puru* toki garaia adierazteko: *erpuru*, *ma-haiburu*, *otaburu*, etab., tokizenetan bezala: *Mendiburu*, *Oihan-buru*, etab. Gizatazunez janzten du *-duru* forma jainkotiarra, *-buru* eginaz: *sorduru/sorburu*, *hogenduru/hogenburu*, *hartzeburu*, etab. Adizkeren aurrean *buru-* norbere asmoa eta interesa bultzatzen du *buruegin*, *buruemon*, *buruberatu*, etab. eta *pro-* grekar eta latindar preposizioaren aurretiko da: *proago*<sup>(6)</sup>, *prodidomi*<sup>(6)</sup>, *promoveo*<sup>(0)</sup>, etab., *burukatu*>*frogatu* datorren bezala.

NOLAKO egituraren jokera adierazten du *-bera* atzizkiak: *kilibera*, *egarbera*, *bihotzbera*, etab. Aurrizki bezala ere erabili ohi da hitz batzuetan: *berakatz*, *beragailu*, *beragile*>*peregil*, etab. Adizkerekin *norbere* interesa burutzen du *bere-*, *fere-* aurrizkiak: *berezi*, *berestu*, *ferekatu*, etab. Egitura hau *pre-*, *fre-* dator erromanikoetan bereziki: *berestu*>*prestu*, *berezi*>*preciar*, *berendu*>*prendar*>*prender*, *berekatu*>*fregar*>*fricare*<sup>(0)</sup>, etab. Orobat *abar-*, *bara-*, *barha-*, aurrizkia dago: *abargidatu*, *abarroskatu*, *barhandatu*, *barreiatu*, adizkera batzuetan eta grekoak *para-*<sup>(6)</sup> aditzen preposizio bezala eta erromanikoez helburuko lokarritzat burutu dutenaren sorgua da.

Aurrizki bezala erabili ohi da hezi gabeko abere edo landare basa adierazteko *basa-* aurrizkia: *basaran*, *basapiko*, *basamailuki*, *basasto*, *basurde*, *basagizon*, etab. eta *-bide* atzizki, gizarbide arautuko harremanak adierazteko : *sendabide*, *eskubide*, *ogibide*, *askabide*, etab.

### 3.2.7. Ax arketipoaren hitz-aditzen aurrizki-atzizkiak

Ez ukapena da eta inoiz edukina ukatzeko atzizkiz erabilten da -ez: *ondoeza*, *prestueza*, *neurrieza*, etab., edo aurrizki: *ezgauza*, *ezordu*, *ezjakin*, *ezindu*, *ezikusi*, *ezentzun*, *ezlokatu*, etab.

NOIZ/ZELAN/ZEREZ egiturei erantzuten die *-ez*, *-az*, *-z* atzikiak: *goizez*, *arrataldez*, *negarrez*, *pozez*, *pelotaz*, *atxurraz*, *etorriaz*, *eginaz*, *zuriz*, *orlegiz*, etab. ZELAKO/ZEREZKO egiturez *-zka*, *-zko*, *-sco*, -

sca atziki konposatuez adierazten du margoen xumea: zurizka, gorrizka, berdezka, edo era, izakera edo jatorria erromantzean: morisca, chulesco, grotesco, burlesco, etab. edo gaia, ganora, bidea, multzoa adierazten: urrezko, harrizko, setazko, zaldizko, oinezko, berezko, borondatezko, gizonezko, andrazko, etab.

Gizarte arautuko seinuak jasotzen ditu *eska-*, *esku-*, *ezku-* konposagaia aurizkituz: *aindu/eskaindu*, *tematu/eskatimatu*, *ondu/eskondu*, *ondu/ezkondu*, *hartu/eskuartu*, *beretu/eskuperatu*, *atatu/eskutatu* > *escudar*, *biratu/escupir*, *zain/escusaña*, *drenar/escudriñar*, etab.

*Iza(n)=esse<sup>(1)</sup>* erritozko *izate* berriaren *seinu* bezala, *-xa*, *-sse/-ssi<sup>(1)</sup>*, *-esa/-és* atzizkiez *jatorria* adierazten da: *manexa*, *genovesse/genoves-si*, *avilesa/avilés*, etab. edo *etxe*, *etxeko*, *etxetu* adierazten *esku-<sup>11</sup>*, *scho-*, *sc-*, *che-*: *eskualdun*, *scoch*, *scitae<sup>(1)</sup>*, *checo*, *checheno*, *cheso*, etab.

Adizkera batzuen NOR/NORIKOAK Ax jaseko izenak ordezkatzten dute. Hala hirugarren personako NOR eta noiznahi ZENBAT adierazten duela: *zatoz*, *zatoze*, *dakarrez*, *daukadaz*, *zentozan*, *zenkarzan*, etab. edo *-zte*, *-zki* konposatuetan: *datozte*, *dakarzkit*, etab. NORI -*st*, *sku-*, *-tse*: “*ekarri daust*, *deusku/emon deutse*”, etab.

Ax arketipoak zentzu berria ematen die adizkera zaharragoei *se-/sa-*, *za-*, *ja-*, *etxa-*, *as-*, *es-*, *az-*, *ex-*, *s-*, *ast-* aurizkiak ezarriez gero, bai euskara eta bere inguruko hizkuntzetan: *min/samin*, *urt/jaurt*, *erria/exeri/jesarri*, *aurri/jaurri*, *erun/etxaron*, *fero/spero<sup>(1)</sup>*, *erantsi/jaraunsi*, *erion/jarion*, *egon/jagon*, *gaindu/eskaindu*, *gainditu/eskantitu*, *baretu/aspertu*, *batu/azpatu*, *bildu/azpildu*, *balatu/ezpaldu*, *oratu/astoratu*, *kapatu/eskapatu*, *undu/astundu*, *ihesi/sahietsi*, *ago/eisago<sup>(1)</sup>*, *perio/experio*, *traer/extraer*, etab. Zer bait halako ikusten da *-etsi*, *-esi*, *-ezi*, *-scere*, *-stu*, *-zkatu* atzikielkin: *autu* > *autetsi*, *goratu* > *goretsi*, *beretu* > *berezi*, *baitu* > *bezi* > *hezi*, *rubeo/rubescere<sup>(1)</sup>*, *pareo/parescer*, *gorritu/gorritzitu*, *gorrizkatu*, etab.

Xeetasuna azpimarratzen du adierazteko izen eta NON adizlagunekin *-txe*, *-xè*, *-xe-* atzikielkin: *horixe*, *hementxe*, *hortixek*, etab.

11 *Esku+era* “*man+era*”, *esku* egitura bera itzulikatu dager etiopiarren *gue’ez* izeneko hizkuntza zaharrean (REVERTE, J., *Dios, el diablo y la aventura*, Plaza Janés, Barcelona (2001), p. 106. Cf: *Egues/Eskue*.

## ONDORENA

Onomastika orokorrak erakusten duen bezala, hitzaren barneko arketipoen itzuliketa artezia euskarak hasieratik ezagutu eta hizkuntza artezia egin zuan.

Hitzaren formak eratara edo itzuzleztarako ahozkatze ohiturak sortu zituan aurrizki-atzizkiak gramatikazko elementu bezala eta eurok izan ziran hizkuntza monosilabo edo aglutinatu izatetik gramatikalizazio prozesuan zauli izatera eraman zutenak. Horrela, adibidez, aditz-erroa osorik irauten duela, aurrizki-atzizkiez ematen dio edukinaren NOR-NORI-ZER serbitzua euskarak, sumerierak ohi zuen bezala.

Euskarak, edo berak bezalako jakinduriadun hizkuntzen azpiegiturak, erakutzi zien grekoari eta latinari ere hizkuntzaren egiturak eta josturak analogizatzen eta aurrizki-atzizkiez ustiatzen.

Orobat, euskarak, gregoak eta latinak baina lehenago, ikasi zuan adizkera zaharrak aurrizki edo preposizioz baliaturik berrindartu edo edukinez osatzen, nahiz eta gero hizkuntza klasiokook, adizkeren preposizioez bederen, euskerak berak baino gehiago uztiatu izan ziren.

Etimologistek grekoan edo latinean ezelako susmorik aurkitzen duteneko, iturria agortutzat eta azter-lana burututzat, ematen dute, baina iturburua gorago eta Sortalderantzago dago eta sakonago sorgua. Grekoa eta latina euren aldiko hizkuntzen lekuko onak dira, baina inondik ere ez hizkuntzen iturburu. Iturburua arketipoetan dago eta arketipoi erantzuten dion hitza bera da etimologiaren hermeneutika.

Grekoa eta latina burutu aurretik, Antxinako Sortale Hurbileko hizkuntzen sendia jakinduriaraz joritua zegoen eta, haiek itzaltzean, klasikook nabardura bereziez elaberritu zuten mitologia une-unekeo kulturaren edo politikaren serbitzuan eta, halatan, hitz sorguaren arrastoa galdu zuten elenismoaren erauskinetan edo erromatar enperioko agintaritzza jainkoen heinera jaso zutenen sasi-erritoetan.



#### IV. ESALDIEN JOSKERA

Izenaren joskera eta izenduarena berdinak dira euskaran, sumerieran bezala, biek ere, adizkerak izentzeko, nahiko bai-dute -a zehaztasun akabera: mendi/mendia/mendiari, etab., izan/izana/izanaren/etortzeari/egoteaz, etab. eratarra. Hala ere, esaldien eta, bederen menperatuen joskera, kap. berezian ematen dugu, zenbait kasutan atzizki bereen errepika izanarren, hitzaren joskera ezeze, esaldi zabalagoen arteko joskera ere badirelako.

Aditz izendua da euskal sintaxia grekar, latin eta erromanikar sintaxiatik gehien bereizten duena, ohiek konjuzio deitu loturekin josten bai-dute, euskarak atzizkiz lotzen duena. Lotura hoietariko batzuk ere kontuan izango ditugu, hein batean arketipo ezagunetatik analogizaturiko egiturak direlako, hari berekoak, beraz, nahiz eta jostura ezberdinekoak izan.

Jakinduria zaharrak nahikotzat zituan hitzen berdinketa eta bereizketak, behein-behinezko dotrinaren irakasgintzarako, baina hizkune bakoitza argibide zehatzagoz azaldu ahal izateko edukin gehigarriak behar ziran eta gehigarriok ezelako apurketa barik, esankizunari erantziki ahal izateko lokarri bereziak behar ziran, margo ezberdineko ehunez konpondu jantziaren zatikiak jostura berean lotzeko joslan berezia eskatzen duen bezala. Josturatik ezagutzen bai-da jantziaren moldea eta josfiruak erakusten, ahin zuzen joskileren artezia. Halaber, arketipoegandik analogizatu edukin edo lotura ahotsak erakusten dute hizkuntza den zeru eta lurraren arteko armonia. Erdal exenpluak eredu zaharragoen arrastoa jarraitzen dituelako seinale dira.

##### **4.1. An arketipoko esaldien joskera**

Sumeriar eta babiloniar literaturak, *Gilgamesen Poemak* bederen, arrakasta handia izan zuan Antxinako Sortalde Hurbilean eta mediterranean inguruan. Bere joskeran NON/NOIZ egiturako esaldiak nabari dira. Denbora, tokia eta jabetasuna edo geheintasuna bezala, euskarak *An* arketipoagandik analogizatzen du. "Ez ote naiz

Enkiduren *haina* izango/no voy a ser tanto como Enkidu?” (IX, I,3)<sup>1</sup> “*Zein da gizonen artean ederren/quién de los hombres/hominum*<sup>(2)</sup> es el más hermoso?” (VI,182) “Hitzok entzutean, Aruruk erantzuna asmatu zuan Anurentzat bere baitan”/cuando oyó estas palabras, Aruru concibió en su ánimo una respuesta para Anu” (I,I,33). Kasu berbera erabilten da helburua eta agintezko opazkoak egiteko<sup>2</sup>: “goazen, zure arpegia ikus dezan” (I,V, 4). “Enkiduk aztu egin du non jaio den/Enkidu ha olvidado dónde ha nacido” (II,II,4). “Zerren dago Gilgames *hain* kezkatu/por qué está Gilgamés tan angustiado?” (X, V,37). Ekintza NORAINO/ZENBATERINO/NOIZNO adierazteko egituran, *Inu* jainkoagandik analogizatzen da atzizki egokia: “gainetik haien tontorrek zeruagino ikutzen dute” (IX, II,4), “hiltzerainoko sarrakioa sortarazten dute” (IX, II,7). Jakinduriazko idazkietan joskera berdina aurkitzen dugu: “haren mentua Enlilbandaren *heinekoa* da/cuya inteligencia es (tanto) como la de Enlilbanda”<sup>3</sup>, “*Zein da mortuko espirituekin bakean joateko haina?*/quién es tan fuerte como para ir en paz entre los espíritus del desierto?”<sup>(12)</sup>/eguna argitu daino itxaron behar dugu”, etab.

NOIN/ZEIN kasuko erlatibo-bereizgarriak NOREN egiturakoak dira eta bere bidez kasu guztiei idekiak gelditzen dira: “duen adina/adina duenen eskarmentua/datozen guztiak=cuantos vienen/datozenak=venientes<sup>(1)</sup>/datozenen=venientium<sup>(2)</sup>/datozenei datozenean=a cuantos vienen, cuando vienen/etor daitenean=dum venerit<sup>(3)</sup>”, etab. Bakoiztua eta ugaria bereiztearren, -r- artekatzen da izen eta kasoaren artean: “amen/amaren gona/duen guztia/guztia duenaren erdia.”

Esaldi luzeagoak ere oihuzko monosiloboetan dute edukinaren hazia eta idea beragan, jainkoei zuzendutako deiok bai-dira gero liturgian erritualki konpondu izan diren esakera eta esaldi egokiak “gramatikazko orazio” deitu izanak, hain zuzen. Sumeriarrek euren mitozko eta jakinduriazko izkribuetan *ino* eta *aiene* zeritzen ahapal-

1 *Gilgamesh*, ANET, 72-79,83,-90,92-97,514-515.

2 Goazen, noan, demagun, egiturak opazko balorea erazten diote agintekoari. (Ikus oihuzkoak eta agintezkoak 1<sup>o</sup> eta 15<sup>o</sup> laburgoetan)

3 *Enseñanza de Shube-awilum*, 2, DB, n<sup>o</sup> 26



Buztinean eraturiko arpa irudia apaiz musikariaren eskuetan. Babiloniar artea 2.000 K. aurretikoa. Ereskinak ino eta salmoen kantuari laguntzen zion liturgizunetan. Arparen zazpi hariiek musikako zazpi noten soinua ematen eta hizkuntzako zazpi arketipoek ahozketaren zazpi abotzak dira, edozein armonika zazpikun zenbakia- ren arabera izan behar zuelako musikan eta hizkuntzan. Sumer izan zan *inoen* eta *aienen* literatura asma- tu eta konpondu zuena eta salmuak egiteko eta jainkosei otoizteko hizkel- ki berezia zuena. Sumeriera, hizkuntza bizia aztu eta gero ere, Mesopotamian eta ia Anatolia guztian liturgizunetako hizkuntza bezala izaten jarraitu zuan.

diak sartu-zaleak ziran<sup>4</sup>. Horrela *An* aurkitzen da helburukoetan: "osa daiten/osa dadin/osatzearren/a fin de sanar/egin dezan/a fin de que haga", etab.

ZER/NOR egitura ere berea egiten du opatzeko eta ezbaikoetan: egin daizun gura dut/ba dakit etorri dena/ez dakit etorri den/nescio an veniat<sup>(0)</sup>", etab. Oihuzkoetan opazko ereduak jarraitzen ditu: otian/utinam<sup>(0)</sup>/aini!=jin ainintz!/hain eder=tan bello/zein eder den!=icuán hermoso que es!" ZERGATIA azaltzen du bakarka edo lagundu: "zeren etorri baizen=nam venit<sup>(0)</sup>", osterako konposatuetan ere bere kutsua dager: baina, empero: "nahi nuen, baina ezin=quise, empero no pude", amorematekoetan: "naiz egin duen/aunque lo ha hecho/eginarren=aún haciéndo", etab.

Beste hizkuntzetako adibideak gerkeraren eta latinaren lokarriak ere maiz euskara inutu zuten arketipoen analogia beretik edaten dutelako seinale dira.

4 BERGMANN, E., *Enciclopedia Cattolica*, o. c., p. 1515. Cf: Euskarak *Inoteko* inoak eta aienak "endechas", "kantu zaharrak", oroitzen ditu

#### 4.2. Utu arketipoko esaldien joskera

Sumerreko Dilmunean deadoz eta joranez *otoizten* zuten *Utu* sutua: “otoi, Utu, zu, beti=toties<sup>(1)</sup> otustan joten duzuna, uduki, otian ud gaziak gozo=dulces”<sup>5</sup>, eta *otian=utinam*<sup>(1)</sup> deiez. (Ikus oihuzkoak 1° laburgoan) Antzeko *otoitzak* egin zaizkio *iduzkiari*, asmoa *edin/iten* helburuaz edo opaz lotzen delarik: “gaur konsola nauzu, etor zaitezela *otian* bihar ere, konsola naitean=*ut gaudeam*<sup>(1)</sup>”. *Otoizteko* esamoldetan, *otu*, *otoi*, *otian*, *utinam*<sup>(1)</sup> egiturez baliatzen da: “indazu, *otoi/otian* etor zaitezela” eta ZERTZAT helburua *-ntzat* atzizkira ere osotu izan du *edin/iten* eta gainerako subjuntiboak: “ezaguntu zagiezantzat/zagiezan/joan dadintzat/dadin”, etab., eta latinak *ut*, *ad*<sup>(1)</sup> loturekin: “etor dadin=*ut veniat*<sup>(1)</sup>”.

Jakinduriazko idazkietan ere Utuganako otupenak dirau: “*otian* bere (*Uturen*) ondoan bizi zaitezana/”*Utinam* vivas cum illo!<sup>(1)</sup>=*ojalá* vivas junto a él” (71-74)<sup>6</sup>, “entzun daizula, *otian!*” (10), “nire aholkua entzuna *bedi, otian!* (150-151). Ziozko loturan, *otean* “pues, con que”: “etorri zara *otean*” eta galderaz “*otean* egin diat hori”?

Uturen zoria iluntzeko ostean aldatzen da, ostera, eta osterako esaldietan “*ostera, ostantzean, obstante, at, atqui*<sup>(1)</sup> lokarriak analogizatzen du euskarak Sumerreko jakinduria: “Ene otoitzak joriak dira (...) Irainak eta zuntzunkeriak dira, *ostera*, Sumer tirriatzen dutenak! (144)”. “Maitezko bihotzak jasotzen dik etxea, udigozkoak, *ostera*, eratxi egiten dik (202-203). Hala erabagi deza-ke etorkizun ahalduna ere bere arketipora: “etor daite/daiteke” edo dudatan itauntzeko, *ote-, ete-*: “etorri *oteda?*=*utrum veniat*<sup>(1)</sup>/ez dakit etorri *eteden*”, “baiote (da) ?”, etab.

Jakinduriazko oharretan gauzen zioak azaltzen dira *-eta/bait-*, *oti*<sup>(g)</sup> atzizki, aurrizki edo lokarrien bitartez, ZERGATIA adierazten: “ez bortxatu inoren alaba, barridean beti jakingo litzake-*eta/bait-*litzaken (63)”, etorri *bait-da/etorri da-ta*, ez dator, gaixo da *otean=ouk erjetai oti aszenei*<sup>(g)</sup>”.

Noiz ugaria *-etan* markatzen du: “etorri denetan=*quoties venit*<sup>(1)</sup>”

5 *Enki and Ninhursaga a Paradise Myth*, II, 31-65, ANET-37-41

6 *La Enseñanza de Shuruppak*, 71-74, DB. n° 26, p. 45.

### 4.3. Ra arketipoko esaldien joskera

Egiptok milaka urtetako enperioaren nausigoaz eragin handia izan zuan mediterranean inguruko kulturetan<sup>7</sup> eta euren *Ra/Erra* jainko nausiaren arketipoa euskararaino zabaldu zan, haren mitoekin batera. Horrela sumeriar iduzkiaren eduari, egitiar iruzkiaren eredia gehitu zion gramatikaraino.

Opatzeko esaldietan *arren* oihua agertzen da (Ikus oihuzkoak 1<sup>o</sup> laburgoan), arrenetan bezala: "Entzun, *arren*, Jauna" edo egitiar jakinduriak dinonez: "Bizitza heriotzaren jarraiko daitela, *arren!*"<sup>8</sup>.

Gauzen zioa *arrazioa* da *Erra* arketipoaren eredia, eta haren azalpena *rason*<sup>(9)</sup>, "*Erra* jainkoari atsegin zaiona<sup>9</sup>, beraz ZEREN/ZERREN egiturari erantzuten dio funtzezko eta helburuzko *arrazioz* "Jainko*arren*", esaten dugunean bezala: "eginzak zerbait Jainko*arren*, *harek* zerbait halako itzul diezaan=cumple algo por el Dios, para que te devuelva algo parecido"<sup>10</sup>, "Ura eskatuko dute, *arrene-tan* bezala, euren eleak edarazte*arren*/pedirán agua, como si suplicaran, para permitir que se abrevan sus rebaños"<sup>11</sup>. ZERREN galde-tzen da, beraz, latinak eta erromanikoek "qua *re>quare>car*, por qué" egiten duten bezala, eta erantzuten da: "zerren/zeren Yahwek gaizkileak gorroto dituen/*porque/en razón* de que Yahwe aborrece a los perversos"<sup>12</sup> (Esa, 32).

*Arquetipo* bereko *eredua* jarraitzen dute latindar eta erromani-  
kar preposizioak *per*, *por*, *propter*, *ergo*. "Arerioak erail zituen (...)  
zeren, bere aurka jarki-asmoa izan bai-zuten/mató a sus enemigos (...)  
*porque* proyectaban rebelarse contra él" (134).

7 "Se enseña a los nubios la lengua de los egipcios, lo mismo que a los sirios e igualmene a toda clase de extrangeros" (*Correspondencia epistolar entre el hijo y el padre*, DB, n<sup>o</sup>10, p. 49-50) Cf: *Erensuge/Errensugearen* mitoa egitiarra da; euskarak berak definitzen duen bezala.

8 *Las Instrucciones de Ank-Sesonqy*, X,25, DB, n<sup>o</sup>10

9 *Rason* "lo que agrada a Ra", to' ebah "lo que no agrada". (*En las raíces de la sabiduría*, C.B, n<sup>o</sup> 28, VD, Estella, 1980, p. 15

10 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 130, DB., n<sup>o</sup> 10.

11 *La profecía de Neferty*, 67-68, DB, n<sup>o</sup>28.

12 "Iguin dituelako" egiturak atzindu egiten du "iguin dituelako *arrazo-ia-gatik*" eta pleonasmoz bakarrik osa daiteke.

Amorematekoari ere erantzuten dio: “*Erra* alde dago, urrun dagoenarren/*Rê* es favorable, por más que esté lejos”<sup>13</sup>. *Erretorikako argudioetan* edo hitz *arruntetan* ere burua ateratzen du ondoredukin: *Errak* nahi du, beraz=*ergo* obeditu/lo quiere el *Rê*, por lo tanto=*ergo* obediatur”. “*Por mor*=amoreagatik=amoriarren” *arrazoibideak* “*ra*-mu<sup>(e)</sup>/amore<sup>(l)</sup>” *Erraganako* maite zintzotasuna adierazten dute<sup>14</sup>.

*Ra* ereduak ere ordea dauka arratzeko ortzieran eta hagatik “*ordea*, por contra” lokarriak josten duten osterakoa: “Ez ezak bereizketarik egin leinargidun seme eta leinu arrunteko gizonaren artean, aukera itzak, *ordea*, bakoitza bere egiteekaitik/No hasgas diferencia entre el hijo noble y un hombre vulgar, por contra escoge a los hombres en función de sus obras”<sup>15</sup>.

Gramatikagino aztertu ondoren, hizkuntza, bere egitura guztiekin, jainkoak eta gizakiak eskabide-eskaintzetan elkar ulertzeko bidea lautzeko, gizakiak asmatua dela ikusten da.

#### 4.4. *Ilu arketipoko esaldien joskera*


*Ilu* arketipoaren sorgua ere ez gendun ezagutuko, Ugariteko<sup>16</sup> mitoak *elea* landu ez bazuten eta euskarak haren *ala/ahala* edo *hiletan leloa* oroitu ez balu: “*Aldarrikaz elekatu* zuan: *hil* da Ba’lu!” (1.5 VI 22-23). Balu *Iluren* biloi *ahula* zan: “*Ahul* batek ezin *âl/ahal* dezake borrokan egin” (1. 6 I 50), eta erabat, Balu galai *alena*, *baldin Iluren lehia aldeko* bazuan. Hagatik *Iluri* egin deiak *iole!*, *ale!* etab. *dinoe* (Ikus 1° laburgoan) eta *ahalduneko* esakerak laguntzen dituzte: “*hire* burua ulzi *ahal* dezaket”(1.3 V 24). “*Al* dela/bai *ahal*=*uxalá!*”<sup>17</sup>/ez *ahal*/esakerak *Iluren ahala* aitortzen dute opatzeko, baldintzako eta ezbaikoetan: “*etorriko al* da!=*iojalá* ven-

14 *Cartas de Tell el-Amarna*, BRIEN, J., *Tratados y Juramentos en el Antiguo Oriente Próximo*, DB. n° 23, p. 101.

15 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 65, DB., n° 10.

16 DEL OLMO LETE, G., *Mitos y Leyendas de Canaán*. (MLC) Oharren zenbakiak *Mitos y Leyendas de Canaán* idaztienak dira.

17 *Uxala>ojala* oihuak *Utu+Ala* jainkoen laguntza aitortzen du.



Neolitosko kulturaren lehen gunea, itxasoz, mendiz eta mortuz inguratua, ibaiak dituela ibarrate eta urarteko herriak, berriz, Urartu (Mesopotamia grekoentzat), Hurriria (mitani), Akate, Sumer. Herriotan *An/Amu/Eni/Imu* Jainkoa ezagutzen zuten. Hurriritek *attitarrak* kulturatu zituzten eta atikoa da koinearen ardatza eta koinea grekoarena.

ga/inork ez dezala jakin/jan dezala/baldin baletor/“Baldin Motuk ezpain bata lurrean jar baleza (1.5. II 2).

NOLA/ZELAN galdegaiak Anu+Ala arketipoen indarrak baliatzen dira -la atzizkiz erantzuten dutela: “Jainkoek jan eta edanala” (1.6. III 12), “Nolatan heltzen direla Gapnu eta Ugaru” (1.3 III 36)/kaletik zetorrela/mendira igon zelarik, etab. Osterakoan konposizioan ere parte hartzen du: “Halabaina, ez du etxolarik”(1.4. I 9)

#### 4.5. Ka arketipoko esaldien joskera

Lokarri zaharragoekin alkartzuz, atzizki konposatuak egiten ditu aldi, helburu, eta ziozko egiturei zehaztasun bereziak gehituz. NOIZKO egituran, adibidez, une edo memento zehatza eskatzen du eta -eneko atzizkiak eratzuten duela: “etorri deneko (unean)=cum venik, sentitu dudaneko”, etab. Ohar -neko/cum<sup>(1)</sup> arketipo itzuliak.

ZEINTARIKO bereziak taldeka bereziagotzen ditu -netariko atzizkiak: “ondo egin duenetariko neska/hako beranduegi etorri direnetariko pijo/dena jakiten duenetariko”, etab.

ZERGATIK kausa zehatza adierazten du -teagatik atzizkiak: “bidea erratzeagatik=quia via errabit<sup>(1)</sup>=porque erró de camino, etab., kausa ezbaikorra -nagatik atzizkira: “hik egin dokanagatik/eman digunagatik”, etab. Zioa eta ondorea eskatzen du -nez+keron/-naz keron/-enaz gero eratan: “Hainbeste izan dugunezkeron, denentzako ailegatuko da/Lehenengo etorri zarenez gero=luego que has venido el primero...”, etab.

ZERTAKO egiturari artez erantzuten dio helburu-asmoa gizatazunez inguratzen duela -teko/-tzeke/-tekoz/-tekotan atzizkiez: atsedena hartzeko asmoz/atzedena hartzekoz/atzedena hartzekotan, etab.

Ustezko arrazoiren bat oratzen dute -lako, -lako, -lakotan atzizki konposatuek eta ZERGATIK egiturari erantzuten dator: “kalte egin duelako (arrazoiaz)/kalte egin duelakoz/joan zelako uste-tan=eo quod fuerit<sup>(1)</sup>, joan zelakotan”, etab.

Latin eta erromanikoek anartean arketipo beraren zatiki soil edo konposatu diren quia, quae, quod, que, de que, con que, con tal que, por que, al que, etab. bezalako loturez josten dute halakoetan



aditzaren kanpotik, *kur*, *quare* egiturei erantzuki, edo *cum*, *quando*, *quoties*, en, para *cuanto*, etab. konjuntzioez aldiari erantzuki.

#### 4.6. Ba arketipoko esaldien joskera

Ba arketipoa *peitu*, *premiatsu*, *behartu* eta *baldituaren* ordezkaria denez, bere jakinduria *behar* eta *baldintza* beteriko adizkerez biltzen da. “*Behar/de ber*” adierazteko Ra arketipoarekin analogizatzen du: “Errak barrero eraikitzen hasi *behar* du=Ra tiene *deber de/debe de*”<sup>18</sup>. “Aserre berbarik ez da berriz erran *behar*, ez handi ez txiki; (*bada*) horrek “ka” azoratzen du=No debe repertirse una palabra de cólera, grande o pequeña; (*pues*) eso indispono al “ka”<sup>19</sup>.

Jakinduriak berak bete-beharra frogatzen du *bai/-bait/-bai eta* atzikiakin edo *por*, *porque*, *pues*, *puesto que*, *per*, *propter*<sup>(1)</sup> preposizioekin: “Inor ez hil, horrek ez *bait*-dizu onurarik ekarriko/No mates, *pues* eso no te aprobaría”<sup>20</sup>. “Zeuk egin *bait*-duzu>*bait*uzu/zeuk egin dozu-*bai eta* zeuk erantzun=*puesto que* los has hecho tú, responde de ello”.

Arketipo berak paratzen du *rason*<sup>(1)</sup> “arrazoia” hobesteko erantzukizuna, auzian ebatzi edo apostuan bestea behartzeko funtzezkoa dena: “berak egin *bai*-du, *beraz*, erantzun dezala=*puesto que* lo ha hecho él, *por* consiguiente, que responda de ello”. Erromanikoetan helburua=*fin* bilatzen du *para*, *pour*<sup>(1)</sup> lokarriekin: “Dí la verdad en tu casa, *para que* te respeten”<sup>21</sup>.

*Bak* baikor edo *baldintzan* ebazten du. *Balinba* oihua *baldintzaren* hazikina da eta Ilu arketipoaren ahala analogizatzen du: “*Balinba* hau gizakien azkena izatea”<sup>22</sup>/*baldin* beste erremedio-rik ez *balego/zurea* ez *bada*>*ezpada*, norena da?” Usteko ezkorrean *ezpabere/ezpaere* egituraz lotzen du: “Zagoz isilik, *ezpabere* hartu egingo duzu/ikasi lezioa, *ezpaere* zigorra duzu”, etab.

Moduzko baldintzak *bai*- aurrizkitzen dio menperatuari: “lokar-

18 *La profecía de Neferty*, 22, DB., nº 28.

19 *Las Máximas de Ptha-Hotep*, 7-5, DB. nº 10. Cf: “ka”=ganora, gana.

20 *La Instrucción para el rey Mericaré*, 45-50, DB. nº 26.

21 *Ibidem*, 45

22 *Las Lamentaciones de Ipu-ur*, V,10, DB, nº 26.

tu eginda, nekeak *bailegon*” eta usteak Erra *bera* jartzen du lekuko, egia denetz: “ona den *ber*/ona izan dadien *ber*=a *ver* si es bueno/a *ver* si de *veras* es bueno”, edo apalago ebazten du, gizabidezko ustea, *bide* darabilela: “joan *bide* naiz=*parece* que debo de ir”.

Osterakoek erizpenaren baimena *beheratzen* dute *baina/baia* *pero* loturekin: “gozoa da, *baina* otz dago=es dulce, *pero* está frío”.

#### 4.7. Ax arketipoko esaldien joskera

Ax arketipoaren jakinduriak gramatikaraino eramango du izen berriko erritoan aitaderak umeari ufatzen dion *atsa*. “ZELAN deritzaio?” galdetzen da *hasi*-berriaz eta “XX du *izena*”=*hashshen*<sup>(w)</sup>=*sema*<sup>(w)</sup> erantzuten da eta *izen* haretaz *sagaratzen jarraian*.

Ax arketipoak ZEIN+ZEREZ egituraz erantzuten die moduzkoei -n+ez atzizkiaz: “dakizuenez, ez dator=*según* lo sabéis, no viene”/“gaurdaino entzun dugunez, horrela da”/“esan duzun legez egingo da=se hará tal *así* como lo has dicho”. Zergaitia azaltzen du -nez+gero: “dakizuenezkero/dakizuenez gero, ez dizuet errepikatu-ko=*ya* que lo sabéis, no lo repetiré”/“goizago torri garenez *gero*, atzedena hartuko dugu”, etab. Era berean, aldia zehazten du: “-naz+ batera” egiturara: “etorri denaz batera/*según* ha llegado”, etab.

Ekintza arian ZELAN egiturari erantzuten dio -az, -z atzizkira: “ezina ekinaz lortzen da”/“ibiliz ibili, igon dugu”/“kantatuaz joaten dira gure itxaropenak”. NOR/ZER izantasuna adierazten du -tez, -tzez atzizkira: “izatez baketsua da/jaiotzez baserritar, bizitez kaletar, sinistez kristau”.

## ONDORENA

Joskeraren atzizkiak eta gainerako loturak ere harrobi bereko akats landuak dira. Hizkuntzaren oinarriak, kantaleak, zutabeak eta abeak eta gainerako edergailuak arketipoen material bereko gaiak dira eta orokortasunari begira banaka egokituak. Arketipoak banakakoak direlarik ere, eraikintza osotzen dute, planoari begira landu eta izenpetu katedraleko harri zenbatuez bezala, bakoitzak bere nortasuna gordetzen du, hizkuntza ez bai-da soinu ahozkatuen nolanhiko mordoilo edo durundia, erritozko egitarauari zehatz loturiko armonia baizik. Hizkuntza asmatu zutenek, adibidez, norentasun-jabetasun eta aldien atzikiak jainkoen Jainkoari egotsi eta beragandik analogiza zezaketen.

Atzizkien analogia arabera, euskal joskera Antxinako Sortalde Hurbileko hizkuntzen arketipoez baliatzen da eta euretan sumerieraren xedeak, batez ere, jarraitzen ditu joskeran, baina egitiar arketipoaren baloreak ere beretzat hartzen dituela.

Euskararen eta bere inguruko beste hizkuntzen arteko aldea joskeran datza, nahiz eta joskera gaiak harrobi beretik analogizatuak izan. Euskarak atzizkira josten duela hitzen eta esaldien artekoa, grekoak eta latinak, ostera, hitzen artekoa soilik kasoez eta lokarri askatuez esaldien artekoa. Erromanikoek preposizioz eta konjuntzioz josten dute dena. Hala ere, analogiaren iturriak egiten ditu hizkuntzak familia bereko, joskera hutsak baino hareago.

Hizkuntzaren sorrera eta haren funtzezko analogiak herrien mitologiak bakarrik azal ditzake sakonean. Egitiar eta grekar tradizioaren arabera, hizkuntza jainkoen eta gizakien arteko ulerbidea lautu eta argitzeko asmatua izan zan eta erlejioen historigile batzuk herrien erljo ikasketak herriek jainkoekin hitz egiteko erabili zuten hizkuntzen ikasketaz berdintzen dute.

Orain bada, euskararen soinu, edukin eta lokarriak jainko eta giza arketipoengandik analogizatuak izan dira eta eurak dira euskararen aita eta ama. Beraz, euskarak bere gurasoen berri jakin ezeze, beste hizkuntza askoren nortasun agiria dauka beragan.

## V. HIZKUNETIK ESAKUNERA

Hizkuntza prest dago eta gainera eman ditu jakinduriatzko lehen ekoizpenak, otoitzak jalki eta hitzak elkartzan, bata besteekin gonbaratzen, hizkuneak egiten eta ideak osatzen hasi denetik. Hitza ahoz-aho dabil, arketipoen ahozkerazurrun, ozen edo zaulira, bokalena aukera eta arpegi eta eskuen arteko mila imintsio dituela euskarri. Ahotz ozen, irudimen gartsu edo mintzaira zoliduna jakinduriatzko hitzez edo entzuleen gustoko zirto barregarriez, "Nere otoitza joria da (...) baina Sumer herriak nahiago ditu irainak eta txantxak" kexu da *Shurrupak Irakaskizuna* (71-74). Plazagizona izan daiteke ganoraz edo mihin zolidun emakumea ahozkeraz. Ze erretolika darabilte? Ze esakera harro edo jakinduriatzko esakun? Ba al dago hizkUNETIK esakunera ezelako arrakastarik? Esakuna zenbat eta motxagoa, hizkUNETIK hurbilagoa. "Goiz gorri/arratz euri, edo osteroite/gari ereite hizkuneen egitura bereko esamoduak dira eta gramatikalizazio gabeak izatea formen zahartzaro seinale ziurra da.

Esataile jakintsuari entzutea atsegina izan zan antxinatik, haren inguruan egiten zuten eskola, haren esakunak ahoz-aho zebiltzan herrian, esakera bakoitzari punttua ateratzen zitzaion eta maiz doinua, zabalduago izan zedin eta herriaren gomutatik behin ere ez ahienatua. Ustez, euskarak ez bezala, beste hizkuntza batzuk, sumerierak eta egitierak adibidez, izkribuz eman zituzten jakinduriatzko bulkoak gogoengarrien gogoangarrirako.

Orain, jakinduriarekin batera, hitza bera ere kinka larriak dago, "hitz huts/hitz eta pits" esateraino hatan ere, aldi bateko *esan/izan* hizkunearen edo *izena duenak ba du izana* esakunaren orde. Baloreak aldatu egin dira eta berbako gizakiak urritu, edo ez dira aintzat hartzen, *agintzaria, haizeak daraman hitza* bai-dino esakera makurrak eta gaurko gizarteak izkribudun agiria eskatzen du denetan, behar direnean ahozko agintzariak gogarazi eta indartzeko.

Euskaldunek ere idatzi egin behar izan dituzte azkenean asabekandik jaso izan dugun jakinduriatzko ondarea, baseritik kalera dena galdutzat ez ematearren eta nolabait belarria eta gogoa, metodo berriez bada ere, aurretikoen eskolara egiteko.

### 5.1. Hizkuntetik esakunerako bidea

Esatera zahar batek mila hitz baino gehiago balio duela, esan ohi da. Eta zenbat eta laburrago esan, eragin handiagoz sartzen eta oroitzen da. Hizkuneaz esan daitekena ez da zertan esakuneaz biribildu, eta esakuneaz esan daitekena, ez predika luzera behartu, bakoitzean lezio labur, baina trinkoa, gelditu daiten eskolabide.

Hitza jakinbidean antolatzeko lehen ahalegina hizkunea izan da. Hizkunea gramatikaren zaulitasuna lortu aurretiko lorpena da eta hizketako ohitura sortu zuan, esakune zaharrenak haren egitura bera jarraitzen dutela eta maiz edukin bera azaltzen. Hala ere, unean uneko arrakasta izan ostean, hizkune batzuren oroitzak galdu izatea gerta daiteke, edo, orduan bezala, gaur ere analogia bereko “*benaz/penaz*”, adibidez, nekez aztu eta erraz ulertzea, dagoneko idea bera “*egiaz eta saminaz*” edo “*zinki eta minki*” esaten delarik ere. Batera edo bestera esan, funtsean edukin bereko dira eta euskaldunaren betiko eskarmendu.

“Jainko egia” *ena*<sup>1</sup> da eta elkarrizketan norbere esanak egiaztatzeko makulutzat sarri erabilia, “egia santua” bezala. Baina “giza egia” *Ba* arketipora, *ena* > *bena* gizatu zan eta, beraz, *benaz* eta *bene-benetan* esan nahi dugu, ez txatxetan.

Hizkuneak ez du balorerik galtzen, esakunak bestelaz azaltzen duenean ere: “*egia, mingarria/egia, latz eta garratz/egia, askoren erregarria/egiak erretzen begia/egiak arrosak bezala xixtatzen/egia, arma zorrotza/egiak min emoten dau*”<sup>2</sup>, etab. Hala *benaz/penaz* hizkuneak oinarrizko indarra du, bata bestearekin berdindu onderen, aldiz banantzeko ere gei delako eta gainerako soinuak haren ospe ziurretik gogoratuak eta azalduak.

1 “Jainko egia” *emuna* da hebraieraz, euskaraz, *ena, una, ona* eta, euren forma gizatu diren “*bon, bono, bueno*” bezala, makulutzat erabilten dira elkarrizketan, ots, egiaren lekuko eta berdin unē bateko egiaren osterako “*bena, baina, baino*” gramatikan. “Jainko egia” *al, la* da arabieraz eta hortik *el, la, ille* artikuluen sorrera. Jainko izenaren makuluaz itzuriten zan giza berben ahuldura edo gezur susmoa.

2 Esakun gehienak GARATE, G. *Atsotitzak, Refranes, Proverbes, Proverbia*, Fundación Bilboko Kutxa (1998) liburutikoak dira. Eskerrak esakunen bilduma eder honi burutu ahal izan dut kapitulu hau.

*Benaz/penaz* hizkunea filosofia gehiagorako ere prestatzen da esakunetan: “*egiak eta urak bere bidea egiten/denborarekin egiak bere burua azalduko du/egia me, ez ordea ze/egia erran eta adizkidea gal/egiak guzurrari jarrita itxaroten deutso/egia motz bat hoba, guzur luze bat baino/egia, arimaren ogia*”, etab. Berdinketa soiletik sortuneko hizkunea iturri agortezina bihur daiteke.

Hizkunea *bide/fide* onartuz gero, argi ikusten da *bidatu/fidatu* ere elkarrenak direna, inor *bidatzeko* “*gidatzeko*”, batek *fidagarria* izan behar duelako. Hagatik kontu norekin *fida*, kontu *bidearekin* eta *bide-lagunarekin*: *Bide makurretik dabilena, laster erori/bide zuzena, hoberena/bide xuxena da laburrena/bide txigorra, bide gogorra/bide zapaldua, segurua/dabilen bideak harrapatu/bideak gosea berekin du*, etab. Beraz bidaztiak bidea egitean, kontu izan behar du: *ez fida denbora izarratuari, ez emazte ederrari/ez fidatu bide ertzeko arbolarekin, ez hostatuko neskatzarekin/non fida, han tronpa/jendearekin ez sobera fida/nehori fida ez denari nor fida?/zeugaz fiatzen ez denarekin ez fiatu/orotan fida hadi, orotan begira hadi/fedea bizitzako argia*, etab. Biblia inguruko kulturaren “*Jainko bideaz*” hitz egiten da, “*bidea erratu dozue*”, “*ez dozuez zaindu nire bideak*” (Mt 2,8-9), “*neu naiz bidea*” (Jn 14,5). Eliz otoitzetan “*zure bide zuzenetik/fede bidetan ibil gaitezen*” esaten da eta “*Alaren bidea*” aipatzen bidenabar Koram-en.

Orobat *giza/gisa* da hizkunez eta edukinez, gizakiari, iza/giza araberak, izakeratik eta gizakeratik bai-datorchio berezko estiloa, baita ere okela *gixatzean*. Hagatik galdetzekoa da “*bakoitza ze gisako gizakia den*”. Eta mila erantzun ematen ditu gizarteko jakinduriak: “*gizona beti gizon/gixon txikiak erronka handi/gizon edarra, beharrean kaxkarra/gizon guztiak ezbardinak gaituk/gixon txiki-xek, kapela aundixe/gizon txarrak aholku onik ez/nolako gizona, halako ohore/zelako gizona, halako otoitza/gizon estarri zuri eta emakume estarri beltzeta gorde gagizuz, Jauna, orain eta beti/gizonak manatzeko ohorea, emazteak kiderra/gizona ez du egiten gorputzak, baina bai gogoak/gizona dabil eta Jaunak darabil/gizonak asma, Jainkoak xeda/gizonak egin, Jainkoak in*”, etab.

*Zendu/saindu* dator hizkunetan eta hala aurkitzen dugu esaku-

netan: "gizkiak hil egin behar dau, ona izateko/hil adi eta alaba haite/hil eta gero guztiak onak/gizonak santu izateko berriz behar du jaio/zendu aurretik ez inor zoriondu, azagan ezagutzen bai-da gizakia" (Sir 11,28)/dohatsua, zeruan dagoen atsoa/zerura juteko, hil egin ber/jaten duen sainduekin ez fieu", etab. Edukin berekoa da behatu/beato hizkunea, behetituak doatsuen tokira joanak direla aitortzen bai-du.

*Enki/emky*<sup>(a)</sup> "Enki/jakin" adierazteko hizkunea sortu zan Akaden eta euskaldunok, *Xainko/xakin* egin dugu: *Batek ba daki/Jakinkoak dakitzu/Jainkoak daki Ama Birginaren barri/Jainkoak daki zer komeni zaigun/Jainkoari ez dio inork bidea erakusten/Jainkoak makilarik gabe joten daki/dakienetik begira hadi, ez dakienetik Jainkoak begiratuko hau/Jainkoa guzjakitun eta zuhurra*, etab. Hagatik aitortzen du aramear jakiduriak: "Gizakiak zerutik urgaziak izan dira, jakinduria zerutik bai-dator eta jainkoentzat ere estimagarria bai-da"<sup>3</sup>.

*Man/maina* edo *maina/mena* hizkuneak alde batetik ahalmena, agintea, indarra eta bestetik *maina* eta artezia jartzen du eta ziurtzat ebazten: *mainak indarrak baino gehiago balio du/mainie, bihera baino hobie/mainejue, indarrak baino hobea/Armak baino hobe trebetasuna*. *Mainak* mainatzen du eta menak men egiten. *Man*<sup>(ad)</sup> gizonzkoa dirudi, *maina* emazteena, *emarazi* "jabetu, baketu" bai-dino.

Bereizketako hizkUNETAN *zuur/zoro* daukagu, hatarako bokalez eta Ra posizioaz baliatzen dela. *Zuhur/zorga* ere egiten du, -ga ezkorra gehituz, baina *zoro* orde "ero" erabili ohi da-ta, esakunetan: *zoroak egin eta zuhurrak jan/zuhurrak ergelen lepotik bizi dira/eroa gomitatzaile, zuhurra jale/saietan zuhur, urunetan ero/ez da zuhur, ez dena erhoaren beldur/hobe da zuhur baten ustea, ezi ez erhoaren sinhestea*, etab.

Hitzak berezko artezia edo "esan eta egin" bezalako magia zuelarik, *izena/izana* hizkunea kudeatu zan, euskaraz ere. Haraz gero, asko eztabaidatu du euskarak berdinketa hau: *izena duen guztik ba du izana/izena duten guztien izana bada/izenik badu,*

*bada/izena eta izana, biak behar/izenarekin izana/izanaren itzala, izena/izana, izen gaitza/izen txarra, izan tzarra/izena handi, izana txiki/izena bata, izana bestea/izena eta izana bi gauza dira/izena bai, izana ez/izenak ez du egiten izana, etab. Hagatik, izenik ahozkatu aurretik, ez zen ez zeru ez lurrik (Enuma elish, 1-9)/“Izan denaren izena aipatu zan”/“abizen bako jende atzerriratua”(Job 30,8). Badago oraindio seme-alabentzako jende ospetsuaren izena aukeratzeko ohitura, izenak izana dakarkelakotan. Fedearen arteziaz, apaizak ere Jainkoaren izenean bedein-katzen du eta santuek Jesusen izenean mirariak egiten.*


*Esan/izan hizkuneak maizetzaile gehiago ditu: esan eta egin/esan, abadeak mezan/esanak bidea egiten du/esanak guban, eginak Jainkoagan/esan bai, izan ez/bai, esaten dan moduen bali-txeke/bat esan, betea egin/esatea errazago da eittia baino/esaten dien danak eta dira mezak izaten/esatea erreza, egitea gatxa”.*

HizkUNETAN *min/mihin* den bestean *mintsu/mintso* da, ots, samina eta hau adierazteko mintsoa. *Min* edukin ugariko hitza eta erabat hitz askoren ongarria: *mingotz, minkaitz, mingor, maitemin, ederman, gorrimin, pimerrin*, etab. Hagatik esan ohi da: *mindunak “ai” egiten du/min hartzen duenak “atx” esaten/min hartzen ez duenak ez du “atxik” egiten/non mina, han mihina/min emateko mihia eta eskopeta/min gutxi eta axanpa asko/min gutxi eta iletia asko/minik ez eta iletia/besteren minak ez du negarrik*, etab.

Hizkune asko eguneroko eskarmendutik frogara ditezke, baina nondik egizta ia oroimenetik galdutako besteak, adibidez, *otin/Otxin*, datorrena eta Lanzeko Miel *Otxin* pertsonaiaren erritotzko auziak gogoratu ezik? *Otin* “udigo edo gorroto” da eta *osin/otsin* “itxaso, acéano” esan nahi du. *Otina Otxini* egozteraino, herriko jendea su-bermatu egiten da eta suaz garbitzen egindako gaizkia. Su-ap<sup>(6)</sup>=Sube<sup>4</sup> edo Apsu<sup>(6)</sup>=Pozu, ur gezetako jainkoak eta Tiamat ur gazita-

4 *Sube* eta Sugoi eta Sugar ere Mariren senartzat ere jo izan dira, zubi antzeko sutan agertzen omen ziranak. *Sube/Sugoi*, bata ur gezeko eta bestea aideko su dira, beko eta goiko *Utu*=eguzki bezala. Ur gezetako Sube/Ap-su eta ur gazitako itxaso=Mari=Tiamat<sup>(6b)</sup> bizitzaren sortzaile izan ziran. Sugoi Marirekin elkartzen zenetan izaten omen ziran, harri, kaskabar eta gainerako kalteak.>





Miel *Otxin*, *otxin/osin* personatua, soineko margo minez jantzia, sumeriar antzeko txunturroa buruan, Lanzeko Inotean. “Miel” izena *mela* “busti”, *milu*, *mielga* eskata bako ur gezetako arrain muetatik datorke. Antxinako osinak “Océano primordial”, Ap.su<sup>(a)</sup>=Su-ap<sup>(s)</sup>>Subeak bezala inguratzen zuan lurbira, lurra bere gainean tinkatu zenean. Bertatik sortu ziran ibaiak. Ibaiko ur gezak ur gazien itxasora doaz. Otxin eta Itxaso=Ap.su eta Tiamat dira bizitzaren iturriak. Hasiera baten, jainkoak eta munstroak sortu zituzten. Jainko gazteen eta jainko zaharren arteko otina sortu zan, batak bestea garbitu nahiez...

ko jainkosak, lehen jainkoen sortzaileek, munstro galgarriak ere sortu zituzten. Jainko gazte ta jainko zaharren arteko *otina* sortu zan: gazteek zaharren loa eragozten zutelako eta zaharrek munstro galgarriak sortzen, *Enuma elish* poeman kontatzen den bezala. Urteko izurrite, gornite eta gainerako kalteak *Otxinen* juzoan erretzea ontzat eman zuten asabek antxinatean, hako Aste Santuan Judas, damurako edo pekatuen parkamenerako makilatzea ere ontzat emana izan zen bezala. Honela, euskal hizkunea euskal errittoa zaharra eta berria azaltzeko bidea egokitu zaigu eta antxinako mitoak azaltzeko hermeneutika trebea.

*Sorte/sortze* hizkuneak *sortzeak* bakoitzaren bizi *sorteaz* edo *suerteaz* zerikusia duela dino. Hagatik umearen jaiotzan halako izarrak, halako keinuak eta izenak aztatzen ziran eta umeaz igarizunak egin “umea hau ta bestea izango da”, bada “*jaiotzetik dakar/de narturaleza/berezkoa du*” esakerak esakuneak inutu dituzte: *kopetan izarra jaio zan/jaiotzeko siñuk segituko dio bizi den arte/halako sortze, halako jaidura, etab.*

*Subetzar* eta *Irainsubia* muntroak ere otin horretako sorkariak dira. *Su>suino* “errea” eta *pozu>pozoin* (gehiengoan) gauza bera dira: erresumin galgarria.

Hizkune eta esakuneak jakinduriaren lezioak direnez gero, jakinduria zaharra eta jakinduria berria bereizteko bidea direnetz aztertu behar dugu, jakinduriaren ikerleak horrela bereizten bai-dute herrien jakinduria haroak.

## **5.2. Hizkuniketik esakunera izadi jakinduriaren eskola**

Izadiko jakinduriari "jakinduria zaharra" deitzen zaio, gizakiek haren eskolatik ikasi zutelako lehendabizi: zeru-lurren orekak, mendi ibarren erronkak, abere uzuen arrandiak edo xomorro txikien arteziak eta amatasunaren mainak harrigarritzen zuan. Eredua ikusi eta lezio argiak atera eta jarraitzea baino ez zuan: *eguzkia, egunaren argi, ilargia gauaren argi/zerua, ur gozoen antepara, itxasoa ur gazien aska/nasa, ur geza eta gazien bilkura eta arrabaren naza/gizonezkoa da ur geza, andrazkoa, ur gazia*, etab. Ordukoa da *nasa/naza* hizkunea, batak bestea dekarrelako, edo *ur gazi/urgazi*, urgaziak ur geza urgazten duelako, nasako eskolan edo gizakia amaren umetokian gatzatzen delakoaz (Job 10,10) "sortu", *gatzatu* ere esaten bai-da. Hagatik Jainkoak emakumea sortu zuan gizonaren *urgazle* (Has 2,18), hagatik Sumerreko Baradisuan Enkiren emazte, *urgazien* ordezkariari, *Ursag* Andrea<sup>5</sup> zeritson.

Gaurko oharkizuna, ekologisten begietatik-edo izan ezik, harri-garriotatik ate dago eta ez ginateke konturatu ere egingo, idazki zaharren bidetik antxinako mitoen eta jakinduriaren berri ez bageneki. Ordukoak ziran antxinakoen kosmologia osatzen eta, hareago, hizkuntzaren arketipoak biltzen dituzten beste hizkunik ere: *Inu/uin, Utu/su, Erra/aire, Ilu/loi* edo *Ki/giza, Ba/baita* eta *Ax/haize* ahots eta elementu beheinenak.

### **5.2.1. Hizkuniketik esakunerako An izadi eskola**

Hizkuneak jakinduriaren bide zaharrak ezagutzera eramaten gaitu eta nolabait gizaldietako aments edo amesetatik itxartzen: hizkunea non, han dagoelako hitzaren gunea. Euskararen hizkunik ez baliatu ezik, hizkuntzalaria erraz deslai daiteke *mente* eta

5 *Enki and Ninhursag a Paradise Myth*, III, ANET- 36-42

*amens* latinaren altxorreko egiten eta, beraz, *mentu/mendu* hizkunearen sorgua han ipinten, eta ostaz amoremango *enkein/engañ*o hizkunea ezeze, elkarren eratorriak liraken.

Mendiak jainkoen jarleku zirena aztu duenari inozokeria irudituko zaio *mendi/mende* hizkunea onartzeari, baina jainkoek *menditik* agindu eta *mundua mendetzen*<sup>6</sup> zutela uste zuenek hala eratu zuan hizkunea: *mendi/mende*, *mente/mende*, *mentu/mendu*, etab. Gaur bertan ere, mendira igoten duenak, ikuskizunaren eraginaz, aurrean dauka zer den nagusitza eta mendetza, edo herri jakinduriak dinonez: *mendiak gorago*, *bazterrak ederrago/mendiak lauda*, *zelaiak auta/mendian sortua*, *mendian laket/mendiak ez dauka mendien beharrizenik*, *gizonak bai*, etab.

Ohargarria da *anze/anzi* hizkunea erderazko “arte/magia” dino edo *antze/antsi* formulak, *ansiatzen* duguna irudian *antzeztu* eta haren gogoraintziaz baliatzen garelakoa adierazten du. Gizakiak beti antzetu du Jainkoa bere irudira, Jainkoak ere bere irudira egin zuelako gizakia. Hor dagoke gizakiaren sorkuntzako *anze/ansiarren* antsia, jainko irudiak anzez antzeztuz, zurezko, harrizko edo urrezko arte lanak sorrazten duen *anziaz* jabetu ahal izateko. *Ansi* “nahi” dager esakunetan: *nahi eta ezin/nahi eta behar/nahi ta izan/nahi izatia ahal izatia/gure nahai eta Jaungoikoarena ez dira beti bat/inork eztauka nai dun guzia/nahi dana ezin danian, ahal dana in behar/nahi duenak ahal du, nahi ez duenak guztia galdu/nahi denerako, beti da astirik*, etab.

Nahi eta ezin tirabira honek sortu du *nato/natu* hizkunea, Antu ama jainkosaren umea sortzetik *natutua* ikustean. Zer dela-ta *nato/natu*? “Jaiok eriotzea duelako zor”. Heriotzea zor badu, ezbaigabe, zerbaiten akatsa du, “*ez bai-dago akats gabeko pertsonarik*”, herri jakinduriak aitortzen duenez, eta *jaiok hiltzea zor/jaiotzea*, *beste kulpariz ez/danak larri gorri jaiotzen/jaio ginanetik hiltzera goaz beti/jaio ta hil, denak berdin/jaioten da hiltzeko, hilten da jaioteko/jaiotzeko ate bat, hiltze nahi hainbat*, etab.

*Nabustu/nabustu* hizkunetzat hartuez gero, Neolitosko langin-

6 *El Diluvio*, 44, ANET,42-44

tza dugu begien aurrean *nabusiak* bere arloa *nabasten* bai-du. Baina analogia arlotik arlora doanez, norik har lezake bere arlorik maiteena *nabasteko nabastarrea*? Halatan, “norik lantzen ditu *na-shuba*<sup>(6)</sup> harriak beretzako” galdetzen du Sumerreko maite jakinduriak Inanna eta haren senar Dumuziren arteko auzian”<sup>7</sup>.

*Inko/ungo* hizkunea ere galdutzat ematen dugu bake/gabe<sup>8</sup> ezko-rran oinarritu zenetik. Baina, halaere, bakea aipatzean, Jainkoa aipatzen da sarritan otoitz eta agurretan: *Jaunaren bakea bego beti zuekin/bakea dizuela Jainkoak/aintza zeruetan Jainkori eta bakea lurrian haren gogoko gizonei/Jaunaren bakea, bijoa gosea, betor gosea/Bakea dagoen tokian, Jaungoikoa eta ogia, etab. Zer dela-ta? Bakea ez delako diruz erosten.*

*Mari/marra* ere euskarak azaldu dezaken beste hizkune bat da, beste hizkuntzak alperrik ari izan bai-dira *Mari/mare* “itxaso” edukinak aztertzen. *Marra* “muga” da, *Sumer*, *Marraketx* edo lur edo ibai mugetan, *Zumarragan* agertzen diren bezala. *Mari/mare* den aldetik, *Otxin*=*Tiamat* du gogotan, eta *Mari/marra* den aldetik, gizakien jarrera xedatzen eta markatzen diguten *marrak* aipatzen ditugu: “*ez ostu, ez gezurrik esan, ez inor hil, ez harrotu, nagusiei dagokien dedua eman, eman hitza bete eta elkar lagundu*”<sup>9</sup>. Oharrok Lege Zaharreko *marrak* dira eta jakinduri zaharren argi bideak. Amaren mainako manamenduak dira edo *Maat*<sup>10</sup>>*Maidi* jakinduriako jainkosaren oharrak, norbere burua egiten dutelako erantzule, *gezurtia bere ahotik galtzen* epaitzen denean bezala, edo *ez egik gatxik eta ez euk bildurrik*. Gizarteko

7 *Pride of pedigree*, 30-40, ANET-637-638. CF: *Na-shuba* “harriak” eta *shuba*<sup>(6)</sup> “harriak” “*zubiak* (makurrak)” dira eta *nashuba/nabasi* itzuliketa dirudi eta *nabasi*>*nahasi* datorke. “Nere anaia Utu ez balitz, hi kalean hagoke” dinotsa Inannak Dumuziri eta Dumuzik berari: “Ni banaiz Utu edu” (Ibi. 1-10). Dumuzi “Utu musu” Tximixo da euskaraz eta Tammuz<sup>(h)</sup> eta Dioniso<sup>(6)</sup>.

8 Ba gabeko Ka dago bakean, hilerriko tonban. Halako bakearen zale izan ziran Erromakoa bezalako enperioak, “solitudinem faciunt, pacem appellant”.

9 SORAZU, E. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c. p. 290.

10 Maat, jakinduriaren jainkosa Egipton, Ra jainkoak berari gomendatu zion izadiko ordena eta zenduen bihotzak, on eginak eta gaizkiak, pisatzen zituan matematikoki bere aztailuan. (CORTEGGIANI, “MAAT” DR., o.c., p. 1047)

aginduak, ostera, Hammurabi erregearenak bezala, maiz indar zale eta ankerrak dira *“begia, begi truk, bizia bizi truk”*, etab.

Ba dago ostaz ulertzen dugun beste jakinduriatzko esakerarik, *ñaiño=inanne<sup>(l)</sup>* adibidez edo *Inkoak in, gizakiak egin* esakunean. Zer dela-ta, *Jainko in eta gizakiak egin? In* “Inko ekintza” delako *intz, inontz, inatazi, inusturi, inisitu, uin*, etab. sorkarien izenean edo *in-* aurrizkiaz indarturiko aditzetan aitortzen dugun bezala. Gizakiak, ostera, bere Ka ganoratik *ekin>egin egiten* dihardu, eskuarteko lurra edo materia lantzen. Hagatik esaten da *Inkoak lenena bere burua in (egin) zuan eta gero gainerakoa*.

*Ainanino/inanne<sup>(l)</sup>/ñaiño* hizkuneak ere ba du mitorik eta historiarik, antxinateko idazkizunetatik euskarara eta latineraino. *Anunna<sup>(s)</sup>* “*ainanino=aingeru*” eta *anunnaku<sup>(s)</sup>* haien ondorengok, Tiamat jainkosari men egitearren, lanera zigortuak izan zirenak, eta hagatik *ñaiñi* “zuntzun” hautematen direnak.

*Inutu/iñozo* dator Inoteko *inude* eta *iñozoe*n erritoan agertzen denez. Hortik latinak *inoxu* “*iñuxente*” egiten du eta *noxu*, berriz, “errudun”. Inuxenteen lepotik nahiko barre egin izan da: *Inuxente potente, txakurren buztena tente/Inozente kokolente, kokoak janda bozt arrautze*, baina bai otoitzik ere: “*Santa Barbara, Santa kruz, Jauna balia zakiguz, inozenteen ogie, Jauna miserikordie*”.

*Nekatu/neccare<sup>(l)</sup>* dator bere bidetik: *nahi+ka>neke*. Euskarak “*lana, pena*” adierazteko darabilena *neku<sup>(g)</sup>* eta *neks<sup>(l)</sup>* “heriotza” esateko darabiltena, guretzat *nekagarri* dena, eurentzat heriogarri. Hala ere *nekea* bizitzarekin lotzen du jakinduriak: *nekatuta jaio zan/neke gaberik ez da bizitzerik/nekea bera ohatze/nekea, betetzeko estea/Errezil, nekez bizi eta errez hil*, etab.

*Manatu/mandar* “agindu” dator euskaratik gaztelaniara. *Gizona=man<sup>(al)</sup> manatzaile* eta *emaztea amainatzaile* eta *maneatzaile*? Esakunak dinona: *gizonak manatzeko ohorea, emazteak kiderra/manamendu guztiak dira erraz, amorioa duenarentzat/besteak manatu aintzin, mana zeure burua/langile txarra, manataile ona/manatzailek jakin behar du noiz manatu eta noiz ez/manatzea maiz gaitzago, egitea baino/manatzaile aski, egile gutxi/ez dakienak men egiten, nola jakin manatzen?/*


*maina duenak mainatzen, mana duenak manatzen, etab.*

*Moztu/motz>moza/o dator eta mut/murt “mutu, mortu” (Motu zeritson Ugariten mortuko heriotzaren jainkoari) Heriok korainaz bizia motutu>moztu egiten du, artaziek mutikoen hilea adinduen erritoan, hilemotx/motxil/mutil gelditzen direla, arketipoen itzuliketaz. Gainerakoa analogia da, mutil/neskatil akaberak bezala. Herri jakinduriak neska-mutilen jokerak jorratzen ditu: neskatila mutikoak sasirik sasi, asko jan ta gitxi ikasi/neskatoa eta mutikoa, ez aberatza ez kiskila/ez estupa ixindien aldean, ez nezkatoxea mutil gazteen artean/mutil ondoan neska, geldi egoteko ez eska/neska mutil-zaleak ankak arinak ditu, ankak arinak eta burua arinago, dantzan hobeto daki artajorran baino, eta.*

### **5.2.2. Hizkuniketik esakunerako Utu izadi eskola**

Izadiko jakinduria izadiko agerkarien sorgile diren jainkoen arketipoez edo jainkoren baten analogia jarraitzen duen arketipoez adierazten dira, batez ere. *Otu/otoi* berdinketak Utu iduzkia *otu* “gogoratu” duenak, *otu* dueno, *otoi* egiten diola dino. *Odoi/otoi* ere lotugarriak dira. Utuk *Odoi* antza hartzen duenean, trumoia da eta *odoi/odeia* aratzeko *otoiak* egiten ziran eta hatarako kanpaiak jo eta arriskuari aurre egiteko ermitazain bereziak autatzen ziran. Esan ohi denez: *odoiak joten duenean otoia otu/otoi sainduri deraunsano ekaitzari/otoi Jainkoari, baina uholdera ez jauzi/otoizten ez dakiana Jainkoari, berraio itxasoari/trumoie danean, Santa Barbara/hobe da trumoia, errogatiba baino/oreixe dagonan, elaiak lur ondoan egaxien*. Bide beretik datoz *etoi/edoi*.

*Itaun/itun* hizkuneak eskolako ariketa gogorazten digu, beraz “*nolako itauna, halako ituna*” araberan iharduten dena: *zelango itauna, halango erantzuna/galdera nola, erantzuna hala/itaundu gabeko ituna ematen duenak itauna ta laguna galtzen/itun zaleak norbere burua aholkaten du/itun ona aitonak/Zaharraren kontsejua, urrea baino hobea/aitonaren ituna eta dirudunaren txanpona/bestentzako ituna, beretzat nahi lukena/zaharrak badeu zer esan eta gaztiek zer ikasi/zaharra da liburu, haren esana dagigun, etab.*



Mispa uri ataurreko torreak. Halaxe gotortzen ziran antxina Babiloniako eta Feniziako uriak, etxekoen gordegarri eta etsaiari aurre egitekotan. Ate uritu>ortu borta>porta<sup>(1)</sup> gizatu da eta bote-rearen irudi gertatu. Ate/ataka, atari, atale egiturek hizkuntza askotako edukinak analogizatze-ko uea eta adikunea prestatu du: atotsi, atoratu, atatu, atera, aterri, atertu, atarri, atarratu>asar-ratu, atela, tela<sup>(2)</sup>, ateleka, atacar, atizar, atracar, atomau, ataurre>torre>dorre, torreko/gotor, atale+uritu/bortale, bortitz>fortis<sup>(3)</sup>, forte/fuerte. etab.

*Ituna/isuna* dator hizkunearen arian, *ituna* batzarrean onartutako aholkua denean. *Itunak* denentzako lege *itunduak* direnez, denak betetzera behartzen ditu eta bihurriari edo alperrari *isuna* jartzen zaio zentzunera etor daiten. Beraz *ituna*>*isuna* gizarteko jakinduriaren arrastoa ere bada.

*Done/don* hizkunea “sandu/jaun” esatera etorri dena “Andre Dona Maria”, “Jaun Done Joanes” titulo bikoitzera erabilia izan da eta bere aurretikoak *Aton*<sup>(4)</sup>/*Adonai*<sup>(5)</sup> “jaun” jainko izenak dira, eta jainko askok *Jaum* tituloa zeramaten Akaden<sup>10</sup>. Bestalde jainko izena “santua” zan, beraz *Adonai/Done*. *Doinu/soinu* eta *dona/sona* “andre/eder” ere elkarrenak dira. Latinoen *Domine/Domina* formek ere ez duté beste sorgurik. Herri jakinduriaren arabera: *Donean dontxoa nere gizontxoa/Don Meteri Zeledon, porru-erein aro on/Donianeko euria, garien galgarria/Gaur dala bihar dala Doniane, etsi San Juan biaramone/Dominus vobiscum, agindu eta emon ez eioskun*, etab.

*Duin/dueno* “duena/jabea” esan nahi dute; “*duena/duina* denez

10 Akadiar idazkietan (K.a.2.000 urtegarrenerako) izen askok *Jaum* tituloa zeramaten. (“Yahvéh” (IV) Dic. B. o.c., p. 2054-2058)

gero, *duin*>*deinu*>*dignu*<sup>(1)</sup>>*dino* dator euskaratik latinera eta erromantzera. *Duin*>*zuin* kalitatearen galdekizuna sorrazi du eta jabegoaren *zuinak* edo *sortea*. Duintasunean ba dago esakunik: *norbere duin/txikiena ere bere duin, Jainkoaren eskuetan/norbere duin ez dena ez da ezeren jabe/beredin dena berdin*.

*Txoin/soin* hizkunea “duin” hitzaren eratorriak da. *Txoin* “ogi fina da, ots, *duina*” eta *soina* norberak sorbaldan edo gorpuzkeran duena, beraz, hizkuntza lekuko: *soinekoa soinerako/ez dut soinean dudana besterik/ez du irauten soinekoak soinak (gorputzak) adina/soinekoetan edozein ez da soinaren duin/soinekotik ezautzen da nor den duin/soinekoak ez du egiten fraidea, etab*.

*Zindo/zintzo* dator, kalitate fisikoa moraltasuna adierazteko analogizatzen dela gehien bat: *intxaur zindoa* dator eta *mutil zintzoa*, edo *gorputzez zindo* eta *gogoz zintzo*. Zintzoa, sinisgarri biak ere *zin* errotikoak bai-dira. Jakinduriak *zindoak* usteletatik berezi eta *zintzoa* aztertzen du eta nori *sinetsi* aholkatzen: *sagar ustelak zindoak ustel daroaz/zindoan artean ustelak/den zintzoena ere erorkor/zintzoari emango sari/zintzoari opila, oke-rrari makila/ez sinistu gizon gaiztori, guzurra dariolako hala-koari/sinetsi Jainkoari zeruan eta amari lurrean, etab*.

*Itotu/itxosu* hitzak elkarrenak dira eta Uturen ekintza aipatzen dute, Utu egunero itotzen da *itsoso/itsasoan* eta egunero handik *itoitzen*. Beraz, Utu otako eta Utu iburniko bereizten dira eta iburniko hau da *Su.ap/Sube*<sup>11</sup>, Otxinen partele. Geroztiko jakinduriak ere hizkune hau esakeretan lotzen du: *itotzekotan ur handitan/itxasoa irago eta bazterran itto/itxasoak eman eta eraman/itxasoa, ura eta zerua eta konforme ez dana ondura, etab*.

*Otso/“oso”* bata bestearen eratorrik dira, biak koba zuloetan-eta bizi diren pisti *uxiak*. Koba zuloak Utuk bere bidean eginiko zirrikituak dira. Bidean zaindari, tartaloak eta pisti *txutxuak* autatzen ditu. Itxasoan *sube* dena, lurrean *tsobu*<sup>(ast)</sup> da, hau da, *otso*.

11 Horrela ulertzen da *at/-at* aurrizki-atzizkiak hitzari eta aditzari ematen dien oreka: *etxerat, atoratu, etab. eta so-, sub-* aurrizkiak aditzei ematen dien “azpi”=*sub*<sup>(1)</sup> jokua: *sopindu, socarrar, soberatu>superare*<sup>(1)</sup>, etab.



*Otso*>*oso*<sup>12</sup> aldaketaz, larrua aldatzen dute kobatar pistiok, ez *uxuta-suna*. Besterik da *Utú*>*uso* aideko bere hegazti maitea (Ikus 18 or.) lurtarrontzat eredu gehiegia: *arin eta eraz, usoak hegaz, esateraino*. Esankunetan maiz abereen lezio zaharrak gizarteko jokerak itxurgatzen ditu: *otsoa ez bada, artza/otsoak artzari min leyo/otsoa artzain/otsoaren ihesi nembilela, bat nendi artzareki/otsoa aipatu eta otsoa agertu/otsoa aipa, han gerta/otsoa ardi larruaz estaltzen/otsoa eta ora, ardiki jaten batera/otsoak ez du negua jaten/otsoen artean, zakurra alboan/otsoak dagikena erroiari laket/otsoa zulotik ateratzera ez joan lenbizikoa/kalean uso eta etxean otso/otso larririk jaunts ez dezala, ez balin ba diik entziin otsoa hizala, etab.*

*Ate/atze* bereizketako hizkunea da, atea aurretik egiten delako ez ostetik. *Ataka*>*atakatzen* da eta *ostea*>*ostikatzen*>“ostigar”. Hagatik uriko *ataurrea*>*torrez* takatzen da *atake* aldirako. *Atari/atarri* gertatzen sarritan, *atale/azal, ataldu/azaldu, azaletik* hara, barrua erakusten bai-du, *ataka/azaga, takatu/sakatu, tartetu/zartatu* etsaiak horma zulatzeke modurik ez duenen ohi bezala. *Ate*>*atx*>*aitz* ere bada *Utú*, bere satu-urtenetan halako *ateak* dauzkalako. Analogiak hitz sortzean eta erri jakinduriak esakunetan usu erabili du *ate* eredua: *ate haina maratila/zenbat ataka, hainbat matraka/ate bat ixten denean bestea irekitzen da/zenbat eta ate zabalago, lapur gitxiago/edukan eure atea hertzirik eta ez erran eure auzoez gaizkirik/nondik atera ez dakizun tokian ez sartu/ate-tik erten ta leihotik sartu/nolako atal-aurrea, halako etxea, etab.*

*Atelekak* eta *atarriak* atarian izan ohi dira edo atarrian ipurdikoren bat daroe, hagatik *atarre/hasarre* dator, *atarratu/hasarrratua* bezala: *batek gura ezpadau, bi asarretzen ez/beti asarre danak bere burue ondatzen dau/etxe huts, haserre uts/ez du behin ere gizon haserretuak behar den neurria begiratuko/haserreak konpontzera ez inora joan/haserreak surik gabe irakitzen du/haserrekorra, eroa/haserrekorrak nahiko du uliaren ostikoa haserretzeko/asarratzen danak, adizkidetzen lan, etab.*

*Atakaria/azagaria* da baten hitzetik ortzera, basoan baino base-

12 Artean erdal etimologoek merke esango dute *ursu*>*oso* datorrelakoa, baina *urxu*<*Ra*+*Utú* arketipo bikoitzeko *usoa* ere ba da.

rian errazago prestatu izan bai-zaio jakia: *azagari>azeari>azeri* dator eta herri jakinduriak kontu handiz aztertzen ditu bere jokerrak: *azagarria oilozain/azagarie oiloa dauen lekure doa/axeri zaharrak tranpian txixa/azeri zaharra, beti goiztarra/sortzetik du azeriak maltzurkeria/joanarren azeriari ulea, antza berea/badu ere azeriak biloa uzten, bere izatea ez du biluzten/azeria dotore agertuagaitik, beti azeri/azeria ta otsoa, auzo batekoak/azeriak artea edatu eta bere buztana hartu/azeriak buztana luze, beste danak hala dutela uste, etab.*

*Tarte/tarde* ere elkarenak dira eta aldia adierazten dute “intervalo”, jatorriz euskara/erdaratzat dauzkagunarren. Tokiko *tartea* aldizkoa egiten da arratzaldean, eguzkia sartu aurretikoa, hain zuzen, eta *tarte>sartze* dator analogia eta hizkune berak lotzen dituela, *sartze/zahartze* bezala, izan ere, eguzkia *sartzean*, *tarde* “berandu” da. Semantikaz *tarde* “berandu/berant” denez gero, (ots, *beherantza* doan eguna) “goiz/berandu” jokuko esakunetan ugaria da, “goiz gizon, berant eskon”, adibidez.

*Sartu/zartu/zahartu* hizkuneak ere iduzkiaren analogia berberaz datoz, bizitzak hainbat *dartada>sartada* ematen ditu eta *tartegina>zartegina* zuloan *sartzen* bai-da. Herri jakinduriak esango hizkunea esakunera datorren: *zahartua, ezindua/zahartzaroan ittuinak/zahartzarotik inor ez da pasatzen/hil da zaharra, urria da nigarra/tori zaharra eta ekarri berria/zaharra bada sendatu, deabruak ezin akabatu/zahar ele, zuhur ele/zahar nendin, zora nendin/ez dezala trüfa zaharra, izan beit da lehen hi bezala/asko daki zaharrak erakutsi beharra/behin zahartuz gero, gauza onik ez/gauza zarra, bera lar/iragana, zaharraren odola; geroa, gaztearen axola/naiz ta zahar ta jakintsu, zuhurrak hartzen du abisu/zaharra hurreko gauzez oroit/zarrago ta txarrago/zaharra, zuhurra/zaharrago ta beharrago/zaharrak badeu zer esan, gazteiek zer ikasi/zaharra oroitzapen asko eta itxaropen gutxi/zaharren umea, martzuka/zaharraren kontsejua, urrea baino hobea/zaharrek, atzo, atzo! Gazteek, etzi, etzi!, etab.*

*Tammuz<sup>(h)</sup>/damuz* hizkunea *Dumuzi<sup>(s)</sup>* jainkoarekiko dolutik analogizatua da, bada, izadiarekin batera urtero hil eta berbiztera be-

hartua edo *damnatu*<sup>(1)</sup> zegoen eta Inanna emazteak *damu* zuen *Dumuzi=Tammuz* senarraren heriotza. Hala ere *damu* edukina gehiago erabilten da norbere gaizki eginen garbaitzat eta *dolu, dolumin*, berriz, norbaiten heriotzagatikoko damutzat. Herri jakinduriak zera dino damuaz: *damua garaiz/denbora joanez gerozko damua/ez dut damua baino desohoria handiago/damu dot, Jauna, elizan eta kalian/ondo eginen damurik ez/damua poltzikoan baneuka/damuak ez dauzkat urretan/damutzen eztanak ezteko parkamenik/damurik ez, parkamenik ez, etab.*

*Toro/soro/sorho* dator berari dagokion *soro*-lana kontuan izanik edo maiz bere *zoro* jokera itxuari begira. Hain zuzen, *zorotasun* horrezaz uztiatzen dira plazan toriatzaileak. *Toroa* trapu mugikorren doa, erraz *atoratzen* da, *azoratu* diharduelako. Baina nork oratu-ko dio adarretik? Hagatik esan ohi da: *zezena ta zoroa, gaizki hoi en ondoan/hobe zezenen adarretatik ihes egitea*, etab. Gainontzekoz, *sorotu>sortu* dator, *soroa* lantzetik bai-dator ekoizpena eta lurraren *sormena*, ots, izadiaren eta gizakiaren harteko eraginetik.

Ondo dator *hizkune/hizkunde* bikoitza ere, *hizkune* ohiturak egiten bai-dute *hizkuntza*, *mokau txikiak* oturuntza bezala, edo eta jarraiko notak armonika guztia osatzen duen lez. Gizakiak izadiko liburu idekitik, izaki guztien xedetik, oratzen ditu bere esakerak, alde batetik ikuskina eta bestetik sentikera nastatzen dituela. Horrela gelditzen dira jakinduria zaharreko eta betiko lezioak: *odei gorri, haize edo euri, hegoa ezpaladi/odeia euriaren anaia/idiak min, gurdiak ino/idiak behar eta zintzarriak erosi/idiari adarretik, gizonari berbatik/idiak gurdiaren aurretik*, etab.


*Oso**tu/osatu* *hizkuneak* dinonez, *osotasunetik* dator *osasuna* edo *osasanak* *osotu* egiten du *gizakia* eta, beraz, *osasuna* lortzea du *ames gauza* guztien gaineretik. Hala azalduko du *esakunetan*: *guztio**k osasun ona, gaisotu arte/nahiz deus ere gabe, Jainkoak eman digula osasuna/osasuna errexa galtzen, zaila bilatzen/osasuna ta bakea, zorion betea/osasuna ez da erosten, Jainkoak emon eta Jainkoak kentzen/osasuna ez da dirubarekin pagatzen/osasuna galtzen dunak dana galtzen du/osasuna munduko ondasuna/osasuna ta bakea, hoiek edekiko zeruko atia/osasanak zer balixo daben eztakigu galdu arte*, etab.

### 5.2.3. Hizkuniketik esakunerako Erra izadi eskola

*Erraren* sorkuntzako hizkuneak ardurazkok dira eta egitiar teologiarekin bat datoz: *erra+in>errain>erain=Errak in>eragin, errain/erein* Erra dela egile, Erra(re)n erraiak ereile, edo Erra(re)n une=muina errule: *erra+un>errun* eta, azkenik, Erra(re)n *errainak* haren *erranen* pareko: *errain/erran* egokitu edo “Erra(re)n errana eragile: *erran/erain* “esan/eragin”. Azken hizkune hau ugaria da esakunetan: “*errana, arrena/erranak erran/erran ezin eta oihu/erran orduko ina/erran eta egin/erran gaitzak egin gaitza dakarke/erratea da aisa, egitea da latza/errana erran, emana eman/erranak eder, eginak lander/erran zaharretan gezur gutti/erran asko eta egin gutti, etab. Hizkuniketan erain/erein* bikotea berezia eta elkarena da: *erein garixe lokatzetan, artue autsetan/lelengo erein in bide, gero batzeko/nola erein, hala bil, etab. Durundi fisikoa eta ahozko eskariak mihina dute biak eta arran/arren* datoz hizkunean eta esakunean berriz: *arranak mihin, erranak min/mihin bako arranak ugerrak jan.*

*Haur/aurre* hizkuneak *haurra aurrerako* azkasia dela dino, sendiak *aurreratzen* duen oinordekoa. Abereez ere, *aurradarako* esan ohi da eta diruaz, *aurretu>ahorrar*. Ea hizkunearekin nola datozten esakuneak: *semeak dituzuenak ezkola itzazute haurretik/haur duenak anhitz behar, eztuenak gogoan behar/haur maite, haz aite, ezten ara higa aite/haur txikiak sukaldea saneatzen du/onean eta gaiztoan beti pentsatzen da haurrer/haurra duenak, haurra lan, etxea duenak, etxea jan/haurra eri, denak eri/haurrak ez dute kargarik jasotzen, baina kontuak bai/haurrak hazi, nekeak hasi/haurrak aita-amei dagotzi beti so/haurraren jaiotza, etxerako poza/haurrik eztunak, ez haur abegirik, etab.*

*Horus<sup>(6)</sup>/Urzi* jainkoa oroituaz batera, *orhoa* edo *orazione* ordua da, hagatik *oroi/orho/orro>orare<sup>(7)</sup>* hizkunea eta herri jakinduriak dinonez: *oroi, otoi eta jarrai/oroimenari ez jako akabetan denpora/orroa ez da arrazoinaren seinale/orroaz ari den ardiak jan gutxi/elizara joan eta belauniko jarri, lelengo orazinoa nere mai-teari/orazino laburra, zerura, etab.*



Obi *aurrean*: Guraso zenduen (exerita) *orez*, semeak *erreopariei orioa erioten* die, ezkerrean *erexegiteko* intzentsugailua duela. *Errekaia* bera da zenduen *errekeitu*=ogi eta bizien *errekei*=eskari, eta beraz, *errekai/errekei* hizkunea egina dago, latinez *rogu*<sup>61</sup>=*erreoparien* mahaia eta *ruego*=*erregu* gauza bera den bezala. *Erreoparien* azpian *errekina* prest dago. *Orhe/orekaietan* molde askotako opilak, zenduen jaki. (Uturi ttoinak) *Erretu*>*errezu* dator, *errito* ekintza hanarteko hitzarekin bat datorrela. Mutila gurasoen aldeko errezuak egitera doa. (Pijoan, J., *Summa Artis*, III, o.c., p.434)

*Urtea/urtza* da, *Urte* Berrian *urteko* uren multsoa=*urtea*>*urtza* zozkatzen zan *erritoaren* arian. Hagatik esakunak *urteak ekarri*, *urteak eraman* edo *urak ekarri*, *urak eman* dino. Zogi egon behar zan zozka edo zotalegunetan, *Urtarrileko lehen hamabi egunak*, *zotalegunak*, bai ziran, hau da, *urteko total egunak*. *Urtearen* lehen eguna bizi-epe berrira *urt* egiteko atea da: *urtea* "salida", eta "Januariu"<sup>61</sup>=*Urtatz*=*Urtarril*, haren atea. "*Orden/ordek/ordizie*=*urteizue*" dino uren sorteko *erritoan* sortu bide formak. Herri jakinduriak honela gogoratzen du: *Urte Berri zereki? Urteko Eguberri guziak hareki/urtaldi txarrean onaren begira/urtaro bustia bada*, *azaro/urtarrila bero*, *zinkurinak gero/urtarrila euritsu*, *urtea dirutsu/urtarrila urik gabe*, *urtea ogi gabe/urtarrila zuri*, *ez ardi t'ez axuri/urtatze elur askoz*, *lili Pazkoz/Urtebarri*, *ekarri-ekarri*, *dekonak ezte-*

*konari, nik eztekot eta niri, ezpabe txarri-belarri/urte bata da ama, bestea amaizun, etab.*

Balore bereziko gaietan *arrabio/berro>ferru<sup>(d)</sup>* dator eta truka-gaietan *erres/arras, erres/res<sup>(d)</sup>*, ohiek tratua *errazten* dutelako. Hagatik *erresatu/errezatu* hizkunea. Jainkoarekikoetan ere *erre-oparia*, “*rogu>ruego*” (ikus or.105 irudia) edo gari *erregu*-nehurria izan zitezken aldare aurrean *erregu* aurretiko *eregu*. Lenengo *eregu* eta gero *erregu*, beraz: *zelako ereguak, halako erreguak/errezu motza eta bazkari luzea/errezue luze, jana labur/errezuek santuentzako, limosna santuekin dabilzantentzako/bakoitzak bere santuari erregutzen dio/errogatiba baino, iparra eta ego nastea hobe/errogatibia baino trumoie hoba, etab.*

*Ordain/orden* hizkuneak gizarteko *ordena/ordaina* egiten du, ots, *ordaindu* gabe ez dagoela justiziarik ziurtatzen. Zerez *ordaindu, ordea?* Nolabaiteko kontsumo-gaiaz loturik dator. *Ordeum<sup>(d)</sup>* erromatarrek garitan eskatzen zuten *ordaina* zan, nahiz gariak Egipton izan begia. Hori urteteko *orden=aginduarekin* batera zertorken. *Ordek/orden/ordezie=“urteik/urtein/urten/urteizue”*. Jakingarria dogu herriak honetaz dinona: *ordeaz ordaindu/nori bere ordaina/hor dekon ordiez, opile/ordez orde egiten den justizia baino hoberik ez da/Jaungoikoak ordainduko dautsu/baldin maitatzen badituzute maite zaituztenak ze ordain izango dezute?/ordaina etorriko jatzu, kanea ateburuan/nahi duenari zuk ordainean ematea, etzakizkio itzuli, etab.*

*Eros<sup>(a)</sup>/Erios* “maitasun/heriotz” eta *ero/eroi* hizkuneak giza-kiaren jainko izan nahi eta ezin zoriak asmatu mito-ereduak dira. Elkarrenak dira, elkarrekiko tirabirak sortzen dituelako. Batak bestea erasten duela dirudi, baina funtsean batak bestearen mugak gainditzen ditu. Ezkonduen maitasun-lokarria *heriotzak* bakarrik eten dezakena dela dino erritoak, heriotzaraino eta haragokoa agintzen maiteminduak, “inork ez du maitasuna handiagorik, bizia besteen alde ematen duenak baino” aitortzen du maite-*erogoak* eta herri jakinduriak, berriz: “*maitasunak erotu/ero, baina bero/ero, otz eztena bero/guztiok ditugu ero harrak/presuna amurusa itsu da, erho da, zentzutik kanpoan da/eroa alai, zuhurra tris-*

*te/ero guztia sino/eroak bat eta bera zart/eroak berak soinu eta berak dantza/maitasun handia, nahigabe handia/maitasun handi, gorroto haundi/maitasunak eta gorrotoak, biak begiraldi zorrotza/maie dan gauzan ez da nekerik edo maite da nekea ere/egiazki maite duguna ahantzi ez/lelengo maitia, sua ta ezitia/maitasuna, haizea eta zoriona laster aldatzen/maitasuna itxua, etab.*

Bestalde herri jakinduriak pertsonatu egin du *Erio*, “*Herioa, begi gorri*”, “*Herioa, begi argi*”, “*Herioa, begi zorrotz*” dela dino, eta *Erioa* da, koraina gabe ere, hilkorren bizia mozten duen etoia eta *eroia*: *Erio/eroi*. Hala dakus herri jakinduriak: *gutienik uste-an, Herioa bortan/zu non, zure Erioa han/Herioak, begiak larri/Herioak, oin zauliak/jaiotzak heriotza zor/zelango bizi-tzea, halango heriotzea/heriotzak giltzik gabe ate guztiak ireki/heriotzak danak bardintzen ditu/bizitza laburra, heriotza ziurra/Herio da azken arerio, etab.*

#### **5.2.4. Hizkuniketik esakunerako *Ilu* izadi eskola**

*Iluren* legeko hizkuniketan analogia zuzeneko monosilaboak dira euskaren gomutan atxikiago gelditu direnak: *Ilu/lo* bikotean loa osasunari lotua ikusten du, euskal medikutzak, nonbait, loak lokunean lotzen ditu gure sentzuengandik sortu arazoak. Herri jakinduriak dinonez: *lo ederra, osasun edarra/logura danarentzat, edonun oie/heinean loak pausatzen, gero akitzen/goiz jeikia goiz gose, berandu jeikia loz ase/eginzak lo eta jango dek meel, gazteak lo handia gauez, zaharrak egunez*” etab. Baina *Ilu/hil* ere badenez, *lo eta hil, biok berdin* ere esaten da. *Ilu* jainkoari emana *ilutu* da sumerieraz eta handik analogizatzen ditugu *ilutu/loti*, beraz, *lo asko, bizi gutxi* esaten denean bezala.

*Iluren* sendiko gaiso-eragile deabru bati *ahu*<sup>(6)</sup><sup>13</sup> zeritzaion eta jantziak bezala oratzen zuen ahuldua eta, beraz, *ahu/ahul* dator eraso-lea eta eraso bezala. Herri jakinduriak honela dino: *ahulari, ahuleria etorri/ahula beti errudun/ahulek ahuleria berekin*.

*Ilu* jainkoa, badaezpadako nortzat ematen zan Sumerren, ha-

gatik gizakien adua duen Enlil jainkoa ere *Ilu* arketipoa darama atzizki, egitura itzuliaz Enlil/Elohim nor bera delarik. Enlil arpegi muker dager, eskuetan arkuia eta gezia dituela. (Ikus 18 or) Hagatik, *Ilu/hil*<sup>14</sup> dator, lehenago heriotik heriotu bezala. Bizitako tranze honek jakinduria asko du herri mailan: *hil arte bizia eta jan arteko ogia/hil da gero danak onak/hil da gero mejo ratuko da/hil nahi ez eta sufritu nahi ez/behin bakarrik hiltzen gara/besteen minbiziek ez du inor hiltzen/ez hil eta ez bizi/gixonak hil in behar dau ona izateko/len hila len oztu/nun hil behar eta harat joanen/zer ingu, ba! Hil arte bizi/orok hiltzea sor/hilak hil eta biziak bizimin/hilak lurrek jan, biziak bizi lan/hilek manatzen, biziek segitzen/hilek utzi ontasuna ez beza inor erdaina/hiltea errex da, bizitzeak ematen du lan, etab.*

*Loak lotu* ezik, bat *loka* gelditzen da, hedeak askatu dituen zaldia lez, edo ideak galdutako burua. Hagatik, *lotu/lokatu* bereizten da hizkunea eta hizkuntzak lokarri berberaz analogizatzen du soineko eta gogozko arazoa, *lotze/lotsa* datorrela. Herri jakinduriak axolaz ebazten du arazo auskor honetan: *lotzie ate ostien itxi/lotsa galdu duen emakumie, hezirik gabeko barrutie/ez duenak duenari ematen diona, lotsa/behar ez den tokian, lotsia/lotsabakoari, lotzabako t' erdi/lotsagabeak, mundua bere/lotsagabeentzat mundua, irabasten duenarentzat zerua/lotsa nindin, ogiz ase nindin/lotsea galdu eta dirua ein, etab.*

*Ilutu/litz* eta *ilutu/lux*<sup>(1)</sup> datoz hizkunez. *Ilutu*=*"Ilu* jainkoari sagaratua" *Ihuren litzak*=argiak edo lilurak dago, beraz, *ilutu/iluso* dator egitura eta hizkunea; hareago, *ilutu/ilotz* eta *ildu*, beraz, *ilutu/lutu* zenduaren omenez eramaten den dolu-seinua, *ilutu/lutu*<sup>(1)</sup>*"lokatz"*, *ilutu/loitu*. Bestalde, *lutu/dolu*>*duelo* arketipoen itzuliketaz egin lorpena dela, eta halakoetan *luctu*<sup>(1)</sup> *"negar"* egiten dena. Zer dino honetaz herri jakinduriak? *Lutua arropin ez, barnean/lutua biotzin behar da*. Kopla batek era honela kantatzen du: *"Marijuana lutudune, klabeledine zuridune, klabeledine zurixe baino, hoba dona hik lagune"*.

14 LIMET. H., "Demoniología (religión sumeria y acadia)", DR., o.c.p. 1416-17)



Aldien joan-etorri borobilari dagokionez, *len/lehen* hizkunea atzera eta aurrera begira dago, "antxina" eta "aintzina" bezala, lenen izan dena delako lehen gerta dena eta aurrerakoan lenengo gerta behar duena: *lehen hala, orain hola, gero Jainkok daki nola/lehen daukanari joaten zaio suerte ona/lehen ez zan gaurko konturik/lehen ibili banintzan orain legez, oin ibiliko nintzan len legez/lehen ila, len ostu/lehena len, gero gerokoa/lelengo ikusi eta gero berba in/lehenean barka, bigarrenean marka, hirugarrenean urka/lengusinaren umie loba, atzie aurrie baino apur bat hoba/lelengo lan, geo jan/lehenik heuk egin, gero besteri eragin, etab.*

*Alor/lur* dator eta *lur/lor* da hizkunea, *lurrak* nekearen nekez landuak, *lorra* eta *lorpena* dakarrelako. Herri jakinduria *lurrari* atxikia dago: *den lurrik hoberena ere behar du aphaindu, garbitu eta jorratu/lurra beraxeago eta zizarea barnago/bakoitzak bere lurra maite/lur baltzak, ogi zuria/lur gutxi aldaparik gabe/lurmen bada joango da etxera/lurra ahanzkor/lurra ez da mozkortzen/lurra neguan pausatzen, primaderan iratzartzen/lurrak emaiten duana lurrak eramaiten du/lurrak ematen bazaio, ematen du/lurrak hazi eta lurrak jan behar/lurretik ipurdia urbil du harroak/lur guztiak denak eskaz eta azkenean bost oinetan gelditu behar, etab.*

Landu bako *lurrari larratza* deritxo, jainko txikien *lurrak* ziran. Larrate eta larre bideko gurutzetan haien omenezko *betilo* izeneko oroitarriak ezarten ziran. Han egiten zituzten batzarrak jabe eta morroiak. Larrate>*larratz* dator eta *larratz/laratz* hizkunean *laratz* jainkoekin topo egiten dugu. Erromak galazi egin zituan hoiekiko jaiera, jendea matxinatzeko bildu aitzaki gerta ez zedin<sup>15</sup>, hagatik sukalderaino sartu zan jainko *laratzen* eskua. Herri jakinduriak nor bizi bezala aipatzen ditu: *zein da etxeko berri ondoen dakien amona ezpainokerra? Laratza/laratzak ba daki etxeko berri/etxeko laratzuek etxeko berriek badakiz/etxeko laratzak eztzen deu pertsonie/etxeko laratzak berbetan baleki!/laratzak*


muturra beltza/laratzak baltzak berbetan baleki/etxeko laratzak danak neurtuten dduz/laratzak dana entzun eta beti ixilik, etab. Hala ere, sukalde zaharra, laratzak jainkoen unea, desagertzeaz batera ahienatu da jainko txikion oroitzak.

*Labur/lapur* dator hizkunean, *laburtu/lapurtu* bezala, izakera eta ekintza fisikoa analogiaz zilegi ez den ekintza eta ofiziora egozten dena. Lapurrez honela dino herri jakinduriak: *lapurpesta, labur/lapur handixe txikixen billur/lapur emailleak fama ona/lapurra harrapatzeko lapurra ona/lapur handiak lapur txikia urka arazi/lapur gutti aberasten/agiriko lapurra baino, isilekoa okerrago/danak santuek lapurren etxien/etxeko lapurra, txarrena/lapurra beti maltzurra/lapurrak eta maitaleak ilunpetan/lapurrak aurrean eta atzean gezurra/lapurra dagoen tokira/norberan gauzia ezтана ez hartu, etab.*

Larregia larria da eta ikus *lar/ler* hizkunea oharra ere ete dai- teken herri jakindurian: *larrei guztiak txarrak/lar be lar da/lartxu be, gauza onerako/larregi ta bapeza bardinek/larrak gitxitara lekarke/larriago ta gehiago/apaizkia jan da ler, etab.*

### 5.3. **Gizarte eskolako jakinduria berria**

Jakiduria, dela zaharra edo berria, gizakiaren zentzu eta sormenetik harakoa da, baina gizakiak hasiera baten izadiko liburitik ikasten zuan: *zer ikusi, ha ikasi* eratarata eta jainkozko arketipoez burutuko hizkuneak egiten zituana. Hala ere, bere konplexuaren kategoriak mitoraino jaso zituenean, bere eskarmenduen eskola egiten hasi zan: *zer entzun, ha zentzun* arabera. Jakinduria batek ez du atzintzen bestea, elkarren gehiagarri datoz eta, inoiz batak bestea ukatzen dutenarren, batek baieztan duena, besteak ukatuz, funtzean erdibide datoz edo egiaren beste alderdiak osatzera dator. Batean “*Santa Maria, ora pro nobis*” dei egin eta bestean “*Santa Maria, sätza ta karia*” erantzuten duenak, Jainkoari otoiztea nahiko ez dela ikasten du, asmakizuna eta ekintza norbere ahaleginez bultzatzen ez badu, edo *Jinkoari deiez, baina uretatik iges* aitortzen duenak gizakiak erantzukizunez eta Jainkoa dendatu gabe, zuhur jokatu behar duela denetan ezagutzen du.



Izenak *orga/karro*, *orgato/gurdi* datoz arketipoen itzuliaz. Izen zaharrena Ra arketipoa aurretik daroena: “Urziren etxea”. Zeregina izenetik izanera analogizatzen du: *erro*daz *eroan*=*roo*<sup>(9)</sup> eta *ekarri*, *gurdiaz gurdikatu*, *karroaz garraiatu*. Baina gizakiek soinez edo soinka ere *ekarri* eta *eroan* deza-kete, zama *garrira/gerrira gertu-az* edo abereen *bizkarrera egariaz*.

Jakinduria berriaren aldiko kategoriak dira, beraz eredu, ezeze, moda berriko *giza/gisa*, *beka/beza*, *jaka/jasa* hizkuneak. Gizakiak abere mailatik beste pasu bat ematen du, jantzi apainaz bestelako itxuran plazaratzen denean: *jaka/jasa*, beraz. Gizakiak bere, uneak eta mementoak har ditzake lotaldi edo atzedenerako: *beka/beza*, gizakiak bere estiloa dauka bizibide eta bizikeran: *giza/gisa* hizkuneak eskola berriko esloganak dira.

### 5.3.1. HizkUNETIK esakunerako Ka gizarte eskola

*Enki*<sup>(s)</sup>, jainko gizatua, *emky*<sup>(s)</sup> “jakin, jakintsu” esaten dator eta *nemeki*<sup>(bal)</sup> 16 “trebetasun, jakinduria”. Ohar *nemeki/ekimen* formen itzuliketa. Gizakia bere kixa eskola hartu eta emateko gei dela dino, nahiz giza egia izadiko egia edo Inko ena baino ezbaikorragoa ikusten duen. Jarraituala, ihes egiten bai-dio, zerumendien ertzeko egiak bezala. Horra, *egi/egia* berdinketako hizkunean lotu nahi lukeena. Nondik begiratzen den halako ikuspegia, nolako ikuspegia halako egia; Eki, eredu berriak argitzen dueno, era batera eta, itzaltzen daino, bestera. Mendi bidean gero eta gorago igonez, egia urrundu eta ikuspegia zabaldu egiten da. Hala ere giza egia, zeruak lurraz ukitzen duen egi unera lotua dago, begiak, argia lagun duela, goragotik edo beheragotik ikusi dezakenarren. Giza egia sentsuen oharpenari lotua dago, *egia da*, *neuk ikusia da-ta* abesten duenak edo “*egia*, *surraren ondoan begia*” dinonak “*begia*” aipatzen du egiaren lekuko, auzietako

“habeas corpus” froga bezala, eta *egiak argia du lagun* esaten denean, nonbait *Ekia/egia* aurreneko hizkunea aipatzen da, *Utu/su*<sup>(s)</sup> “Utu/argi” datorren bezala. Ikus dezagun herri jakintzak honetaz zer dinon: *egiak erre egiten dau begia/egiaren eraitea, begiaren jalitea/egia, animaren ogia/egia, arma zorrotza/egia, askoren erregarria/egia bakan garbia, maiz nahasia/egia berdin gezur bilakatzen, ala moztuz, ala emendatuz/egia beti xuxen/egia da abilezia handiena/egia da latz eta garratz/egia danak ez dira esatekoak/egia guztia ez dau inork esaten/egia esaten ez da beti erreza/egia me, ez ordea ze/egia gugaz danen aurka/deusek ez du akitzen gizona, nola egiaren erraiteak/egiak bere idea daroa/egiak ez du aterik hausten/egiak guzurrari jarritte etxon/egiaren indarrari eutsiko dionik ez/egiari egia zor, etab.*

*Ekain/gain* hizkuneak ere *Ekia* heinean dagonekoa analogizatzen du. Zer adierazi dezake eguzkiaren garapenak baino hobeki *gainditzea* eta *gaina* hartzea? Hala ere, *ekia* bera ere *gainbera* doake eta ohar herri jakinduriak: *ekaina eder, uda halaber/ekainean hego haizerik ez/ekaina lur busti, gure aita negarti/zela txarrenak ere ekainean badakarke/gain txuri ta barnea beltz/gainek laude, beherak haue/gaina eder, barrena uher/gainean eder, barnean lander/gainean gailo, barnean harro/gainbeherak aldapa berekin, etab.* Bide beretik dator *gana* ta *ganadu*, *gaindegian* larratzen duen aberea: *mendiko ganadue, zurre/ganadue berantza datorrenian, mendian edurre/ganaduak pertsonaren urrengo dira, etab.*

Gizakiak denari hartu nahi izaten dio nehurria, nahiz eta dena nehurtzea ezina zaion. *Giza/gisa* hizkuneak *giza* nehurri hori aipatzen du, eta *giza* modak ere ba du bere kana eta kanona *kanore/ganora* hizkunean. Ardurazkoa da *gizakiak* berataz zer dinon jakitea: *gixona beti gixon/gizon barura, kexu ardura/gizon berri, lege berri/gizon edarra, beharrean kaxkarra/gizon erribera, edo elgerra edo alferra/gizon guztiak desbardinak gaitzuk/gizon izatea da adimenduan egoitea/gizon lepo mehak, ganadu gizena/ gizon nekatu, gogo huts/gizon tiki, azantz handi/gizon txikiyek, kapela handiye/gizon txarrak arrazoi onik ez/gizon zentzudunak ere eroaldiren bat/gizon zuhurra ikusiz*

dabila, zoroa itsu mandoka/ez nehor gizon sortzen, gizontzen bai-  
zik/zelako gizona, halako otoitza/gizona beti gixontxo/gizona  
dabil eta Jaunak darabil/ gizona den bezala eta aroa heldu den  
bezala hartu behar/gizona ez da bakarrik ogiz bizi/gizonetik gizo-  
nera etxoik asko, etab.

*Ekua*<sup>(s)</sup>/egoa dator “etxea hegora” begira bezala, hegotik bai  
dator *egu/eguzkia*. Hilobiak hegora begira idekitzen ziran eta  
hilak hegora begira egortzi, hegoa bailitzan geroko *ekua*=etxea  
edo hegohaizea handiko errekadua. Zerbaitegaitik Goizuetan  
“goikoa” deitzen diote hegoaizeari. Hizkune honetaz auzaz bada-  
kike zerbait herri jakinduriak: hegoa, *andren gogoa/hegoa han-  
diak, ebi xeea/hegoak ardua xahakoa berekin/hegoatik elurrik  
mardulenak/hegoaizeak ego bat arra ta bestea emea/gaurko  
heguak, biharamuneko ebia/hegoaizea baino zaharrago/  
hegoaizea, ero haizea/egohaixean ostean eurie, etab.*

Edozein ekintzak ariketa bereziak ditu eta halakoak ahozker a da-  
tuz bereizten dira, *ekarri/egari* eta *ekin/egin* hizkuneak, adibidez,  
dakarrenak gurdira jaso edo lepoan hartu behar dituelako, hau da,  
*egari* edo eta *ekinaren ekinaz egiten* bai-da. Honela dino herri esa-  
kunak: *ekarten bozu zeugaz, jango dozu neugaz/berak ekarri, be-  
rak eraman/zer ekarri, hark eraman/bestek ekarri, bestek era-  
man/ekartze alderakua da hori/egurra toki txarrean eiten duenak  
bizkarrean ekarri behar, etab.* Bestalde, *ekin/egin* hizkunea ere na-  
bariki lotzen dira: *ekin eta ekin, ekinen puruz egin/ekinak, erdia  
egina/ekinek egine dirudi, inek urre gorrie/ezina ekinaz egina, etab.*

*Egata* jainko gaiztotzat ezagutzen da, “*egata-soinua*” deritso harri  
jasa aurretik entzun ohi den harrabotsari. *Hekate*<sup>(s)</sup>>*ekatx*>*ekaitz*  
dator eta *ekaitz/gaitz* hizkunez. Izadiko indarrok nor bezala hartzen  
dira maiz herri jakinduriazko esakunetan: *gibel egiok ekaitzari/  
uzkur bakio ekatxari, sendakike eguzkiari/ekaitz ostean, barealdi/  
ekaitz guztiak laburrak/ekaitzak dakar haro ona, gaiztoa bain-  
tzate, hoba/ekaitzaren ondoren, kalma, etab.* Eta *gaitzaz*: *gaiza unki  
ator, bakar bahator/gaitzari agokok behar/gaitza, lapur isila, etab.*

*Kura/gura, ekur*<sup>(s)</sup> “mendi tenplo” egituratik antzera emana da,  
hango guruak guraso ardua eta maitasuna adierazten du: “*cura/*

*quaerere*<sup>(7)</sup>/*querer* "bezala *kuratu*>*guraso* bai dator. Herri jakintzak ba du honetaz ere zeresan: *zer gura ta haxe/gure danerako orpoetan harririk ez/gura izan ezkerro bierra ez da falta/gura izatie eta al izatie bi/batek gura ezpadau, ez dago hasarrerik/nogaz gure eta ta haxegaz/batek gura ezik, bi asarretzen ez/zeuk gura ez dozuna inori ez agindu, etab. Gurasoez ere: Gurasoak umeari dana dotso sor/gurasoen haurkeriek ez dute haurra on-tzen/gurasoak nolako, umeak halako, etab.*

*Ekur* mendian edo *egurasetxean* egiten da *egurra* "egurtzea egin=*cortar* leña" esaten da, beraz, *egurtu* eta *cortar egur* bereko ezpalak dira. *Egurtzea* egiten duenak *ekuri eguriki* diezaioke uda-berriari, ikus, ezpaere, herri jakinduria: *egurrik ezin ditake egin oihanerat joan gabe/egur eskarmentadue sugin ona/egur ustele-an aizkora erraz sartzen/ez egur ebei, ez aizkora emon/egurra arian ezagutzen da/egurra bi aldiz neurtu eta behin ebaki/egurra toki txarrean eiten duenak bizkarrean ekarri behar/elur melur, ez diat hire beldur, ba diat etxean artoa ta egur, etab.*

*Gorta/gorde* hizkuneak hitza eta aditza atera ditu zer nahi eta hatarako. *Ekur+ate*>*korta*>*gorta* dator, aspaldiko santutegi eta *gorkua*, *gorta* eta *gordelekua* izan bai-*dira*, *gurua* "guardián" zelaririk. Haren *kuraz* eta *arrenkuraz gordetzen*, *guritzen* eta "gordo" jartzen bai-ziran *abelgorriak* eta herri jakinduriak susmo horri darraikio ganadu ona aipatzean, "San Antoniok *gordeta*" dinonean, edo "ezurra eta azala, San Antoniok *gorde* (gizendu) *dezala/gordetzen duenak izaten du/norberanak gorde, bestienak agertu/gauza gordea, urregorri/gordetzea, pilatzea baino zailago/gordetzea hobego, itzuleraztea baino/arerioekandik gorde gaizuz, etab.*

*Corde*<sup>(8)</sup>/*korde* eta *bihotz/abots* hizkune datoz *ekur+ate* "barne santutegi" edo *be+udd* "be-etxe" direlakoan analogiaz eta sorkuntza teologiaz<sup>17</sup>. Hagatik, *-kor* atzizki berezi eginaz, *sertikorde*>*sentikor*, esaten dugu. Eta herri jakinduriak: *gauza gordea, urre gorri/gauza gutxi gorde lekezak, sekula jakingo ez diren lekuen eta mo-*

17 "Eta gerta bezala, bihotza eta mihina nausitu ziren soin atal bakoitzean, jainko eta gizakien goputz eta aboan bera (Path) dagoela irakatziaz". (*Teología menfita de la Creación*, 53-55, ANET, 4-5)

17<sup>o</sup> laburgoa: *IBAI>VIA>FE, BIDE>FIDE, VEREDA>VERITA ANALOGIAK*

“Neu naiz *bidea*, egia eta *bizia*, bat ez dator Aitagana nire *bidez* *ezpada*/  
“Ego sum *via*, *veritas* et *vita*, nemo venit ad Patrem, nisi *per* me/Yo soy el camino, la *verdad* y la *vida*, nadie viene al Padre sino *por* mí”. (Jn 14,6).

- gauza zehatzetik astratura\*: *Abbay>ibai>way<sup>(6)</sup>>via>vé>fe, bide>vida>fida>fide/fede, bidez>fedez, vereda>veritate>verdad, beena\*\*>bena>pena, ibar>vera>ber/per, berme>firme, bermatu>afirmar>premutu>premiar*

- aditzak: *be+aiz>bizi; via>aviar=abiatu; bide>bideratu, vera>bermatu,*

- eratorriak: *benazko, bizer, bidezko, bidegabe, viator<sup>(6)</sup>, viable, verdadero,*

- konposatuak: *jarraibide, eskubide, helbide, erizpide, bizi-bide, garapen, burutapen, erospen, berbiztu, berezi, perfecto, prediku, etc.*

- edukina: *bide=zilegi, causa, medio, eritzi, etab., via=medio,*

- Gramatika: *by<sup>(6)</sup>, beena>baina>bina, beeno>beno>baino>bino, behin, bidez, beraz, -pen, ber-, per-, pero, pre/pre-, -bre, inobre, etab.*

\* Sinboloa materiazkoa da eta bertatik analogizatzen da ideen mundu osoa.

\*\* *beena* (*be* gehiengoan) sakoneko harria, oinarritzkoa dena: *ben-bena>pena*

*duen/luzaro ezin leikezak gorde jakitxurixia, kirtenkerixia, aberas-tasuna eta pobrezia/norberenak gorde eta besteena agertu, etab.*

Erro beretik dugu *kardia<sup>(6)</sup>/gardi* “bihotza/eritsi” eta *korde/corde<sup>(6)</sup>* “zentzu/bihotz”, egitiar sikologiari lotua. Norbaitek oroimena galtzen duenean, zera esaten da: *akorda bedarra ematen hasi beharra dago/akort eta apart/gutaz nor akordatuko da, ba?/Jainkoa akordatuko da gutzaz/noiz edo noiz akordetan zaren!, etab.*

*Garai/gari* hizkuneak bata bestearen kalitateak aipatzen ditu. *Gariaz* esan ohi da “txikia nintzan, handia nintzan, maiatzerako burutu nintzan”. Bii honek burua *garatzen* du, hagatik edukin bereko forma “gal, galazi, galsoro” darabil konposizioan. Gora adierazten duten egiturek *kara>gara, kala>gala*, datoz tokizenetan eta hala mutil *garatua, galai*. Hortik analogizatzen da merkatuan *kara/kario/karu/caro* prezioen *gara* eta generoaren *carestia/garestia*, batak bestea dakarrela: HizkUNETatik esakunera etorritz, ale hauek bilatzen ditugu: *garia bedarragaz eta umea negarragaz hasten dira/garia da bedarrrik gozoena/gari gaineko txoriak goserik ez/gari ona kutxan saltzen da/batzuk garia, beste batzuk errota harria/kaixan garixek baino proba gitxiau eitten dozu zuk/nahiz gari, nahiz galtzu, emana bada isilik hartu/garia ez da*

*gero garoa/garia loiarri eta artoa autsari/garia salduko ezpada ere, onduko al da benpen/gariak agotza bere, eta gizonak itzala ere, etab. Karu, garesti formei buruz beste aleok aurkitzen ditugu: garesti erosi, merke saldu/behar ez dan astoa, merkia izanda ere, garesti/karue dalakoan, onena merkien.*

*Kasta/gazte dator hizkunea, bargazta "tarrotzen doan mutila" bezala, "etxak" casa=etxean jaioak direlako, leinua aurrera daroenak. Ohartzeko da hizkUNETIK esakunera doana: kastatik kondea/kastaz du erbiak lotsor izana. Eta etheen kasta diren gazteez, berriz: gaztaroa aro eroa/gaztaro alferra, zahartzaro okerra/gazte zaharra/bier eitteko zar, juergarako gazte/ez izan eta bai uste, kakazilo jaun gazte/gaurko gaztiekin ez dago kontu zuzenik/gizon gazteen gogoa, ekosari lasoa/gaztieri leku en bixake/oingo gazteak asko dakie/gaztea nekez gaiztoa/gaztea loak ekarri, zaharra loak eraman/gazteak bururik ez, zaharrak indarrrik ez/gazteak badu zuhurtzia, ona izango du zahartzia/gazteak ure galbaian ere, zaharrak galdaran be ez/gazteak gaztelu, zaharrak maskelu/gazteak nahi bezala, zaharrak ahal bezala/gaztearen hazturak, zaharren ohidura/gaztetan ezi bear/gaztetan fafra eta lasterra, zahartzian eztula ta puzkerra, etab.*

*Castigo/gaztigu dator eratorriz hitza, baina esanahiaz bereizten dira erdera eta euskara: batean zigorra, bestean oharra, bata eta bestea casa=etxeko heziketa ardurak ematen dituenak. Herri jakinduriak hatarako arrazoirik bilatuko du: ez gaztigatzeak emaiten du okhasino falta gehiago egiteko/gaztigatzen ez den falta, beste askoren aita/gaztiguak ondutzen ez duena da muin gabe ta zoruen a/ondo maite duenak, ondo gaztigatzen, etab.*

*Gaixto/gaixo dator eratorriz, "estua ez dena, gaisto", estu "betea dena", beraz estu/gaisto>gaizto elkarren aurkako hizkunea da. Izakeraz soinkerara datorren berezko akatsa ematen du eta antxinakoen ustetan, gaixto izateak berak dakar gaixo izatea. Herriko jakinduriak gaiztoa gaixotzat dauka, ostera: hazi gaiztoa, berez jaiotzen/gaiztoa zuzen zaila/apartatan bai az gaiztotik, apartatan iaz gatxetik/gaiztoa bethi da gibel beldurti/geiztoagoak hobea nai/gaiztoari bi kandelarekin argi egin behar zaio/gaizto-*



*ak gezurraz dira alegera eta egiaz triste/gaiztoaren alabantza, ez musika eta ez dantza/gaiztoak on jaunen gerizan/gaiztoari egiten zaion mesedea, egilearentzat da kaltea/gaiztoen herrian, kale gorriak/gaiztuak gaiztua ezaguketan dau/gaizto harroa, txarre-na/gaizto zara, ordea, ez duzu nahi gaixto dei zaitzaten, etab.*

*Kide/gida dator etorri eta hizkunea egiten du eta biak ere konposizioan erabiliagoak dira, bakarka baino. Horrela adizkide, ikaskide etab. entzuten dugu, eto gida-liburu, auto-gidatzaile, etab. Bestalde ide>kide gizatzen da: Herri jakindurian honela dakusgu: idekoa idekoakin/kidekoa kidekoarekin/Hire ideaz ezkon adi ta aiza ondo beti/Jainkoa gauza guztien gaintetik maite eta geidea geure burua lez/on ereizteko Jainkoari, on egiok urgazi geideari, etab.*

*Ikusi/ikuzi doa zentzutik zentzura, begiak zakarrak salatzen baiditu eta ardurak garbitzen edo ostera, "begi itxuak negarrik ez/begi hertziak, ahalgerik ez" esakunetako jakindurian bezala: ikusi nai eztena, beti begietara/ikusi nahi dena ikusi ez, ikusi nahi ez dena, beti begin aurren/ikus eta sinets/ikusi ta gero danak listo/anhizetan ere ikhusia, ez ikhusi/asko ikusie, asko ikisie/zer ikusi, ha ikasi/bestien begiko makarra ikustegu, baina geurie ez/nai baden eta ezpaden, ikusi beharra den/makurren makurrena, alkar ez ikustea/ikusiaz agindu/ikuslea, dantzari ona/ikusixe kontau geinke, baina eztakigu zer ikusteko gaozen/ikusten ez duen begiak ez du nigarrik egiten, etab.*

*Kauta/gauza dator eta gauza dena kausi "gorde" eta kautan eukitzen dugü. Hagatik kauta hori egiten dugu bizi-*causa*, "cosa nostra" eta balioa, mailebatuz, gauzatu ere esateraino, "zertu" esan beharrez, hatan ere. Ea ezertarako gauza dugun herri jakinduria: gauza ona urrien kanbixetan da/gauza guztiek bere neurrixen/ gauza bakoitza bere aldin eta errege zaldin/gauza zaren arte, zartagia eskutik ez utzi/gauzak heldu diren bezala hartu behar, etab.*

*Ekoizte/kosta elkarren eratorri eta hizkune dira erabat, cosecha/costa bezala, euskaratik erderara. Bere aurretikoak ekoitz/egoitz dira, egoitza dutela ekoiztearen gune eta eragin. Hagatik esaten da: kosta bako ogirik eztau/ondo kostata/gutti kosta, gutti estima/mesedik abadien, eurek ondo kostata/kostia kosta/koslata kosta.*

*Gailen/galen*, hona giza ametsen gora-beherak hizkune berean, askoren eskarmendurako, herri askotako kultura zaharretan agertzen den lez. Kontu, beraz, harrotzeaz: *ez oila*, *Usmena: goralpenak soinean diakarken beherapena/goralpenean ortzilarea beherapen/batek galdu behar*, *besteak irabasteko/daukanari galtzen jako/galduez ikasten da/galendua dabil uberen bila/hobe deusen ez ukaitea*, *galtzea baino/ogi erre-barri*, *etxe galgarri*, etab.

### 5.3.2. HizkUNETIK esakunerako Ba gizarte eskola

*Ibai/epai* hizkunea errebeza dirudi gure ustetan, baina gure asabek badaezpadako gauzak *epaitzeko* erabili ohi zuten juzoa zan. Jainkoak zekian errudun zenetz, beraz, berak, jainko-*ibaiak*, *epai zezala*<sup>18</sup>. Hagatik jainko-*ibaira* urtikitzen zuten obenduru ustekoa, han *ibaiak epaia ebatzi* zezan. Halako auzitan maiz *ebatzi/ebatsi* gerta ziteken, eskarmenduak dinonez, hagatik esan ohi da *Jainkoari eutsi*, *baina ez ibaira jauzi*. Asabek geroago aterako zuten burua, *buro/foru* eginik, eta *borutu/aforado*, edo eta burutuz, frutua emanik, *burutu/frutu* bai-dator landaretzaren analogiatik.

*Ibai>via* datorren bezala, *bide/fide/fida/fede* dator, bizitzako *bidea*, *ibai* ganoratik analogizatzen delako Sumer edo Egipto *ibai* inguruko kulturetan: *ibaia* jaio, *bide* luzea egin eta, azkenean, itxasoan amaitzen. *Ibaia* da, beraz, gizakiaren *bizi-epea* ere, “*ibaiak (urak) eginen du bide*” esan ohi den bezala. *Ibai/epe*, *bide/fede* hizkuneak aztertuko ditugu esakunetan: *ibai handiak*, *hots handia/ibai nahasia*, *arrantzaleen irabazia/guk behar dugularik*, *ubaldian ez da urik/ubaldeak goitik ez du ekarten zakarrak besterik*, etab. *Epeari* dagokionez honela ebazten du herri jakinduriak: *epea amaitzean*, *epaia atean/epea ez da luzakor/garizuma luzea*, *epea labur/azkenik ez duen eperik ez/irizten ez den eperik ez da/pagatzaile txarrari*, *epe laburra*, etab.

*Bide/fida/fede* hizkunean norbaitek asmoz eta jakitez onartu bizitzako jarraibidea ikusten dugu, harekiko itunbenean du ustea,

18 “Si uno acusa a otro de (...) y lo hace ir a la ordalía del dios-rio, si la ordalía del dios-rios declara inocente al acusado, el que lo hizo ir paragará 3 siclos de plata”. (*Las Leyes de Ur-Nammu*, 13, DB, n<sup>o</sup> 15)

hagan fidatzen da, eta bidearen azkenean saria edo zoriona lortzeko ametsa. Hala dirudi, baina zer dino herri jakinduriak?: *bidaide, ez gogaide/bide batez eitten danak bi balixo deu/bide asko izaten dira mendi gailurretara igotzeko/bide hobekienik ezagutzen dena, laburrena/bide luzean lumea ere astuna/bide makurretik dabilena listo erori/bide onetik, segurixo/ezta bide xigor hain ederrik, non ezpaitu bi urratzen lohirik/bide xuxena da laburrena/bide xuxena hoberena, hor zoriona, oi zu, Jauna/dabilen bideak harrapatu/ez baduzu erori nahi, bide onetik joan/bideak gosea berekin du/bizar gorri, bide horri, etab.*

*Fede/fida* hizkunean galdetzen da: zer da fedia? Bakoitzak egin dezala beria/fedia, bizitzako argia/fedean otzago, sorginkerietan beroago. Eta fidatzeari dagokionez, halako oharrak ikusten ditugu: ez fiatu gehiegi itxura onarekin/non fida, han tronpa/ez fida abendu izartuari, ez emazte ederrari/ez dik ez ipurditik sobera fida/ez fida boneta makur daeskan gizonari/jendearekin ez sobera fida/nehori fida ez denari nor fida?/nehortan dadin sobera fida, gero eihagorari da/besteen esanagaz fietan dana, txarto biziko da/zurekin fiatzen ez danarekin ez fiatu, etab.

*Baitu/bagatu* elkarren aurkakok dira, -ga- tartekatuaeren eraginez. Legez baituta dagoenaz jabetu nahi duenak *bagatu* egin behar du harekin izuna edo balorea eta *bagatu/pagatu* dator, Ikus dezagun hizkuniketik esakunera ze alde dagoen: *paga ona, akuilurik onena/pagatu behar ez duenari berdin zaio bat edo hamaika/azken hilek pagatukoik dena/pagatutako danbolinak, ots txarra/pagatzaile gaiztoaganik olo/pagatzaile onena, base-rritarra/pagatzaile txarrak asko agindu/pagatzaile txarrari, kobratzaile ona/pagatzean bi poz/pagatzeko azkena, hartzeko lenena/pagatzaile txarrari, epe laburra, etab.*


*Behen>behin, ben>pen, benpen* hizkunean bene-benetan, behein-behin esakeren sorgüa dago, Ba egiak behean eze behen duelako oinarria. Honela oroitzen du herri jakinduriak: *benetan gura dana ezta aztuko/garia salduko ezpada ere, onduko al da benpen/behin ere ez baino, noiz edo noiz hobe/behin bai, baina berriz ez, etab.*

Bide beretik *bena/pena* dator "bena (egia) mingarria delakoz"

eta herri jakinduria ez da ahanzkor: *penaren karameloa, esperantza/ezta kontzientziaren penak baino pena handiagorik/inoren peniek guri min gutxi/penatan dauena, dana penagarri/beti penetan, beti penetan, gabiltza mundu honetan/inoren penak errez eroaren haiziek, etab.*

*Pensu<sup>(0)</sup>/pentzu* hizkunea pisuaren gorabeheratik analogizatua dator. Pisuak egia dino, baino norbere arazoa inoren *pentzu* usteak ardura ematen du. Urrea kontu handiaz pisatzen den bezala, hala *pentsatu* behar da ardurazko gauzatan, herri jakinduriaren arabera: *pentsatu gabe esaten duenak pentsatzen ez duena esateu/pentsatu prisarik gabe, ekin geratu gabe/anitz mintzatu, guttik pentsatu/askok ez ohi du pentzatu nahi, pentsatzen ez dena etorriko ezpalitz bezala/egunez pentsatu, gauez amestu/gauza bat pentsatu eta bestea esan/bi aldiz pentsau eta behin in/luzaz pentsatu eta laster obratu/txarto pentsetan dauenak onik egin ixin/zelan pentzau, alan ein, etab.*

*Berba/verbu<sup>(0)</sup> eta berba/breve<sup>(0)</sup>, berba/previa<sup>(0)</sup>* hizkuneak euskararen eta latinaren artekoak dira. *Ber-bera > vera/veru<sup>(0)</sup>* "egia" dator eta *berba* eta haren barne-edukina *ber-bera* direla esaten du. Horra, *berbako gizona*, edo eta eritxi guztia *berba baten esateko* esakerak. Latina euskararen bidetik dator "berbea emon=*verba dare/berba egin=vervum facere/berba baten=uno verbu/txakurrinak esan=verba canina/ze berba da hori=quod verbum audio?*, etab. Gainera, *berba/breve* dator "berbetan *labur, ekintzan largu*", nolabait grekoen hizkibidu ugariaren aurkakoa, hoiek *berbaz* barik "parabolaz/paraboletan" azaltzen bai zuten barne-muina. Hagatik, *berba gitxitan esateko=breve faciam* dino latinak, *berba labur=brevis syllaba*, etab., nolabait, *berbetan* hasi ordukoa=*previa*, ots, "bein-behinekua". Hona, beraz, *bera=bera* elkarrenak edukinez. Ikustekoa da herri jakinduriak honetaz zer dinoen: *berbarik onena, laburrena/berba asko, errakuntza asko/berba eitte ordurako, birriten pentsau/berbie emon, sor/berba gitxi oba berba bako gixonagaz/geur berbie emon eta bixer jan/berba ona, baia eitera utsek/jakin barik, ezta berba ein bier/personiek berbako izen bier dau/zenbat eta berba gitxiau, oba/berbaz aittuten da, etab.*



Egitiar balantza eratako pisua, dirua pisatzen-edo (Dic. B. or. 181) goian Maat, zuzentasun eta jakinduria jainkosaren irudia duela. Pisua=*pensu/pentzu*, doitasun, zuzentasun artezia zeukan eta haren *pentzudan* bat laket zeiteken. Zehaztasun guztia eskatzen zuan pisatzailearen aldetik ardurazko gauzatan bederen. Halatan, pisua zehatz aztertzeko balantza analogia sorgu gertatu zan: gizakiak erabaki zuzenak hartzeko, *pentsatu* egin behar zituan arazoaren alde onak eta *txarrak*, *erdian eman ahal izateko*.

*Bhiotz/abots*<*abo+ots*>*ahotz/boza* hizkunea lehen (17 oharrean) ulertzen da, baina bai eta ere sikologiak eta euskal jakinduriak behin eta berriz esaten diguna oharitzen: *abotzean igarri bihotzean zer duen egari/bihotzaen giltza mihina/bihotzaren behargile, mihina/bihotzaren gaindia mihin puntara lerratzen/bihotzak zer dinoen ere, mahia mintso/Zer dezu bihotzen, hura dezu mingainean, etab.*

*Abate*>*abade*>*apaiz*>*apez* dator, euskalkien ahozkera bereziek ez ditu edukinez bereizten eta herri jakindurian: *abade izan bako obisporik eztau/mesedik abadiak, eurek ondo kostata/abadiaren baraua, pobreen besta/abadean lapikotxoe, txixixe, baina goxue/abadiak hartu, emon ez/abadiak be bere sakristau denpora aztu egiten dau/abadiak zelan kanteu, monagiloak halan erantzun/apez anitz, elkarrekin guda/apaizak bi karrera batera egiten dituzte, zerua irabazteko eta ondo irabazteko/apaizak ehiztari/apaizak eta quantak, ederrak gantzak/aphezak eguerdiko mahainean/ber-tzentzako apez eta gerendako ezkolaba ez/hobe gizon prestu, apez gaixto baino/nolako apezta, halako eliztarrak/apezak azken hitza bere/apezen liskarrak deabruaren jaiak, etab.*

*Borta*>*forzza*<sup>(it)</sup>, *puerta*>*fuerza* eratorriak ezeze, hizkune berriak euskaratik erdara, lehenagoko *atari*>*adari*>*adar* bezala (Ikus 121 or.) Odei jainkoak *Hadad* eta *Adar* izena zuan akadieraz eta

haren inisituaren hain erasoan zan benetako *indar*, euskaldunentzat, guztiotan hizkuntzaren garapena analogian bai-datza. Anartean latinoek ez zekiten *porta* nondiko izena zen ere, ez eta oraingo hizkuntzalariek, ate horren giltza den euskara morroilo barruan aztu zutelako.


### 5.3.3. Hizkuntetik esakunerako Ax gizarte eskola

*Izen/izan* hizkuneak antxinakoen eskolatiko hitzaren artezia edo magia gogoratzen digu, jainkoek “erran eta in” egin bai zuten izadia diren guztiekin. Bide beretikoa da “esan eta izan” hizkunea ere. Herriko jakindurian luze dirau eztabaida honek: *izenik bada, bada/izena bai, izana ez/izana izanen/izanaren itzala, izena/izen txarra, izan txarra/ez dira asko izenaren jabe/izena duen guztik bada izana/izen ona galdu ezkeror, ezin bildu/ez du izenak egiten izana/izana bat, izena bestea/izena duten guztien izana bada/izen duten guztiak izana balute!/izena eta izana, biak behar/izena haundi, izana txiki/izena eta izana bi gauza dira, etab. Esan/izan hizkuneak ere alderdikariak dauzka: *esan, abadeak mezan/esan eta izan/esanekoa ez ukatu/esan bai, izan ez/“balea” esan eta “belea” izan/bat esan eta bestea egin, etab.**

Izenari dagokionez, izena behar da, nor zein den jakiteko. Zein galdegaiak *izenaz* galdetzen du, *izena/zein* datorrela hizkunez, bada, herri jakindurian, “inor ez da itzala”, izena den hainean, “inor ez da erortzen besteen zangoekin”, etab.

“*Izana, izen gaitza* dino esakunak, baina, era berean, *zendua/sandua* aitortzen du asabengandiko kulturaren, eta hagatik *hil adi, alaba aite* ziurtatzen du. Bizidunen artean, ostera, ez du santurik aitortzen, eta gorenean ere, *santutasun eta diru, hamarretik hiru*. Asabotuak, asabak, hilak, *zenduak*, ostera, *santu* guztien taldeko aitortzen ditu herri jakinduriak: *hil da gero danak onak/santu izateko hil egin behar da/hemen danak ogia jaten dogun santuak gara/santu ogi jaleekin ez fiatu/beti santu gisan, harekin kontu izan/santuak sanau eta abadiak kobrau, etab.*

*As/hasi* hizkuneak *as* “arnasak” hasieraz eta *azagaz* du zerikusia, hagatik *atsa izaki gure bizia* dino herri jakinduriak: *hasiak*



Biziaren eta osasunaren arduradun suge edo ziraundun *Shan<sup>(u)</sup>/San<sup>(e)</sup>* jainkosari egin siniskai opariak, *Bet-Shanen* Fenizian. (Ba zan Galian eta Erroman ere, Sirona izeneko osasun jainkosa, ikurdiz sugea zuena) (Dic. B. p.233, "Serpiente" ibi., p.1832-1833) Sugea osasun bidetzat eman da Sortaldetik honaino (Num 21,9) *Saniatu=sanar, sano* esan ohi da, *sanie<sup>(o)</sup>=odol gaizto*, *zain, nahas<sup>(o)</sup>=suge, shan/nahas* arketipo itzuliketaz esana da, *naas, naasi* ere bide beretik datorkez

*egina dirudi/asi ta buka, guztia da bat/hasten ez dena ez da bukatzen/behin asi ezkerro, segitu egiten du gaitzak/txarto asi ta txato akabau/zelan asi alaxe amaitxu/asiék ine dirudi, inek urregori/hastea erraz, irautea zail/hasteko tonto, ixteko pronto, etab. Behin hasia amaiatz burutzen bai-da, asa+ga>azaga dator atsena edo asa+guena>azkena, herri jakinduriak dinonez: Zer da hiltzia? --Atsa ateratzea eta orduan amaia izaten da: azkenik beia Jaungoikoa bakarrik/azkenik ez duen eperik ez/azaga onik ez dau mandazaik/azken hilak zorrak paga/azkenean denak igualto/azkenak atea itxi, etab.*

*San/sano* dator hizkunez, *Shan<sup>(u)</sup>, San<sup>(e)</sup>* jainkosa gaixoen *saniatzaile* zan (Ikus irudian), *San* titulo duten santu asko bezala. *Sano* denak ez du kutsurik uzten aitortzen du herri jakinduriak eta kalendrerako santuak eguraldiaren inguru maiz aipatzen. Hurragotik jarraituko erromesen akitiak *San Milian, buskantzak jan ta akitian!* asaben *akitu<sup>(s)</sup>* gogoan: *San Blas, domistikuka ito behar naz/San Blas, ito arte arnas/San Juan bezpera, sarna fuera/San Juan goixeko inontzagaz anak busti ezkerro, gatxak kendu/San Markos egunaren inguruan gorrine mezak emoten/San Migel, hemen hel!/San Mames, barda ein dut ames zurez eta neurez, Jinko eta Andre dena Maria, har nazazie zuen hunez. Amen/San Andres, lar eskatzen dabenari, bapez/San Antonio, San Antonio, txarria gaisorik da-*

nean/luze ta mehe, San Bartolome/San Ramon, umea nahi dot eta egin niri jaramon/San Nikolas Jauna, indazu lagun ona, plaza gizona, sakelan diruduna/Santa Barbara, Santa Kruz, Jauna balia zakiguz; inozenteen ogie, Jauna, miseri-kordie/Santijago Jaune, emoiztasu buruko argitasune/santuak sanau eta abadiak kobrau, etab.

Bide beretik doa saindu/zaindu hizkunea, bada sainduen laguntza zan antxinako fededunen osasun edo ogasunen zaindaria, San Antoniok zainduta (gordeta) esaten denen bezala. Hagatik: bakoitzak bere sainduari otoitz/milagrarik egiten ez duen santua laster da aztua/San Antonio galduen bilatzailea eta bilatuen gordetzailea/San Antonio ezkongaien laguntzailea, etab.

Senda/sento/sendo hizkuneak sendabide dino, eta santutegirako erromes bidetik, "ene gaitza sento ahal liron" sendatik, analogizatu da, hara bidean asko sendotu bai-dira, norbere osasuna sentorale deitzeraino, edo sentier<sup>(9)</sup>, senteria eta "erien sendatzeko photeria" duen maite lagunari akitian jarraki, "Salvatore gora da" abestian aitortzen denez. Hagatik esan ohi da: senda bakoitzean, toilu/sendo ditazke zaur ezpatazkoak, bana nekez mihizkoak/sendabedarrrik onena, dirua/gaiso txarrarentzat sendagile onik ez/sendabelarrak ezin duena kanposantuak sendau/senda, senda miriku, trapu zarra ziriku/presuna batek, sendo denean, du eritzeko perilik gehiena/sendoak ere makaluneren bat, etab.

Sein/sen/seny<sup>(ca)</sup> hizkuneak senide asko ditu estegi berriko etxean eta denetan xeena>seina. Sein ez sen+ide ez da abele kumeez esaten, txikitatik etxeko sen berezia duten seme-alabez baino. Herri jakinduriak zera dino seinez eta senideez: seinak dantzuana eskaratzean, esan daroa atartean/seinakaz etxun dina ukuzkari jaigi da/senidea senidearekin/senideak alkartzen badira, otsoen bildurrik gabe, lasai dijoaz mendira/senipartea, senideak banatzeko artea/senideen arteko aserreak laster uzten itxea errea, etab.

Senti/senti<sup>(cheso)</sup>/sentire<sup>(1)</sup>/sentir eta sentsu/sensu<sup>(1)</sup>, sentzun hitzak senideak dira "senak emon, sentitu" bezala hatarako seinak dituen sentzunari esker, "umean sentzuna, etxean entzuna" esan ohi den bezala. Beraz sentsu/zentzu, eta sentzun/zentzun ohargailua eta oharra bereizteko hizkuneak dira, hesi/hezi bezala. Esakunetan hola



## 18° laburgoa: SEN+ATE&gt;SENDA HITZAREN ANALOGIAK

“Bai dela estua Bizitzara daraman senda!” (Mt 7,14)

- Ikusten denetik ikusten ez denera doa analogiaren bultzada:
- *semita*<sup>(o)</sup>/*Zenita/Attisane* (tokizen)>*senda/sendo, sendor, sendagai, sendatu/ sendotu, sendabide, senderatu, sendotza, zenda>zenthos, zentatü.*
- *Senda-/Sanda-/Santa-, Zenda>Zena-* (tokizenen konposizioan)>*Santa/Santu* sendatzaileen tituloa: *Sendadiano> San Dadiano.*
- *Utusan/Sansu*<sup>(o)</sup> *sanson-arriko jainko iduzkia>santzu (sanotasun santzuetatik apaizek iragarten zuten sanidadea (Lev 13,1-8) (Mc 1,40-45), beraz, sancitu>sanctu*<sup>(o)</sup>*>saindu/zaindu; santzu/santzo (sendatu denak, auzoari adierazteko egiten duen poz-oihua da santzoa, ots, Jainkoak ogena barkatu diona (Mc 2,9) eta bedeinkatu duena herriak jakin dezan)*
- *Senda/Sanda>Sena/Sana* (tokizenen eratorria) *Sanda* eta *Shan/Sani* (ziliziar eta feniziar jainko/jainkosen izenak, ala *Sandamendi* eta *Montseni* santutegietan)
- *sentorale, sentier*<sup>(o)</sup>/*senteria* (santutegirako *sendak* “erromeriak” adierazten eta lortzen du *sendotasuna*); *senton/centón* “bizitzako *senda* jada ibilien=*sentonduen* esakuneak=*sentencias*.”

ikusten dugu: *zentsü borogatü hobe, zentsü eskolatü beno/zentsun ekarria eztoa sartu buruan/zentsuna ixildu eta harriak bildu/zentsuna ez da Salamankan saltzen/zentsundunak inoren burutik hartzen dau eskarmendua/zentsunik ez dekonak minik bez/zentsurik ez duenak, bihotza hotz, etab.*

Hesi/hezi hizkuneak *hesia* hezle dela dino, ariketak gogakera dakarrela, zioak ondorena bezala. Abereak hezteko *hesparruan* sartzen dira eta seina txaka-txakan ikasteko hesi gurditxoan . Abere ekoizpean *bezatu/avezar* dator eta hortik *facere*<sup>(o)</sup>>*facienda>hacienda>azienda* zerrenda. Herri jakinduriak honela dino: *hesi gabe, baratza guziena/oro hezkai girade, dolorea hezle, etab.*

Abere bezaketan *esola* bereziak eraikitzen ziran, etxeari dautson “esku-ola”=mandioa bezalakoak edo etxetik ate *Eskola, Eskolan, Eskolieta* deitu-bezalakoak, beraz *esku-ola/eskola* dator aberezaintzatik ume zaintzara, *sjole*<sup>(o)</sup>/*schola*<sup>(o)</sup> formak bezala. Hortik *eskolaume, eskoladun, eskolau, eskolamaisu, sasieskola*, etab: Beraz, *eskola*, hitz mailebatu barik, errentakin jasotako hitza da.

*Etxe/etsai* hizkuneak, aurkatzean hala bereiztean, kontu handiagoz

begiratu behar direla adierazten digu, *etxea* “*etxatiarra*” daitekkelako *etsairik* handiena. Hizkuniketik eskunera zenbat doan ikusiko dugu: *etsai* *agiria ez da hain gaiztoa, non da estalia?/giza etsaiak bere etxeak/etsairik gaiztoena etxe barrenekoa da/etsaiak bethiere zelatan daude, emaitan adizkide, kuperatzean etsai, etab. Etxeaz ere honelako aleak dauzkagu: *etxe* *danetan abie eta norberenean handixena/etxe guzietan laratza, latza/etxeak agie/etxe guzietan dago Juanen bat eta astoren bat/etxe hutsa, errierta utsa/bakotxak bere etxetik atera kontuek/etxe zaharrak ituxin asko/besten etxin ondo bizi/etxeko sua etxeko autsarekin emendatzen da/dakarrena etxe alde, daroana, etxe kalte/etxeak bi aldetik su/etxian etxian malue eta geurien handiague/etxeko lapurra lapur maltzurra/etxean hartz, kanpoan axuri/auzoan uso, etxean otso, etab.**

*Etxekotu*>*ezegutu* dator *etxakotu*>*ezagutu* bezala elkarren hizkune egiten dira, bata bestearen bide direnez gero. Hortik *etxakona/ezaguna* datorrenetz jakiteko, ohar esakunak: *ez da jendea beila ezagutzen/hamar kilo gatz jan behar elgar ezagutzeko/ezaun adi eta aizate ondo bizi/ez ezauenak eroazela/ez ezagunak jasan ezala/ezautzen ez denakin ez fiatu/zazpi urte behar, elgar untza ezagutzeko/ezagutzen eztana ez da estimatzen, etab.*

*Yaweh*<sup>(h)</sup>/*jaube*<sup>20</sup>, *jaubetu/saboir*<sup>(d)</sup>, *xabetu/sapere*<sup>(l)</sup> edo “*jabeak ba daki*”, *dakiena jabetzen da, jabetzen denak ulertzen du, maiz saporiaz baliatuz, “me sabe” edo oharpenez “jabetzen naiz/ez jaube egin” esakeretan bezala. Eta hizkuneak ere esakunaz du saporè: buruaren jabe ez dana ez da ezeren jabe/hitzaren jabe izan behar da/nolako jabe, halako tresna/jabetasuna ez daukan pertsonieri erruki ixen bixako/jaberik ez duena galdu egiten da/bi jaberren orak, sarea gora, etab.*

*Espe/spe*<sup>(l)</sup> bikote egiten dute euskarak eta latinak: Ansiatzen den guztia itxaroten da eta halako *espea* da geroko (norantza) ondasunen “*esperantza*” jarkeraren oinarri bata lurrean: *espe-*

20 Akaden (2.000 K.a) *yau* eta *yaum* jainko tituloak agertzen dira, fenizieraz *yw* idazten, hebraieraz *yaweh*. Ulertuek ez dakite zer esan nahi duen, euskaraz hain argi dagoena, legezko izanik Jainkoari “*ene jaun eta jabe*” deitzea. Ahozkeraz *yaun*, eta *yabe* ere esaten da, *Yainko* ere esaten den bezala.



